

**IRUÑE ETA TUTERA, BILBO, DONOSTIA
ETA GASTEIZKO ELIZBARRUTIAK**

SINESMEN BIZIAGOAREN ZERBITZUAN
«Sinesten dut; sendotu Zuk nire fede ahula» (Mk 9,24)

**IRUÑE ETA TUTERA, BILBO, DONOSTIA
ETA GASTEIZKO GOTZAINEN IDAZKIA**

1997, GARIZUMA–PIZTUERAKO PAZKOA

AURKIBIDEA

SARRERA (1-4. z.)

I.- KRISIAREN BARNEAN (5-19. z.)

Egoera korapilatsua (6-9. z.)

- Krisi barnean fede bizia (6. z.)
- Krisiaren ezaugarriak (7. z.)
- Ibilbide nahiko arrunta (8. z.)
- Guztiei erasaten dien krisia (9. z.)

Sinesmenaren ahultzea (10-15. z.)

- Jainkoarentzat tokirik ez (10. z.)
- Sinesmenerakiko axolagabekeria (11. z.)
- Barnetasunik eza (12. z.)
- Eskakizunari beldurra (13. z.)
- Errudun izateari uko (14. z.)
- Zalantzaren iluntasuna (15. z.)

Axolagabekeria indartzen (16-18. z.)

- Ala-moduzko agnostizismoa (16. z.)
- Aurrerakoi izatearen ideia (17. z.)
- Erljio-praktikarik gabeko sinesmena (18. z.)

Joera berria (19. z.)

II.- ZENBAIT JARRERA JAINKOAREN AURREAN (20-29. z.)

Axolarik eza (21. z.)

Jainkoaren esperientziarik gabe (22. z.)

Jainkoarengana joateko bideri gabe (23. z.)

Komunikazio-zailtasuna (24. z.)
Jainkoari beldurra (25. z.)
Iheskeria (26. z.)
Jainkoa kontzientziatik kanpora botatzea (27. z.)
Jainkoa erabiltzea (28. z.)
Erljio-gaiaren itzulera susmagarria (29. z.)

III.- ERANTZUN BEHARRA (30-34. z.)

Erantzukizun handiagoz hartu beharreko erabakia (30. z.)
Bila ibili benetan (31. z.)
Dei egiten ikasi (32. z.)
Ilunpearen erditik sinetsi (33. z.)
Sinesmena berreskuratu (34. z.)

IV.- ZER DA JAINKOAGAN SINISTEA? (35-49. z.)

Jainkoa ez dago inorengandik urruti (36-38. z.)

- Hor da Jainkoa, hasieratik (36. z.)
- Gizakiak onartu egin behar (37. z.)
- Sinesmena dohaina da (38. z.)

Jainkoari uste onez atxiki (39-41. z.)

- Jainkoarekiko lotura (39. z.)
- Sustrai-sustraiko konfiantza (40. z.)
- Jainko biziarekin topo egin (41. z.)

Bihotz-bihotzez (42-44. z.)

- Pertsona osoa atxiki Jainkoari (42. z.)
- Sinestedunaren ibilbidea (43. z.)
- Sinesteko era desberdinak (44. z.)

Ziurtasuna eta iluntasuna sinesmenean (45-47. z.)

- Zalantzaren esperientzia (45. z.)
- Hurbil den Jainkoaren urruntasuna (46. z.)
- Beti sinets daiteke (47. z.)

Sinesmena eta bihotz-berritzea (48-49. z.)

- Oinarrizko bihotz-berritzea (48. z.)
- Fedearen eskakizunak (49. z.)

V.- NOLA BIZIBERRITU JAINKOAGANAKO FEDEA? (50-57. z.)

Jainkoaren lehen susmoa (51-52. z.)

Jesukristo, Aitarenganako bide (53-55. z.)

- Jesukristo, "bidea, egia eta bizia" (53. z.)

- Jainkoaren egiazko aurpegia (54. z.)
- Sinestera deituak (55. z.)

Bilaketa-jarrera (56-59. z.)

- Bilaketa pertsonala (57. z.)
- Jainkoarenganako gogoia (58. z.)
- Argaltasunez eta zalantzaz (59. z.)

Barnekoaren arreta (60-61. z.)

- Norberarekin topo egitea (60. z.)
- Jainkoaren misterio pertsonala onartzea (61. z.)

Eginbidean ibili (62-64. z.)

- Zintzo Jainkoarekin (62. z.)
- Bekatua aitortu (63. z.)
- Barkamenaren esperientzia (64. z.)

Beldurretik konfiantzara (65-67. z.)

- Jainkoagan uste on izatea (65. z.)
- Beldurretik maitasunera (66. z.)
- Eskerrak emanez bizitza (67. z.)

Non aurkitu Jainkoa? (68-72. z.)

- Biziaren iturrian (68. z.)
- Eguneroko bizitzaren esperientzian (69. z.)
- Esperientzia “trinkoagoak” (70. z.)
- Maitasunaren esperientzia (71. z.)
- Beharrea dagoenarenganako maitasuna (72. z.)

Otoitza berreskuratzea (73-76. z.)

- Zailtasunak (73. z.)
- Nondik hasi? (74. z.)
- Gehienen otoitza (75. z.)
- “Gure Aita” (76. z.)

Fedea janaritu (77-79. z.)

- Eliz elkarte (77. z.)
- Igandeko Eukaristia (78. z.)
- Jainkoaren Hitza entzutea (79. z.)

VI.- SINISMENA SENDOTZEA (80-102. z.)

Fedearen zerbitzua (81-85. z.)

- Fedea oinarritzea (81-82. z.)
- Irakaspen-eredua gainditzea (83. z.)
- Esperientziaren bideetatik (84. z.)
- Hizkuntza (85. z.)

Oinarrizko jokabideak (86-89. z.)

- Zerbitzua (86. z.)
- Elkarrizketa (87. z.)
- Testigantza (88. z.)
- Lagun egitea (89. z.)

Parroki elkartea (90-93. z.)

- Fedearen sarbidea. Katekumenotza-erako pastoralgintza (90. z.)
- Pastoralgintza misiolaria (91. z.)
- Igandearen ospakizuna (92. z.)
- Otoitz egiten erakustea (93. z.)

Familia sinestuna (94-99. z.)

- Zailtasunak (94. z.)
- Familiaren ahalbideak (95. z.)
- Oinarrizko baldintzak (96. z.)
- Famili giroa (97. z.)
- Otoitza familian (98. z.)
- Norbaitek sinesten ez duenean (99. z.)

Bihotz-berritzearen bideetatik (100-102. z.)

- Apaizen eginkizuna (100. z.)
- Erlijioso-erlijiosoen testigantza (101. z.)
- Sinestunen bizitza (102. z.)

SARRERA

1. Azken urte hauetan, Pastoral Idazki ezberdinen bidez, *federik ezak jotako egunotan fededun* izaten lagundu nahi izan dizuegu¹. Saiatu gara aztertzen eta hobeto ulertzen, zer arrazoi eta esperientziak eraman duten zenbait jende, eta ez gutxi, bere fedea ahultzera eta erlijio-axolarik gabe bizitzera. Guztion barruan lanean ari den krisigiro hedatu honetan, adore berria eman nahi izan dizuegu Jainkoarengan uste on izan dezazuen². Horrez gain, zera azaldu nahi izan dizuegu: Jesukristoren Ebanjelioak nola lagun diezagukeen gaur egun gure giza eginkizuna zentzu beteagoz, erantzukizun argitsuagoz eta itxaropen alaiagoz burutzen³.

2. Aurten beste pauso bat eman nahi dugu. Sinetsik gaude, gaur egungo krisi hau «grazi garaia» izan daitekeela askorentzat, kristau-bizitza berritzeko gonbidapena egiten zaien garaia. Hauxe da Pastoral Idazki honen helburu bakarra: krisi honen barrean gure egoera pertsonala mugatzen, eta hain mesedegarria ematen ez duen une honetan, Jainkoarengan dugun sinesmena berreraikitzen lagunduko digun gogoeta eskaintzea. Zerbitzu zehatza eskaini nahi diegu, erlijio-krisi honetan non aurkitzen diren jakin nahi duten eta Jainkoarekin topo egiteko zer bide hartu galdetzen duten gizon-emakumeei. Ez dizuegu hitz egin nahi guztia dakitenen segurantziaz. Barruan daramagun Misterioa guztion gainetik dago. Guk ere *itsumustuka* bilatzen dugu Jainkoaren aurpegia geure bizitzan (Ap Eg 17,27).

3. Gure Pastoral Idazkiaren hasieran, gaur egungo erlijio-krisira hurbiltzen saiatu nahi dugu, bakoitzaren *egoera pertsonala* hobeto ezagutzeko: «Non nago ni?» (1. atala). Baina, krisi honen barrean, garrantzi gehiagokoa da ondo muga-tzea zein den gure jarrera pertsonala Jainkoaren aurrean: «Nola nago ni Jainkoaren aurrean?» (2. atala). Gure gogoeta ez da hor gelditzen. Askorentzat fedea arazo handiak dituen esperientzia da. Baina, nola erantzun erlijio-krisi honi? Nola jokatu erantzukizunez eta zintzo? (3. atala). Beste ezer baino lehen, beharrezkoa da, dudarik gabe, fedearen alderdi oinarrizko batzuk gogora ekartzea, gaur egun ere ezin baititzakegu ahaztu: «Zer da Jainkoarengan sinestea?» (4. atala). Hori aztertuta gero, orduan bai, argibide batzuk eskain ditzakegu, gure kristau-esperientzia berregiten laguntzeko: «Nola berpiztu Jainkoarengan dugun sinesmena?» (5. atala). Eta azkenik galdetuko dugu, zer egin dezakegun gure Elizbarrutietako Elizetan eta gure kristau-elkarteetan, hainbestetan hain ahuldua eta moteldua dagoen fede hori sendotzeko (6. atala).

¹ *Fededun izan federik ezak jotako egunotan* (1988, Garizuma-Pazkoa); *Salbamena eta kristau-bizitza. Poza eta itxaropena* (1990, Garizuma-Pazkoa); *Bihotz-berri zaitezte eta sinetsi Berri Ona* (1991, Garizuma-Pazkoa).

² *Jesukristoren Jainkoagan sinestea gaur egun* (1986, Garizuma-Pazkoa).

³ *Gizonaren egiazko aurpegi bila* (1987, Garizuma-Pazkoa); *Gizalegezko bizitzaren zerbitzura* (1992, Garizuma-Pazkoa).

4. Era honetan, Joan Paulo II.ak 2000. urteko Jubileoa prestatzeko idatzi duen Gutun Apostolikoan aipatu duen helburu nagusiaren harian sartzen da gure Pastoral Idazki hau: *Fedea eta kristauen testigantza sendotzea* hartzen du, izan ere, helburu⁴. Hark bezala, guk ere gogoeta hau «gizon-emakume asko gaur egun Jainkorik ez balitz bezala bizitzera eramaten dituen erlijio-axolarik ezaren» bizigiroan eskaini nahi dugu, «edota egiaren arazoari eta koherentziaren betebeharrari aurre egin ezinik, erlijio motelarekin konformatzera eramaten dituen» bizigiroan⁵.

⁴ Joan Paulo II.a, *Tertio millennio adveniente* Gutun Apostolikoa, 42. zenb.

⁵ *Ibid.*, 36. zenb.

I.- KRISIAREN BARNEAN

5. Erlijio-krisia ez da ziurtasun-falta eta zalantza bakarrik. Ez dauka sinesmena zertan ahuldurik. Sinesmena hazteko eta bikaintzeko aukera ere izan daiteke. Gaur ere Jainkoak ez du alde egin, Harengandik ihes egin dutela ematen dutenengandik. Haren Espiritua gure garaiotako gizon-emakumeen bihotzak lantzen ari da. Ez ote zaigu bihotz-berritze sakonera dei egiten ari? Krisi hau ez ote da Jesukristoren Jainko biziarengan dugun fedea garbitu eta indartzeko deia? Horregatik, ona da argi eta garbi ezagutzea zein den gure jarrera eta leku pertsonala. Horrela, erantzukizun handiagoz entzun ahal izango dugu dei hori.

Egoera korapilatsua

Ez da erraza zehazten, zerk eramaten dituen pertsona batzuk Jainkoarengan konfiantzaz sinestera, beste batzuk mundu honetan Jainkoa alde batera zokoraturik bizi diren bitartean. Zalantzarik gabe, gauza askok eragiten die gure bizitza gidatzen duten sineste sakonei: bakoitzaren sentiberatasunak, bizitzan zehar jarraituriko moldeak, eguna joan eguna etorri hartzen diren erabakiek, bizi garen ingurugiroak eta beste arrazoï askok. Gaur ere guztiek ez dute berdin erantzuten erlijio-krisiaren aurrean.

- ***Krisi barnean fede bizia***

6. Krisiak nolabait denoi erasaten badigu ere, horrek ez du esan nahi beraren ondorioak kaltegarriak direnik pertsonen fedearentzat edo erlijio-esperientziarentzat. Begiratu besterik ez dago: hainbat jendek, urteotan, Jainkoarekiko bere atxikimendua garbitu eta sendotu egin du, kristau-sinesmenaren eskakizunak eta agintzariak argi eta erantzukizun gehiagoz aurkituz.

Gure artean badira fededunak, eta ez gutxi, beren fedea pozik bizi dutenak, beren bizitzan presente dagoen Jainko biziaren esperientzia bezala. Harengana jotzen dute uste onez. Haren indarrak eusten die, zailtasunean daudenean. Beste beharretan Haren deia entzuten dute. Gizartean sumatzen den erlijio-krisia fedean haztera eragin dien eztena izan da hauentzat.

Baina fededun hauek ere ez daude, besteengan ikusten dutenarekiko urruti edo sentikaitz. Sarritan, ez dakite nola jokatu fede-krisiak pertsonalki astindurik ikusten dituztenekin. Batzuetan, beren bizitzan hain oinarritzko eta baliozkoa den fede hori maite dituzten pertsonekin batera bizi ezinaren mina sentitzen dute.

Jainkoarekiko atxikimenduan pozik erroturik bizi direnek, ez dute beren barrura bildurik bizitzeko tentazioan erori behar. Aitzitik, beren «itxaropenaren arazoibidea emateko» deia sumatu behar dute (1 Pe 3,15). Idazki honek horientzako laguntza izan nahi du, fedearen aitorpenera eta kristau-bizitzaren testigantzara eragin diezaien.

- **Krisiaren ezaugarriak**

7. Gure asmoa ez da krisiaren azterketa osoa orain egitea. Gure artean dau-den jarreraren aniztasuna erakusten duten espresiomolde batzuk jaso nahi ditugu.

«Ez dakit sinesten dudan ala ez. Haurtzaro erlijiosoa izan nuen. Mezatarajoaten nintzen, aitortza egiten nuen, Jainkoari otoitz egiten nion..., baina gaur egun hori guztia urruti gelditu zait, barrutik asko aldatu naiz. Sinesten ezin dut asmatu». Sentipen hau nahiko arrunta da gaur egun. Baina, ez ote dago argi gehixeago pizteko bideren bat?, ez ote da inportantea norberak zertan sinesten duen jakitea, pertsona heldua egin denean?

«Sinesten dudala uste dut, baina aspalditik horrek ez nau batere kezkatzen. Gainera, erlijio-gauzetan pentsatzen jartzen naizen bakoitzean, zalantza gehiago sortzen zait.» Ez dira gutxi hori sentitzen dutenak. Baina, kontua zer da, «erlijio-gauzetan pentsatzea» ala Jainkoa bizitzaren itxaropen bete bezala bilatzea? Ezin ote daiteke Jainkoarengan uste on izan, nahiz eta erlijio-doktrinaren alderdi batzuk beren lekuan jartzen ez asmatu?

«Erlijio-kutsua duen guztiek haserretu egiten nau. Gezurra eta itxura hutsa iruditzen zait. Ezin dut onartu jerarkiak gauzen moral ikuspegia ezarri nahi izatea. Ez dut uste mezatarajoan behar denik jatorrago bizitzeko». Jakina, lehengo gauza egiaz bizitzea da eta bere buruarekin egiazale izatea. Baina, horrexegatik hain justu, ez ote da sinpleegia fedearen arazoa praktika itxurazale batera edo jerarkia katolikoaren esanekiko menpetasun xalo batera murriztea?

«Ni fededuna naiz. Hori esaten dut behinik behin. Erlijioari ondo irizten diot. Baina zalantzaz josia nago. Ez dut otoitz egiten asmatzen. Ez dut ulertzen nola sentitzen diren batzuk hain seguru, sinesten dutela esateko. Zer egin behar da sinesteko?». Bada nahiko jende horrela sentitzen duena. Alde batetik, beren buruari galdetzen diote, haurtzarotik sinetsi duten guztia ez ote den engainu ikusgarria izango. Beste aldetik, beren bizitzari sentidua eta itxaropen berria emango dion zerbaitetan edo norbaitengan sinetsi beharra sentitzen dote. Ez ote da, Jainkoarenganako bide berriak bilatzeko garaia?

«Ni ia igandero joaten naiz mezatarajo. Horrela ikasi nuen haurtzarotik. Ez nuke esango zergatik joaten naizen. Uste dut zerbaitetarako balioko didala. Batzuetan pentsatu ohi dut, Jainkoaren gauza hauek serioago hartu beharko nituzkeela. Baina, nondik hasi?». Beren fedea halabeharrez edo utzikieriaz bizi duten praktikatzaile askotxoren jarrera da hau ere. Egoera horretan jarrai daiteke urte askotan. Baina, ez ote da erantzukizun gehiagokoa arazoari aurre egitea?, ez ote da sanoagoa nork bere jarrera argitzea eta bere bizitza nola bideratu nahi duen erabakitzea?

Ez da batere erraza, aipatu ditugun espresiomolde hauetan azaltzen den pertsonen erlijio-jarrera zehaztea. Ez du ematen Jainkoa erabat ukatzen dutenik. Ez da ikusten Harekiko interes sutsurik ere. Jainkoa beste interes batzuen atzean estalirik geratzen ari zaie. Jainkoa zapuztea baino gehiago, erlijio-kontuarekiko interesik eza eta gogorik eza da ikusten dena. Pertsona horiengan,

amildegi sakona dago fedearen eta eguneroko bizitzaren tartean. Ingurugiroaren eragina nabari dute gehienbat; ez dira erabaki bat hartu duten pertsonak. Orain urte batzuk, giroak erlijioaren aldera eragiten zien; gaur kontrako bidera eragiten die.

- ***Ibilbide nahiko arrunta***

8. Erlijio-esperientziatik aldentzen diren pertsonak jarraitzen dituzten bideak ezberdinak izan daitezke. Batzuk erlijio-hoztasunaren giroak kutsatu ditu, ez kutsatzeko ezer egin gabe. Askotxok beren fedea indartuko zien otoitza eta erlijio-praktika utzi egin dituzte. Beste batzuk kristau-bizitzaren eskakizunekin kontraesanean dagoen portaerak baldintzatu ditu. Eta beste batzuek fedearen kontrako ideologiak onartu dituzten⁶. Norbanako bakoitzaren ibilbidea, noski, pertsonala eta bakoitzarena da. Baina askotxok eman dituzten pauso batzuk aipa daitezke.

Askotan, igandeko mezatara joateari utzi eta horretatik hasten da dena. Horretarako ematen diren arrazoiak era askotakoak dira. Kontua da, erlijio-praktika baztertu egiten dela. Pertsonak orduan beste era batera bizi du bere fedea: «Fededuna naiz, baina ez praktikatzailea».

Egoera horrek Elizatik gero eta gehiago urrutiratze aldera egiten du sarri. Praktikatzan ez duenak, gero eta batasun gutxiago sentitzen du kristau-elkartearekin. Beste fededunekin zeukan harremana galdu egiten du. Elizari kanpotik begiratzen dio. Gero eta gutxiago ulertzen du Eliza. Orduan oso erraza da honako jarrera honetara iristea: «Jainkoarengan sinesten dut, baina Elizarengan ez».

Hala ere, pixkanaka, pertsona bizitzaren «erlijio-zentzua» galtzen joan daiteke. Gaizki zaindua eta gutxi janaritua dagoenez, sinesmenak bizitza eratzeko indarra galtzen du. Pertsona bere dukeren argitan antolatzen da erabat: «Nik ez diot inori kalterik egiten. Zertarako behar dut gehiago?».

Une honetan fedea galtzera ere irits daiteke, zehatz hitz eginda. Pertsonak ahaztu egiten du Jesukristo. Ez dauka Jainkoarekin inolako harremanik. Galdeetzen zaionean, zalantzaz erantzungo dizu: «Ez dakit sinesten dudana ala ez. Beharbada, zerbait egongo da».

Batzuengan hazten joan daitezke erlijioarekiko axolarik eta gogorik eza. Ez dago Jainkoaren interesik, ezta galdera bezala ere. Jainkorik gabe bizitzen ohi-tzen da pertsona.

Gizon eta emakume askotxo ibilbide honen uneren batean aurkitzen da. Hori horrela izatea esplikatzen erraza da, bizi dugun erlijio-krisiaren giroan. Baina fedea era honetan baztertzeak, egia gehiago, erantzukizun eta itzaropen gehiago sartzan al du pertsonaren bizitzan? Bizitzaren misterioaren aurrean hori al da jokaerarik gizatiarrena?

⁶ *Fededun izan federik ezak jotako egunotan* izeneko gure Pastoral Idazkian (1988, Gari-zuma-Pazkoa), «Sinesgabeziarako bideak» aipatzen genituen, 29-35. zenb.

- ***Guztiei erasaten dien krisia***

9. Orain arte esan dugun honek, norbait eraman dezake federik eza erlijio-praktika baztertzearekin parekatzera, erlijio-krisiak Elizatik urrutiratzen direnei bakarrik erasaten diela pentsatuz. Ez da horrela. Elizaren kide izateak, beronen doktrina aitortzeak eta erlijioa praktikatzeak ez du besterik gabe, mekanikoki, fedegabeziatik babesten. Ezta apaiz edo gotzain izateak berak ere.

Fedea eta federik eza elkarrekin lotuak daude gutako askorengan. Egia da, fededun eta fedegabeez hitz egin dezakegu, baina sailkapen hori, sarritan, ero-soegia da. Sinesmenaren eta sinesmenik ezaren arteko muga pertsona bakoitzaren barnetik pasatzen da. Eta jatorrena izango litzateke, urrutiratu askotxoren barnean dagoen «fededuna» aitortzea; eta, era berean, fedea daukagula esaten dugunon barnean bizi den «fedegabea» aurkitzea.

Izan ere, ez dira gutxi kristautasun tradizionalaren eta deskristautzearen tarteko egoeran bizi direnak. Praktikatzailleak direla esaten dute, baina eguneroko beren bizitza kristau-espiritutik oso urruti dauden iturri, sinesmen eta irizpideetatik janaritzen da. Haien fedea oso motela da, haien itxaropena oso itzalia, haien bizitza erabat paganoa; horregatik, ez dago alde handirik hauen eta erlijio-praktika zokoratu duten gaur egungo askoren artean. Beren bizitzako alor erabakigarrietan ez da Jainkoa ageri. Fedegabezia bizi dira, argi eta garbi esaten ez badute eta kristau-fedeari kontra egiten ez badiote ere.

Sinesmenaren ahultzea

Ez da, beraz, oso zaila askotxorengan fedea itzaltzen ikustea. Jainkoarekiko atxikimendua gero eta indar eta konfiantza gutxiagokoa da. Beren buruari fededun deitzen diote, baina hauen sinesmena axolarik ezaz ahuldua gelditzen ari da, eta duda-mudaz ilundua. Nola gertatzen da fedearen hustutzea?

- ***Jainkoarentzat tokirik ez***

10. Inoiz, pertsonak hartu duten bizimoldeak, berez, ito egiten du giza bihotzetik sortzen den erlijio-kezka. Beren bizi-abiada aztoratuak, beren kezka eta interesen munduak, berehalako gozamenaren grinak, berriak eta telebista irenseteko erak, apenas fedea hazteko zirrikiturik uzten duten. Biziera pragmatiko eta azaleko horrek ez dio pertsonari uzten bere izatearen hondora sakontasun pixka batekin sartzen. Berehala asetzen duena bakarrik bilatzen da. Ahal den ongien bizitzea.

Poliki-poliki, pertsona horren fedea urtu egiten da. Bere interesen mundutik datorción abarrotsa besterik entzuteko entzumenik gabe gelditzen da. Bere bizitzan ez dauka dagoeneko Jainkoarentzako lekurik. Edo, beharbada, askoz hobe ez den beste zera: erabilgarritasunera eta pragmatikora tolestutzen den erlijio moteldu batentzat bakarrik dauka lekua; eta hor, erlijioa bere ongizatearen zerbitzura dagoen «kontsumogai» bihurtzen da, baina ez dago Jainkoarekiko atxikimendu alairik eta Jesukristoren jarraipen zintzorik.

- ***Sinesmenarekiko axolagabekeria***

11. Sarritan fedea indartu eta bizitu dezakeen janaria ematen ez zaiolako itzaltzen da, besterik gabe. Ia-ia beste guztiaz arduratzen gara, «garrantzizkoa» zaintzeaz izan ezik, hala nola: Jainkoarekiko harremana, Haren barkazioa hartzea, kontzientziaren bakea, itxaropena. Horretarako arrazoiak ematen dira: «Gauza horietarako ez daukat betarik», «erlijioak ez dit ezertxo ere esaten», «nik neure sinesmena daukat». Horietako askok fededun deitzen diote beren buruari eta, zalantzarik gabe, Jainkoak han jarraitzen du, haien kontzientzien barruan. Baina haien kristau-fedea hiltzorian dago.

Izan ere, umetan bizi izan zuten erlijio hura oso motz eta txiki geratzen zaie. Ez zaie hazi, pertsona hazi ahala. Bidezkoa da, beraz, oraindik beren oroi-penean gordetzen duten erlijioaren haurtzaroko bizikizunak indarririk ez edukitzea, gaur egun beren bizitza helduei sentidua eta norabidea emateko. Jende askotxo ez ote da ari gaur egun fedea baztertzen, helduari dagokion neurrian ezagutu eta bizi gabe?

- ***Barnetasunik eza***

12. Beste batzuetan, fedea barnetasun-faltaz ahultzen da. Eguneroko gure bizitzan gero eta tarte gutxiago dago espirituarentzat. Zenbaitentzat «barre-bizitza» erabat alferrikakoa eta funtsik gabea da. Kanpokotik soilik antolatzen dute beren bizitza. Egiten duten ia guztiaren helburua kanpoko eta azaleko beren nortasuna indartzea da. Beste aldetik, espiritu-bizitza erabat ospegaldia azaltzen da batzuetan; eta, beraz, barne-bizitza aintzakotzat hartzeko egiten den ahaleginari iheskeria esaten zaio.

Baina, barnetasunaz erantzirik, fedea hil egiten da. Proiektu, zeregin eta ametsak bata bestearen gainean janzten ditugu, baina «barre-gizakia» ahuldu egiten da. Sinesmena argi- eta bizi-iturri izan dadin, gizakiak bere misterioan sartu beharra dauka eta bizitzaren bihotzera iritsi beharra: bera Jainkoaren aurrean erabat berbera eta bera bakarrik den sakon hartara. Pertsonak bere izatearen «goi-mailarekiko» harremana galtzen duenean, erlijio-esperientzia itzali egiten da, nahiz eta «azaleko erlijioa» praktikatzen jarraitu. Izan ere, ez dira gutxi Absolutuaren desioa eta Harekin harreman pertsonala izatearen esperientzia ezagutzen ez duten kristauak. Beren eskura dauzkaten sineste eta praktiketan erlijio-segurantzaren bila dabilta, baina sekula Jainkoaren misterioarekin harremanetan sartu gabe.

- ***Eskakizunari beldurra***

13. Ia beti nahiago dugu erraza dena. Beldurra ematen digu geure bizitza benetan hartu eta erantzukizun betez onartzeak. Erosoagoa da «nolabait aurrera egitea», gure bizitzaren azken sentiduari aurre egin gabe. «Erljio» hitza aipatze hutsak, batzuk erne jartzen ditu. Erljioarekiko beldur hori arrazoi soziokultural ezberdinek eragin dezakete; baina, hala ere, galdera egin behar diegu jatortasunez geure buruei, sentitzen duguna ez ote den, erlijioak gogorarazten digun eskakizun «erabatekoarekiko» beldurra.

Erljioari beldurra diogu, bizitza bere sakontasun osoan planteatzeari beldur diogulako. Gure ongizatea arriskuan jar dezakeen, gure bizitzaren barruko hutsa ager diezagukeen eta bihotz-berritze pertsonalera eragingo liguketen eskakizun moralak planteatzen diezazkigukeen esperientzia orok ematen digu beldur. Izan ere, nondik datorren eta nora doan, nor den eta bizitzan zer egin duen galdetzeko ausardiarik ez daukan pertsona, Jainkoarengandik urrutiratu egiten da azkenean. Orduan bi bide har daitezke: erlijioa baztertu eta mundu hori dena ahaztu, edota «erlijio lasaigarri» berezia antolatu, praktika batzuk betez baina Jesukristoren Jainkoaren eskakizun oinarritzakoak alde batera utziz.

• *Errudun izateari uko*

14. Inork ez du bere bekatuen konturik entzun nahi. Askori duintasun gabea iruditzen zaio, bere erruaz Jainkoaren aurrean erantzutea. «Bekatuaren pisua» hain astun sentitzen zeneko garaiak gaizto egin behar dira, eta gure kontzientzia aztoratu dezakeen errudun-sentipen oro gure bizitzatik ezabatu egin behar da.

Seguru asko ez dabilta oso oker, gaur egungo ateismoaren barnean, errudun sentitzearen ukapena osagai inportantea dela uste dutenak. Izan ere, askotxoren erlijio-urriturak bere bizkarretik bekatuaren oroipena astindu nahia estaltzen du eta beren kontzientziatik Jainkoa ezabatu nahia. Askotan Jainkoaren barkazioa bilatzen ez badugu, gure bekatua apaltasunez aitortzen ez dakigulako da.

• *Zalantzaren ihuntasuna*

15. Kristau askori era guztietako zalantzak sortzen zaizkio barnean. Gaur egun sentiberatasun bereziz sumatzen baditugu ere, zalantza asko betikoak dira, garai guztietako fededun guztiek sentitu dituztenak. Inor ez dago libre «erlijiozko zalantzatik». Sinesmena ez da, nahi dugunean segurantzaren tinkoz erabil dezakegun ondasuna, zintzotasunez zaindu beharreko atxikimendua baizik.

Pertsona batzuek beren «sinesmen-zalantzez» hitz egiten dutenean, kristau-dogmaren alderdiren batzuk egoki eta arrazoi argiz ulertzeko zailtasuna esan nahi izaten dute: «Nola berpiztu da Jesus?, ba al da beti-betirako infernurik?, nola egon daiteke Kristo presente Eukaristian?». Argitasun gehiago eskatzen duten galderak dira.

Baina, beste batzuetan, kezka sortzen duena ez da izaten dogmaren bat, zerbait oinarritzako eta aurreragokoa baino: «Hau guztia ez ote da engainu ikusgarri bat?, inork ba al daki ezer seguru-seguru?, zergatik ez da Jainkoa argiago agertzen?, zergatik menpetu behar diot nik neure bizitza egiaztatu ezin daitekeen zerbaiti?» Oso zehatz esaten ez badakite ere, badira beren barruan zatiketa sakona sentitzen duten pertsonak: «Sinetsi nahi nuke, baina ez naiz gauza kristautasunari erabat atxikitzen.» «Sentitzen dut ezin dudala nire kristau-erlijioa baztertu, eta ez dudala baztertu behar; baina, une berean, gero eta arrotzago sentitzen naiz gauza horietan.»

Hau horrela izanik, ez da batere zaila zerbaiten errudun sentitzea, zehazki zeren errudun den ez jakin arren: «Zer gertatu zait?, zer egin dut nik urte haue-tan, egoera honetara etortzeko?, zergatik ez dut sinesten garai bateko seguran-

tza harekin?, hainbeste zalantza barrean edukita, oraindik ere fededuna ote naiz?».

Axolagabekeria indartzen

Fedea ahultzera daraman prozesu horren ondoan, erraza da, gure artean nahiko zabalduak dauden beste jarrera batzuk ikustea, axolagabekeria areagotzera daramaten jarrerak.

• ***Ala-moduzko agnostizismoa***

16. «Ni agnostikoa naiz». Sarri entzuten da gure artean honelako esaldia. Hala ere, hori esaten duena askotan egiazko agnostizismotik urruti dago. Agnostikoa, Jainkoaren arazoa jator planteatzen duen pertsona da eta, sinesteko edota ez sinesteko arrazoirik aurkitzen ez duenez, ez du epairik ematen. Agnostizismoa, beraz, bere emaitza lortzera iristen ez den bilaketa da.

Gaur egun bere burua agnostiko aitortzen duen askotxok, ordea, ez du inolako ahaleginik egin Jainkoa bilatzen. Arazoari ezikusia egiten dio, besterik gabe. Jainkoak erabat axolagabe uzten du. «Jarrera neutral» batean gelditzea da arazo guztia, fedearen ez alde eta ez kontra erabakirik hartu gabe. Baina, horrela jokatzean, erabaki bat hartzen du, har dezakeen erabakirik okerrera: bizitzaren sakoneko misterioan ez murgiltzekoa. Hori al da jarrerarik gizatiarrena errealitatearen aurrean?, esan al daiteke pertsona erantzule eta heldua dela, gauza guztien sakoneko egia bilatzeko borondaterik ez badauka?

• ***Aurrerakoi izatearen ideia***

17. «Erljioa zaharkitua gelditu da. Gure garaien mailan bizi behar dugu.» Horrela mintzatzen da jende asko. Kultura modernoaren dogma oinarritzkoenetakoa arazoimenaren ahalmen osoan sinestea da. Uste dute, arazoimenaren indarrez, gizakiak konpondu ahal izango dituela bizitzaren arazoak. Une berean, uste sendo bat zabaldu da: izan, gizakiak zientziaz baieztatu dezakeena bakarrik dela, ez besterik. Horrez kanpo, ez dagoela ezer.

Hori horrela balitz, ez litzateke erlijio-esperientziarentzako lekurik izango, jakina! Jainkoarengan dugun sinesmena sustraitik baliogabetua geldituko litzateke, jarrera inozo eta antigoalekotzat. Jainkoarekiko harremanik gabe eta goihelburuaz erantzirik, bizitza ongizatez eta esperientzia atseginez bete behar den pasadizo labur bihurtuko litzateke azkar asko.

Erljioaren kontrako etsaigiro honek inguratzen dituelarik, ez dira gutxi beren fedea «lotsa-komplexuz» edo bizi duten kristauak. Batzuek, gainera, erlijioarekiko konfiantza gero eta txikiagoa dute, giroak eta komunikabideek ia beti kontrakotzat eta baliogabekotzat aurkezten baitute erlijioa. Hala eta guztiz ere, galdera larriak sortzen zaizkio kontzientzia modernoari: «Arazoimenak erantzun ote diezaieke gizakiaren galdera eta nahi guztiei?, gizakiak eman al diezaioke bere buruari bilatzen duena? Ezaguera-iturritzat zientzia bakarrik hartzea, egiazko aurrerabidea ote da, ala giza bizitzek planteatzen dituen oinarritzko arazoetatik gizadia urrutiratzen duen hankasartze ikusgarria?».

- ***Erljio-praktikarik gabeko sinesmena***

18. «Fededuna naiz, baina praktikatzailea ez.» Zenbaitek horrela azaltzen du bere burua, hitz horiekin gure garaiotan fedea bizitzeko erarik jatorrena aurkitu dutela azaldu nahi balute bezala. Baina, zer esan nahi du egiaz, sinestedun eta ezpraktikatzaile izateak?, pertsona inkoherentea dela?, «garrantzirik ez duten gauzen lekuan» utzia duela fedea?, fedearen eskakizunak praktikan jartzeko gaitasunik ez daukala?

Sinesmena erlijio-praktikan bizi eta azaltzen ez bada, fede horri eusten dion esperientzia pertsonala eta elkartekoa kentzen zaio. Eta ezpraktikatzaileak, era horretan, Jainkoa ahazteko arriskua dauka. Eguneroko bizitza eratzeko indarra erraz asko gal dezake fede horrek.

Jarrera hori bera egon daiteke «bere betebeharrak erlijiosoak» betetzen dituen kristau praktikatzailearengan: ez baititu «praktikan jartzen» Jainko Aitarekiko menpetasunetik sortzen diren justizi, senidetasun- eta solidaritate-eskakizunak.

Joera berria

19. Hedatua dagoen giro honen barrean, oraindik eskasa baina adierazgarria den joera berri bat sumatzen hasi gara gure artean. Erljiotik urrutiratu ziren pertsonak bilaketa-bidean abiatu dira gaur.

Zer bilatzen duten zehaztea ez da erraza. Beren fedea oinarritzeko zorua bilatu nahi dute berriro; beren bizitzen zerbait ezberdina behar dutela sentitzen dute; beste era batera bizi nahi dute. Beste aldetik, berriz, ez dute gehiegi lotu nahi inolako Elizarekin; beren askatasuna galtzeko beldurra daukate. Jainkoaz, Jesukristoz eta Beronen Ebanjelioaz interesatzen dira batik bat.

Pertsona hauek, beste ezer baino lehen, beren jarrera erlijiosoa argitu beharra sentitzen dute: uste okerrak erantzi, erlijioaren kontrako aurre-iritziak desegin, fedearerikiko uste nahastuak argitu, nahasia eta gehiegiz astunatzuten duten kristautasunaren barrean zer den behar-beharrezkoa jakin. Batzuek, gainera, iraganeko zauri eta etsipenak sendatu beharko dituzte, erlijioa baretasunez bizitzea eragozten dien sumina gainditzeko.

«Berrirori sinesten hasteak» ez du esan nahi iraganeko sinesmenera itzultzea. Pertsona horrek ez dute bilatzen garai bateko erlijio-ohitura ahaztuak berreskuratzea, ezta garai bateko esperientzia ez oso atseginak berriz bizitzea ere. Fedea berraurkitu nahi dute era berrian, era sinesgarriago eta baikorragoan. Gauzak hobeto ulertu nahi dituzte eta era jatorrago eta pertsonalagoan sinesten ikasi nahi dute. Seguru asko, horrelako gizon-emakumeek ulertuko dute ongien Pastoral Idazki hau.

Badakigu sinesmen jatorrerako ibilbide hori ez dela erraza, bizitza eta beraren sentidu sakonena berregitea baita. Baina egin daiteke; Jainkoa hor ari da, izan ere, hasieratik, bihotz onez Beraren aurpegia bilatzen duenaren pausoak zuzentzen.

II.- ZENBAIT JARRERA JAINKOAREN AURREAN

20. Sinesmen-krisiak era askotara erasaten dio fededunaren bizitzari: Elizatik urrunduz, erlijio-praktika utzaraziz, kristau-doktrinaren edukiekiko erreparuak sortuz⁷. Hala eta guztiz ere, guztiaren hondoan, gertaera eragile eta erabakitzaile gisa, Jainkoarengandik gero eta gehiago urrutiratzea dago; Jainkoarekiko atxikimendu pertsonala moteltzea, Harengan sinesteko zailtasuna. Jainkoa alde guztietan sumatzen zuen sinesmen hartatik, beste egoera batera pasa gara, honako galdera hau egitera garamatzen egoerara: «Non dago Jainkoa?, non egin dezakegu Berarekin topo?».

Mende honen hondarrean ere, dudarik gabe, Jainkoak hortxe jarraitzen du, gizon-emakumeen bizitzan. Gauza asko, da Hura estali nahi duena, baina gure itsukeria da gehien estaltzen duena. Hots asko ari da Haren ahotsa isiltzen, baina gehien isiltzen duena gure gorreria da. Hori dela eta, Harekin topo egiteko ez da aski «Jainkoa non dagoen» galdetzea. «Gu non gauden» ere galdetu behar genuke.

Ez da erraza, norbanakoen barnean zer gertatzen den eta bakoitzak Jainkoarekin nola jokatzeko duen jakitea. Kultura modernoak sakon-sakonetik aldatu du pertsonaren barne-egitura. Askok aldatu gara barrutik. Askok kritikoagoak egin gara eta tinkotasun gutxiagoak, eszeptikoagoak eta konfiantza gutxiagoak. Nola bizi gara Jainkoaren aurrean?

Gure artean sumatu uste ditugun jarrera batzuk marrazten saiatu behar dugu. Batzuetan ez da erraza haien arteko mugak ezartzea. Sarritan pertsona berarengan zenbait jarrera nahasturik azaltzen da. Une honetan ez gara ari, bere muga eta bekatuen artean Jainkoari leialki erantzuten saiatu eta bere fedea pozik eta bakez bizi duen fededunaren jarreraz. Askok ezagutzen ditugu fede hori bizi dutenak; Jainkoaren maitasuna, konfiantza sendoa, atxikimendu zintzoa, menpetasuna, barkazioaren harrera eta esker ona adierazten dituen fedea bizi dutenak. Izen handi batzuen azpian estaltzen den zenbait jarreratan gelditu nahi dugu: «sinesterik eza», «sekularizazioa», «erlijioa baztertzea». Jainkoaren aurrean daukagun jarrera pertsonala hobeto ezagutuz bakarrik aurkitu ahal izango dugu Harenganako bidea.

Axolarik eza

21. Jende askok Jainkoaren aurrean daukan jarrerak, axolarik eza erakusten du. Jainkoak ez die ezertxo ere esaten. Haren izena entzutean, honela jaulkitzen dizute: «Jainkoa? Ez zait interesatzen. Bestela ere badaukat nahikoa nire arazoekin». «Beharbada inportantea izango da, baina ez daukat gauza horietaz kezkatzeko astirik. Ez dakit Jainkoak zertarako balio dezakeen». Hori sortzen zaio bere barnetik: «Zertarako sinetsi?, ezertan aldatzen al du bizitza?, fedeak zer edo zertarako balio al du egiaz?».

⁷ Ikus *Fededun izan federik ezak jotako egunotan* Pastoral Idazkia (1988, Garizuma-Pazkoa), 7-11. zenb.

Pertsona horiek, oro har, pixkanaka-pixkanaka, Jainkoa beren bizitzatik baztertzen joan dira. Gaur Jainkoak ez du zer esanik horientzat eguneroko bizitzari norabidea edo sentidua emateko unean. «Ateismo praktikoa» bizi dute. Jainkoa baden ala ez den, horrek ez ditu batere kezkatzen. Jainkoa gabe bizitzen ohitu dira, eta ez dute Haren minik edo hutsunerik sentitzen. Dena lehen bezalatsu dago beren bizitzan. Zertarako arduratu gauza horietaz?

Axolarik eza ez da, fedea baztertzearen prozesuak dakarren azken helmuga. Jainkoa garrantzi gabekotzat baztertu eta bizitza Hari bizkarra emanda antolatzen hasten garen une beretik basten da bere sustraiak botatzen. Horregatik, fededun sentitzen garenongan ere azal daiteke axolarik eza. Zenbaitetan, eta ez gutxitan gainera, gure bizitzaren arinkeriak, fedea ez zaintzeak eta sasi-jainko askori eskainitako gurtza isilak, axolagabekeriaren eta barneko gogorik ezaren krisi luzean sartzen gaituzte. Hortik atera al daiteke?, Jainkoaren esperientzia berria posible al da?, nondik hasi?

Jainkoaren esperientziarik gabe

22. Jainkoaren esperientzia pertsonal horixe da, hain justu, askori falta zai-ona. Jainkoa «izaki arrotza» gertatzen zaie. Elizaren batean sartzen direnean edota ospakizun erlijioso batera joaten direnean, dena gezurrezkoa eta hutsa iruditzen zaie. Entzuten dutena urrutikoa eta ulertezina da hauentzat. Jainkoarekin lotua dagoen guztia, umekeria eta heldutasun-falta dela iruditzen zaie, errealitatearen zentzurik ez duen mundu ameslaria. Gehienetan, urte askotan azal hutsezko erlijioa bizi izan duten pertsonak dira eta, orain bizi-ohiturak aldatzean, praktika utzi egiten dute eta, praktikarekin, esperientzia erlijioa ere erabat uzten dute. Era horretan, Jainkoa horien bizitzatik ezkututzen doa, inolako astarrenik utzi gabe.

Praktikatzailleen artean ere gerta daiteke Jainkoaren esperientzia pertsonalik ez izatea. Badira kristauak, elizkizunetara joan eta ohiko esaldiak esaten dituztenak, baina ez diote Jainkoari bihotzik zabaltzen. Ez dute Haren presentzia sekula entzuten, ez beren barrean eta ez beren bizitzan. Jainkoarengan sinetsi baino gehiago, Hari buruz hitz egiten dutenei sinesten diote. «Entzutez» ezagutzen dute Jainkoa, ez esperientzia pertsonala izan dutelako. Iruditzen zaie, doktrina bat onartu eta erlijio-praktika batzuk betetzeagatik, Jesukristorengan gizon egin den Jainkoarengan sinesten ari direla, lehenengo ikasleek sinetsi zuten bezala. Nola irten geldotasun hutsez bizi duten ohiturazko eta azaleko sinemen horretatik?, nola sumatu Jainkoaren presentzia beren bizitzan?, nola iritsi Joben esperientzia hartara: «Entzutez baizik ez zintudan ezagutzen; baina orain nire begiek ikusi zaituzte» (Job 42,5)?

Jainkoarengana joateko biderik gabe

23. Askotxok bizi duten erlijioarekiko axolagabekeriaren sakonean, Jainkoa Jainko bezala pentsatu eta sentitzeko zailtasuna ezkututzen da. Geure burua kristautzat daukagunok ere, askotan ez dugu asmatzen «Jainkoaren aurrean egoten». Zaila egiten zaigu geure buruarengan kreatura hauskor eta laguntza-beharrekoa ikustea, baina Jainkoak neurrigabe maite duena. Ez dakigu Haren

handitasun esan ezin halakoa miresten, ez dakigu Haren presentzia hurbileko eta maitatia gozatzen. Kosta egiten zaigu geure izatea Harengana makurtzea eta Haren izenari fedez eta seme-alaben konfiantzaz dei egitea.

Honek guztiak badauzka, noski, bere arrazoi eta sustrai sozio-kulturalak. Baina egia da denok ari gaitezkeela, une honetan, pertsonalki Jainkoarengana eramán gintzaketen bideak ixten. Sarri askotan, geure buruaren eta geure berehalako interesen inguruan jirabiraka bizi gara. Lan egin eta gozatzen dugu, maitatzen eta sufritzen dugu, bizi eta zahartzen gara, baina gure bizitza zenbait alditan azken norabiderik eta helmugarik gabe doa. Munduan batetik bestera gabil-tza, gauzak ukitzen ditugu, naturaz gozatzen dugu, baina ez dugu asmatzen, barrutik dena blai egiten duen Jainko horren presentziari antzematen.

Berarekin topo egin ezin honen atzean, ia beti zerbait aurreragokoa gorde-tzen da. Jainkoarengandik urrutiratzen ari baldin bagara, ez ote aurrez geure-gandik urrutiratu garelako, eta Jainkoari antzemateko aukerarik eskaintzen ez duen bizimolde batean sartua gaudelako? Arestian esaten genuen, pertsonak gauzez osaturiko ongizatearekin aski duenean eta bere bihotza kezka materialek harrapatzen diotenean, nola sor daiteke bizitza horretan Jainkoaren galdera? Norbanakoa kanpora itzulia bizi denean, gizarteak eskaintzen dituen hamaika ihes-moldetan galdea, dagoenean, nola sumatuko du bere bihotzean bera baino handiagoa den misterioa daramanik?

Beharbada, hauxe da gure lehenengo arazoa: nola urratu gure bizitzan Jainkoarenganako bideak? Nola jabetu, gizakiak beregan dauzkan zirrikitu horiek, egia, ora, ederra sumatzeko zirrikitu horiek, bere Jainkoarekin topo egitera eramán dezaketetik?

Komunikazio-zailtasuna

24. Ez da harritzekoa, gaur, besteen fedeari balio sakona aitortzen dioten per-tsonak aurkitzea, besteen fede hori amets hutsa ez dela benetan uste duten per-tsonak, alegia. Hala ere, horiek ez dira behar adina indartsu sentitzen fede horri berari. itsasteko. Jainkoarekiko beren harremana blokeatua bezala daukate. Ez dakite Harekiko harremana nola burutu. Ezinezkoa gertatzen zaie. Urte askotan erlijioa betebeharrak bezala bizi izan dute. Eta gaur ez dakite nola azaldu Jainkoaren aurrean. Benetan nahi lukete Harengan sinetsi, baina ez dakite nola. Hari otoitz egin nahi liokete, baina barrutik ez zaie ezertxo ere ateratzen.

Eta esperientzia hau ez da erlijio-mundutik urrutiratu direnena bakarrik. Fededun aitortzen garenok ere, zailtasun bera eduki dezakegu. Ekintza, harre-man, zeregin eta arazoaren sarean kateaturik, ez dugu asmatzen sinesten dugula esaten dugun Jainko horrekin bizi-mailan komunikatzen. Otoitz egin eta Jainkoari entzuteko denbora gutxitu egin dugu. Sukalde askotan dagoeneko ez da errezatzen. Alferrik da orduan fededun aitortzea. Jainkoarekiko komunikazio bero eta ustetsua ezagutzen ez dugunean, zerbait hiltzen ari da guregan.

Batzuk hasi dira esnatzen: «Nire errua ote da, otoitz egitea sortzen ez ba-zait? Seguru asko bai, baina non dago nire akatsa?, zer egin dezaket?». Benetan,

ezingo dugu gure erlijio-esperientzia berregin, Jainkoarekin komunikatzen asmatzen ez badugu.

Jainkoari beldurra

25. Baina askori Jainkoarengana uste onez hurbiltzea galarazten diena beldurra da. Hori aitortu beharra daukagu. Urte askotan, Jainkoarekiko kristau askoren harremana, neurri handi batean, beldurrak markatu du. Gutxi gorabehera, era honetan izan dira sarritan gauzak: Jainkoa arriskutsua da; erlijioak, batez ere, zertan beldurturik ez daukagula seguru edukitzeko balio du; Jainkoarekin harreman ona eduki behar da, Beraren legeak betez eta agindutako erritoak burutuz; horrela bakarrik babes zaitzake jainkozko zigorretik; zigor hori besteei emango zaie.

Urte gutxitan, gauzak aldatu egin dira. Askok erabat galdu du Jainkoaren beldurra eta, beren erlijio-esperientzia oinarritzen zuen beldur hori galdurik, dena utzi dute. Orain erlijiorik gabe bizi dira, beren abentura barrean itxirik, beren burua goikora sekula ireki gabe. Bihotza gero eta ateoagoa egiten ari zaie.

Beste batzuek beldurra galdu egin dute, baina, bada-ezpada ere, ez dute erlijioa erabat baztertu. «Praktikatzen» jarraitzen dute, ez baitago behin ere seguru jakiterik; ez da erraza Jainko arriskutsurik ez dela seguru egotea. Gainera, erlijioak badu bere baliogarritasuna, ezbeharra edo arriskua datorrenean. Beti ere hobe da Jainkoa geure alde edukitzea.

Kristau askotxoren erlijioa beldurrak nabarmentzen du. Jainkoarengan pentsatzen dutenean, nahi gabe ere izaki mehatxugilea eta zorrotza sentitzen dute, eta Haren aurrean dena zuzen eduki behar da. Jainkoarekiko beldur hau areagotu egiten da heriotzan pentsatuz gero. Bizi den bitartean, zertxobait «barestuagoa» senti daiteke Haren aurrean; baina heriotzaren gauzarik izugarriena zera da, Jainkoaren eskuetan erortzen zarela ihesbiderik gabe. Batzuek argi eta garbi esaten dute: «Bizitza ez al litzateke lasaiagoa izango, Jainkorik ez dela seguru jakingo bagenu edota, gutxienez, kondenaziorik ez dagoela jakingo bagenu?».

Bada, dudarik gabe, sana den Jainko-beldurra. Liburu Santuek «jakinduriaren hasiera» deitzen diote (Es Za 1,7). Geure bizitza hondatzeko beldurra da, geuregan itxi eta Jainkoaren deia entzuten ez badugu. Beldur horrek bihotz-berritzera eramaten du. Baina hemen esaten ari garen beldurra txarra da. Ez du Jainkoarengana eramaten. Harengandik gehiago urrutiratzen du. Jainkoaren egiazko izaera itxuragabetu eta gizakontrako bihurtzen duen beldurra da. Egiazko sinesmena itotzen duen beldurra. Nola etorri beldurretik seme-alaben uste onera?, maitasun hutsa den Jainkoarekin nola egin topo?

Iheskeria

26. Beste batzuek Jainkoaren aurrean sentitzen dutena ez da beldurra, ondoeza baizik. Ezin dute Harengan pentsatu, beren duintasunik eza eta bekatua narbaritu gabe. «Oroitzapen gaiztoak bakarrik esnatzen ditu niregan Jainkoak: be-

katua, gaizki eginaren harra, aitortza.» Jainkoaz oroitzeak norbera gaitzetsia sentiarazten du. Pertsona hauentzat, gure bizitza atergabe eta gogor saiatzen duen Izakia da Jainkoa. Gure txikikeriaren eta kaxkarkeriaren irudia erakusten digun Jainkoa da. Ezin daiteke Harengana hurbildu, lotsatua izan gabe.

Erraz eduki daiteke, beraz, Jainko honi ihes egiteko tentazioa. Sakonean, norbera esperientzia oso gogaikarri batetik babestea da. Inori ez zaio gustatzen beti salatua sentitzea. Horregatik ahaleginak egiten ditugu inork ez dezan eza-gutu zer garen eta zer egiten dugun. Geure arimako sakontasunak ezkutuan edukitzen saiatzen gara, baita geure begientzat ere. Ezin dugu sufritu, benetako Jainko den eta gure izakiaren txoko ilunenak aztertu ditzakeen Jainkoa. Hobe Jainko hori urruti eta ahaztua edukitzea.

Jarrera honetan denok eror gaitezke gutxi-asko, Jainkoa guregandik urrutiraten duen gauza bezala ikusten baitugu denok bekatua. Geu bezain kaskar ikusten dugu Jainkoa: maite dutenak maite dituenak, eta zintzo ez zaizkionak zapuzten dituenak. Ezin gara iritsi, Jainkoak doan maite gaituela sinestera: ez guk merezi dugulako, Aita delako baizik; ez onak garelako, Bera ona delako baizik. Nola ikasi Haren presentzia, naizen bezala maite nauen presentzia maitatu bezala sumatzen?, nola jakin gutxitan nagoela Jainkoarengandik hain gertu, neure burua bekatari aitortu eta Haren barkazioa esker onez onartzen dudanean baino?

Jainkoa kontzientziatik kanpora botatzea

27. Ez dira gutxi, Jainkoa indarzale eta ez oso gozo ikusten dutenak, Haren aurrean beren askatasuna babestu beharra sentituz. Pertsona urrutiratu eta kristau praktikatzaile batzuek badute oraindik ere susmoa, bizitza berez zaila baldin bada, zailagoa egiten saiatzen dela Jainkoa. Gizon eta emakumeak bilatzen dugun gauza bakarra zoriontsu izatea da, eta hor dabil Jainkoa guri bere aginduak ezartzen eta igaro behar ez diren mugak zehazten. «Bera gabe ez al litzateke bizitza askeagoa, berezkoagoa eta dohatsuagoa izango?».

Pentsatzen denean Jainkoak ez duela uzten ez libre izaten eta ez gozatzen, orduan pertsonak baztertu egiten du. Kristau-morala gogaikarritzat eta pisu astuntzat aurkezten da, bizitza gogorragoa eta negargarriagoa egiteko era aproposa bailitzan. Orduan erraza da Jainkoa kontzientziatik kanpora botatzea. Haren ahots adiskide baina zorrotza ahaztea. Hala ere, sinesmenetik sortzen diren eskakizun moralen arabera bizi ez denarentzat, gero eta zailago gertatzen dira Jainkoarekiko atxikimendua, oititza eta erlijio-praktika. Nola ikusi Jainkoa dela giza zorionaren adiskiderik onena?, nola sumatu Haren presentzia, egoki eta sano bizitzeko eraginik onena eta indarririk sendoena bezala?

Jainkoa erabiltzea

28. Bere etekinean eta erabilgarritasunean bakarrik pentsatzen duen begirada berekoiak ezin dezake sumatu maitasuna den Jainkoa. Jainkoak ez dauka tokirik, interesak, irabaziak edota atseginak bere menpe hartua daukan pertsonaren bizitzan. Guztientzako harrera ona eta kuttuntasuna den Jainkoa ezin dezakete

sumatu, beren ongizatea hazteko bestetarako bizi ez diren espiritu kalkulatzai-leek.

San Joanez esaten du «maite ez duenak, ez du ezagutzen Jainkoa, Jainkoa maitasuna baina» (1 Jn 4,8). Horrela da. Jende-molde batzuentzat zer oihartzun eduki dezake, dohanikako Maitasuna den Jainkoaz hitz egiteak? Maitasunean gutxi sinesten denean eta diru eta etekinean asko, Jainkoa errealitate gabeko eta abstraktu bihurtzen da. Orduan oso zaila da sinestea, maitasunezko sorburutik gatozela eta gure azken helmuga Jainkoarekin bat egitea dela.

Ez dago lekurik «kontsumogai» bihurtzen den erlijio moteldu batentzat besterik. Jainko erabilgarri batek bakarrik du interesa, etekinen bat atera daki-okeen Jainkoak. Norberaren interesen zerbitzuan dagoen Jainkoak. Nola eza-gutu Jainkoaren bestelako esperientziarik, Maitasun dohainikakoa, gurtza, go-respena eta esker ona pizteko gai den Jainkoaren bestelako esperientziarik?

Erljio-gaiaren itzulera susmagarria

29. Talde eta mugimendu askoren hazkunde eta hedapenaren testigu izaten ari gara gure egunotan: tradizio ezberdinak eta osagai gutxi-asko erlijiosoak nahasten dituzte. Askotxo dira, gainera, barneratze-teknikak ikasten hasi direnak edota meditazio-lekuetan dabiltzanak. Bestalde, ugaltzen ari da esoteriko eta parasikologikoak diren gaietarako interesa.

Honetan guztian askok gaurko gizakiaren aseegin erlijiosoa ikusi nahi du, gizakiak duen Jainko-gosea ezin baitezake bete aurrerapen zientifikoak, ezta garapen teknologikoak ere. Hala ere, ez da zaila gertaera honetan guztian nahasmen handia sumatzea. Sarritan, erlijioa superstizioarekin ordezkutzen da, Jainkoarengana itzultzea Absolutuan «murgiltzearekin», salbamenaren onarpena barneko bake eta armonia bilatzearekin⁸. Nola bilatu Jainkoarenganako egiazko bidea? Nola ireki geure barrua Haren salbaziora?

⁸ Ikus *La oración cristiana: encuentro entre dos libertades*, Fedearen Doktrinarako Kongregazioaren Gutuna kristau-meditazioaren alderdi batzuei buruz (1989ko urriaren 15a), 12. zenb.

III.- ERANTZUN BEHARRA

Arazo asko duen esperientzia bilakatu da; beraz, fedea. Askok ez du duela urte batzuk bezala sinetsiko. Nola jokatu, ordea, erantzukizunez eta konfiantzaz? Beste asko bere barne-mundua egiten ari da, baina zalantza eta galdera larriei ihes egin ezinik maiz. Bakarka eta isilik ari dira beren «ibilbide erlijioso» egiten, gidaririk eta erreferentzi punturik gabe. Ahal duen bezala dabil bakoitza arazo horietan, nahiz eta giza izatearen sakona ere ukitzen duten. Ezin ote diogu elkarri gehiago lagundu? Kezka honek eraginik egin dugu Idazki hau.

Erantzukizun handiagoz hartu beharreko erabakia

30. Krisialdiaren erdian, nork bere erabakia argi hartu gabe bizi gara maiz. Batzuek alde egin dute erlijiotik; beste batzuek ahalik eta gutxienera murriztu dute; beste batzuek, berriz, ohiko fede epela bizi dute. Hori guztia, gainera, pertsonak Jainkoaren aurrean nolako jarrera hartu nahi duten, eta jarrera hori zer-gatik hartzen duten pentsatu gabe ari da gertatzen. Eta ez al da beharrezko erantzukizun eta zintzotasun handiagoz hartzea erabaki hori?

Beste batzuek, aldiz, ez dute inolako arazorik ikusten. Fededun izaten jarraitzen dute, baina inertziaz bezala bizi dute beren fedea. Jainkoak ez ditu erakartzen, ezta kezkatzen ere. Ez die axola. Eta halako egoera urtetan luza dezakete. Ez al da, ordea, itxuragabekeria «erlijioarekin konplitu» bai, baina eguneroko bizitza Jainkorik gabe eramatea?

Beste batzuek, berriz, erabat utzi dituzte erlijio-ohiturak. Baina aski al da hori, bizitzearen azken misterioaren aurrean bakoitzak zein jarrera hartu erabakitzeko?

Bada Elizatik urrutiratu, baina Jainkoarengan sinesten duela dioenik. Eta halaxe da maiz. Zer da, ordea, la gogoratzen ez dugun Jainkoarengan sinestea? Zer da Jainkoarengan sinestea, Berarekin inoiz ere mintzatu gabe, Berari inoiz entzun gabe, Berarengandik ezer poztasunez itxaro gabe?

Jainkorik gabe bizitzen ikasteko garaia dela diote batzuek, bizitzari duintasun eta prestutasun handiagoz aurre egin ahal izateko. Hala ere, bizitza duinago eta arduratsuagora eraman al ditu Jainkoa baztertzeak?

Beste batzuek, berriz, beren erlijioa antolatu eta beren neurriko morala egin dute. Baina era gizatiarragoan bizitzeko izan al da hori, ala erosoago ibiltzeko, beren biziera zalantzan jar diezaiekeen guztiari begiak itxiz?

Horixe da, agian, geure buruari denok egin behar diogun galdera. Erraza da une hauetan dagoen girora makurtzea; horrek, ordea, ez du esan nahi adore handiagoa dugunik edota egiazaleago garenik. Ez gara, beharbada, argi aitortzera ausartzen, baina, azkenean, ez ote gara denok ari Jainkoa era batera nahiz bestera saihesten?

Bila ibili benetan

31. Ez da on, orain dugun krisi erlijiosoa erantzunik bilatu gabe bizitzea. Benetan, egiazaletasunez bila ibiltzea da zuzenena. Inolako deirik ez baztertzea. Inolako aterik ez ixtea. Jainkoaren bila ibiltzea, baita fede ahul, epel eta zalantza-tsua izanik ere.

Sinestedun garela diogunok ere beharrezkoa dugu bila ibiltze hori. Jainkoarengan sinesten dugula esaten ohitu gara, baina gure bizitzetan ez da ezer «erabakigarri» gertatzen. Ez dezagula uste izan «sinesmena izateak» Jainkoaren bila ibili beharra kentzen digunik. Jainkoa aipatu ohi dugu, baina noiz ibiltzen gara hitz horren ostean dagoenaren bila? Non eta noiz ikusten eta entzuten dugu gure artean dagoela? Non eta noiz jartzen gara Beraren aurrean?

Ez da erraza Jainkoaren egiaren bila ibiltzea. Gutxik nahi dute azkeneraino iraun egia horren bila. Aldaraziko gaituen beldur gara. Azkenean, erlijioari buruz axolagabe izatea edota ohiko fede epela izatea ez ote dator, batzuetan, argiaren bila ibiltzeari beldur izatetik? Hala ere, Jainkoa ez da gordetzen bila dabilkionarengandik. Oso bestela baizik, bila ibiltze horren erdian dago, giza bihotza lantzen. Nola utzi Beregana gaitzan?

Dei egiten ikasi

32. Ezin da, ordea, norbait Jainkoaren bila ibili, bihotz-barrendik, bakarrean, norbere kontzientziaren gunetik Berari dei egin gabe. Hor erabakitzen du bakoitzak Jainkoarengana uste onez ireki ala Jainkorik gabe bizi, ateo izanez. Baina nola egin gizakiak dei Jainkoari, la sinesten ez badu, ezertaz ziur ez badago?

Gaur egun askok ezin du edota ez du nahi errezatu. Halakoen ustetan Jainkoa «kontzeptua» baizik ez da. Ideia bat, gorena eta bikaina agian, baina bihotza ukitzen ez duen Ideia. Ez dute badenik ukatzen, baina ez dakite Berarekin harremanetan jartzen. Ideien mundu abstraktuan kokatzen dute Jainkoa, eta ez dute ikusten bizi den eta hurbil dugun norbait denik, pertsonaren bizitza oinarritzen eta adoretzen duen norbait denik. Mintza daitezke eta eztabaida dezakete Jainkoari buruz, baina ez zaizkio inoiz Berari mintzatzen.

Jainkoaren bila benetan hasi eta jarraitzeko, honako otoitz hau, argixeago edo ilunxeago, egin beharra dago: «Ene Jainko, baldin bazara eta maite banauzu, ikusarazi niri zeure aurpegia». Honelako otoitz apal baina zinezkoa egin beharra dago, ilunpe eta zalantza-erdien erdian egina izanik ere, Jainkoarekiko irrikak iraun dezan eta Beraren hila jarrai dezagun. Ez da inor Jainkoarengana itzultzen, bere bihotz-mamian Hura Adiskide bezala ikusi eta entzun gabe. Nola ikasi, ordea, Jainkoari dei egiten sinesmenik eza edota zalantzaren erditik?

Ilunpearen erditik sinetsi

33. Dirudienez, zalantzak ahultzen du askoren sinesmena. Nola sinetsi, dena zalantza eta nahasmena denean? Hasteko, ongi bereizi behar dira zalantza zu-

zen eta arduratsu izan daitekeena, eta axolarik eza edota eszeptizismo izan daitekeena.

Jarrera zuzena harturik, zalantzak dituen pertsonak ez du deus ere ezeztatzen. Ez da axolagabe geratzen ere. Bila dabil, galderak ditu, era arrazoituan sinesteko zergatiak ikusi nahi ditu. Axolarik eza beste zerbait da. Jainkoari buruzko galderaren aurrean axolagabe gelditzen denak, azken batean, bere izatearen azken zentzuari ihes egin nahi dio. Axolagabea ez da bila ibiltzen. Mesfidantza eta susmo txarren munduan babesten da, bila ez ibiltzeagatik. Horregatik, on da honako galdera hau egitea: «Zer da, zehatz, sinetsi nahi ez dudan hori, eta zergatik? Nondik datorkit orain bizi dudan egoera: zuzen hila ibiltzeak ala arduratsuago eta konprometituago bizi behar ez izateko aitzakia jartzetik?»

«Fedea zalantzan jartzearen» aurrean, lehenbiziko erreakzioa ez da galdera bakoitzarentzako erantzun zehatza aurkitzen saiatzea, baizik eta nork bere bizitzari zein norabide orokor eman nahi dion galdetzea. «Nahi al dut, zinez, egia aurkitu? Prest al nago Jainkoaren egiak uki nazan uzteko?». Gure fedea egiazkoa izatea ez dator gure zalantza edota ziurtasunen ondorioz, Jainkoarekin zinezko harremanak izatearen ondorioz baizik. Eta ez da beharrezko geure zalantza guztiak eta bakoitza argitzea, Beraren aurrean zinez bizitzeko.

Bihotz barneko egia da garrantzitsua. Ez da iraganeko ziurtasun eta segurtasunez fidatu behar; ezta gogoia galdu behar ere orain, zalantzak sortzen direnean. Zinezko fedea ez dago gure argibide sendoetan, ezta gure zalantzetan ere, baizik eta uste onez Jainkoaren bila dabilenaren bihotzeko egiazaletasunean.

Sinesmena berreskuratu

34. «Sinetsi al dezaket berriro horrela, era berrian eta zinez?». Hona hemen, krisi erlijiosoak ukitua egonik, Jainkoaren aurrean duen jarrera zuzen planteatzen duenaren oinarritzko galdera. Berreskura ote daiteke fedea? Beste galdera zehatzago batzuk argitu nahaiarekin batera etorri ohi da, gehienetan, galdera hori. Ikus ditzagun galdera horietako batzuk:

«Zerbait egin behar al da sinetsi ahal izateko?». Argi dago ezin dela inor sinestera behartu kanpotik. Ezta inork ere ezin du bere burua sinestera «behartu». Hala ere, ez da aski jarrera pasiboa edo axolagabea hartzea. Sinesmena ez da esnatzen urteak joan eta urteak etorri ezer egin gabe egonez, egunen batean nire bizitza aldatuko delakoan. Arreta handiagoz egon behar dugu geure barnetik sortzen zaizkigun galdera, irrika eta deiak entzuteko. Jainkoa bera dabil gure bila, guk ez badakigu ere.

«Ba ote da metodorik sinesten ikasteko?». Egia esan, ez dago Jainkoarengan sinestera inor nahitaez eramango duen errezetarik, ez formularik. Nork bere bidea egin beharra du. Hala ere, ezinbesteko dira halako jarrera batzuk: nor bere buruarekin zintzo izatea, barrenak dioena entzuten jakitea, koherente eta leial izan nahia, pertsona Jainkoarengana zuzendua egoteaz ohartzea.

«Erraza al da sinestea, ala batzuen eskura bakarrik dago hori?». Bizitzea edota maitatzea bezain erraza eta, aldi berean, neketsua da sinestea. Bere bizitza

nolanahi eramateaz ez konformatzea da sinestedunaren ezaugarria, eta horregatik sinestean aurkitzen du bere bizitza gogoz eramateko indarra eta norabiderik egokiena. Eta hor da Jainkoa, gizaki orori lagun egonez, inorentzat itxi gabe.

«Sinestea ez al da izaera kontua?». Zalantzarik gabe, bakoitzaren izaera pertsonalak eta, batik bat, iharduerak zerikusi handia izan dezakete bizitzaren aurrean halako edo bestelako jarrera hartzekoan. Hala ere, sinestea ez da «sin eskor» edota «elizkoi» diren pertsonen gauza. Edozein gizon nahiz emakume ireki daiteke uste onez Jainkoaren misterioa, nork bere izaeratik abiaturik egin arren.

«Berriro sinesteko, halako gauza bereziren bat sumatu behar al da?». Ez derrigorrez. Jainkoarenganako bidea aurkitzearen poza eta bakea suma dezakete batzuek. Hala ere, garrantzitsuena ez da «esperientzia bereziak» izatea, bihotza Jainkoari irekitzea baizik, Beraren aurrean uste onez jartzea, Berak ulertzen gaituela eta barkatzen digula sentitzea, beste era bateko bizitza hastera egiten duen deia entzutea.

«Behartu al daiteke norbait sinestera?». Ez, noski. Nork bere bizitzaren erantzukizuna du, bere bizitze eta hiltzeari eman nahi dion zentzuaren ardua. Hala ere, hitz egin dezakegu elkarren artean, gure esperientziak elkarri adierazi eta elkarri lagun diezaiokegu giza jarrera gero eta arduratsuagoa eta itxaropen tsuagoa hartzen.

Galdera horiek eta halako beste batzuek aditzera ematen dute eginahalak egin behar ditugula oinarrizko galdera argitzeko: Zer da sinestea? Nola ulertu behar dugu, pertsona Jainkoaren misterioan konfiantza jartzera daraman ibilbide hori? Zertan datza fedea?

IV.- ZER DA JAINKOAGAN SINESTEAA?

35. Gaur ere, betidanik bezala, arazo da gizakia bere buruarentzat. Bada zer-bait bere izatearen arrazoia bilatzera eta bizitzeari zentzua ematera bultzatzen duena. *Zergatik sortu naiz? Nondik nator? Nora noa? Zein da nire egitekoa? Zein nire etorkizuna?* Galdera hauei erlijioak ematen dizkien erantzunak baztertu egin ditu kultura sekulartuak; baina ez du eskaini erantzun egokia eman diezaiekeen jakituririk. Bere erantzun pertsonala bilatu behar du gizon eta emakume bakoitzak.

Sinestedunak duen erantzunaz mintzatuko gara. Sinestea ez da bizitzaren aurrean izandako erreakzio automatikoa; gizabanako bakoitzarengan emetzen eta heltzen den erabaki pertsonala da. Jainkoaren misterioaren aurrean ez dago berdin izango diren bi jarrerarik. Sinestedun bakoitzak bere ibilbidea egin behar du. Ez dugu fede-ekintza aztertu nahi orain, ezta kristau-fedearen teologiarik eskaini nahi ere. Jainkoarengan sinestera daraman ibilbidea hobeki ulertzen lagunduko diguten alderdi batzuk gogoratu baizik ez dugu nahi.

Jainkoa ez dago inorengandik urruti

Esan dezagun, lehenbizi, sinesmena ez dela pertsonaren ahaleginen ondorio. Ez da bilaketa-lanen ondorio. Gizakiak irrika du eta bila dabil. «Sinestea», ordea, Jainkoaren dohaina da, Jainkoaren graziak sortarazten eta elikatzen duen biziera.

• Hor da Jainkoa, hasieratik

36. Pertsonak Jainkoarenganako ibilbidea hasten duenerako, hor da Jainkoa hasieratik, gizakiaren izatearen muinean, gizakia bere Misteriora erakarriz. Horregatik abia daiteke gizakia Jainkoaren bila, Jainkoa hor maitetsu dagoelako; Berak hasten eta jarraiarazten du gizakiak Jainkoarengana egiten duen bidea. «Itsumustuka» gabiltza Jainkoaren bila; Bera, ordea, «ez dago gutako bakoitzarengandik urruti, Berarengan baitugu bizitze, ibiltze eta izate» (Ap Eg 17,27-28). Berak argi egingo ez baligu, nahiz eta argi hori ahula eta susmo hutsa izan eta giza bihotzean sortzen diren galdera moduan azaldu, ez luke inork Jainkoaren aurpegia bilatu ahal izango. Kontzientziaren barre-muinean, ilunpetan bederen, Haren presentzia sumatu ezean, ez luke inork Jainkoarenganako urratsik emango.

Gizon eta emakume orok du, jakinik edo jakin gabe, Jainkoaren presentzia bere baitan. Axolagabeena, epelena, sinesgabeena ere Jainkoaren graziak inguratua bizi da, Jainkoak onartzen eta neurrigabe maite duelarik. Halako Jainkoak ez du inor behartzen, ez estutzen. Eskaini baizik ez du egiten, bere adiskidetasuna inoiz ukatu gabe. Bekatuak berak ere ez du Jainkoaren presentzia ezabatzeko; baina galarazi egiten digu Berarengana irekitzea.

Oker egongo ginateke, Jainkoa gure barne-muinean isil-isilean bakarrik ari dela uste izango bagenu. Etengabe eta era askotara ari da Jainkoa gu guztion

eta gutako bakoitzaren bila, gure bizitzan azaltzen diren pertsona, esperientzia eta gertaeren bidez; halakoek interpelatu egiten gaituzte eta Jainkoarengana bultzatzen.

- ***Gizakiak onartu egin behar***

37. Horregatik, sinetsi nahi duen pertsona ez da saiatzen zerbait «lortzen», Jainkoaren «jabe» egiten, bizitzaren misterioa noizbait ere «ulertzen». Prest egoten saiatzen da, entzuten eta onartzen, Jainkoak egiten dion deiarekin sintonizatzen, Jainkoak bera bila dezan uzten. Jainkoa zer den jakitea ez, baizik eta Jainkoa ezagutzea da kontua: «Egiaz lur honetan dago Jainkoa, eta nik jakin ez» (Gn 28,16).

Jainkoarengana abiatzen denak esan ezin halako esperientzia bizi du, gero eta bereziagoa. Jainkoaren bila dabil gizakia, baina batez ere Jainkoa dabil gizakiaren bita. Deika ari da gizakia, baina batez ere Jainkoak egiten dio dei. Ibilean dabil, baina Norbaitek erakarria eta gidatua. Ez da gizakia bila hasten dena. *Onartzen jakitea* da giza jarrera egokien azaltzen duena.

- ***Sinesmena dohaina da***

38. Sinesmena ez da, beraz, gure ikerketen emaitza. Ez da egoki pentsatzen asmatu dugulako edota beharrezko azterketak egin ditugulako sortzen guregan. Jainkoak berak, guregan agertzean, pizten duen usteon gero eta biziago bezala sortzen da beti sinesmena. Horregatik, sinesteko, Jainkoaren aurrean jartzea da garrantzitsuena. Beraren maitasuna eta deia onartzea. San Inaziok dioenez, ez dio axola *asko jakiteak, gauzak barrean dastatu eta sumatzeak* baizik⁹.

Sinesmena ez da beste sinestedun batzuen testigantzak edota argudioak buruan sartu dizkigutelako hartzen dugun erabakia. Ez digute beraiek fedea «esnatzen». Jadanik guregan dagoena entzutera gonbidatu baizik ezin digute ezer egin. Jainkoarekin topo egitea da garrantzitsuena, Beraren aurrean zinez egotea; horrek bai alda dezakeela gure bizitza, argudio guztiek baino hobeto. Jainkoaren gonbidapena entzutea izan daiteke biderik laburrena gure sinesmena esnatu eta bizkortzeko.

Sinesmena *hutsean emandako dohaina* dela esan behar dugu, beraz. Baina ongi ulertu behar dugu hau. Fedea ez da gure lorpena, gure jabetza, merezi izan dugun eta eskatzeko eskubidea dugun zerbait; eman egiten digu fedea Jainkoak; Beraren dohaina da. Horrek, ordea, ez du esan nahi Jainkoak edonola bati eman eta beste bati ukatu egiten dionik, batzuek nahi izanik ere sinesterik ez baleukate bezala, Jainkoak nahi ez duelako. Gizon-emakume oro Jainkoak sortarazia da, eta bere izatean darama Jainkoaren bila ibiltzeko eta bera aurkitzeko deia. Jainkoa aurkitu gabe, ezin da inor gizaki den aldetik salbatu. Horregatik, Jainkoa da, dohainikakoa izanik ere, gizakiaren ondasunik ederrena, Bera baita gizakia bete eta salba dezakeen bakarra.

⁹ Loiolako san Inazio, *Gogo-ihardunak*, 2.

Jainkoari uste onez atxiki

Batzuetan ahaztu egiten zaigu sinesmena ez dela zerbait sinestea, Norbaiti sinestea baizik. Lehenbizikoa ez da zerbait sinestea edota doktrina batzuk onartzea, erro-errotik Jainkoarengan sinestea baizik. Jesukristorengan agertua eta gizon egina den Jainko biziari atxikitzea da beti egiaz erabakigarria.

• Jainkoarekiko lotura

39. «Erljio» hitzaren jatorriak lagun diezaguke sineste erlijiosoa zer den ulertzen. Erljioa, munduari buruzko azalpena, Jainkoari buruzko teoria edota gizar-tean gertatzen den fenomenoa izan baino lehen, Jainkoarekiko «loturan» bizitzea da. Izatea ematen digun eta «Jainko» deitzen diogun horrengandik bizi garela onartzea da sinesmena, bere izatearen muinean.

Hona hemen sinestedunaren oinarrizko esperientzia: Ni ez naiz guztia; ez naiz gauza guztien neurria, ez neure izatearen sorburu eta jabea. Ezin dut neure indar hutsez lortu nire izateak irrika duena. Neroni baino handiagoa den misterioa daramat neure baitan. Baina badut uste on. Onartzen dut, izatea eman didan Errealitate pertsonal horrengandik naizela. Aitortzen dut mugatua naizela. Ni ez naiz gauza guztien erdigunea. Izatea eman didan Jainko horrengan dut sorburua eta helburua. Bera da gauza guztiei eusten dien oinarria.

Horregatik, fedearen aurkako benetako bekatua etsipenean erortzea da, konfiantzarik eza, edota gure izatea oinarrizten duen Errealitate horrekiko «lotura» eten nahia; norbere burua gauza guztien erdigune bihurtu nahirik, gauza guztien sortzaile den Misterio horrengandik, Jainkoarengandik, aske izan nahia, hori da bekatua.

• Sustrai-sustraiako konfiantza

40. Sinesmena, beraz, sustrai-sustraiako konfiantza da. Atzeman ezina den Misterio horrengan, Jainkoarengan, uste ora jartzera eragina da sinesteduna. Bere ezinak eta mugak sumatzen ditu, baina, aldi berean, Jainkoarengan aurki ditza-keen duintasun eta sendotasuna nabari ditu. Eta erabateko konfiantza horretan aurkitzen du bere izate eta bizitzearen betea.

Ongi ulertu beharra dugu zer esan nahi duen Jainkoarengan «sinesteak», esanahi desberdinak izan baititzake hitz horrek. «Beste astro batzuetan bizia izan daitekeela sinesten dut» diodanean, ziur ez dakidala, baina hala izan ote daitekeen susmoa eta ustea dudala esan nahi dut. Norbaiti «sinesten dizut» esatean, «fidatzen naiz zutaz, zuk diozuna egia delakoan nago» esan nahi dut. Norbaiti «nik sinesten dut zuregan» esatean, «neure uste osoa zuregan jartzen dut, zuregan babesten naiz uste osoz» esan nahi dut.

Badirudi batzuetan «Jainkoarengan sinesteak» honelako zerbait esan nahi duela: «Ez dakit Jainkoarik baden ala ez, eta ezin dut ziur egiaztatu, baina baitetz uste dut, zerbait izan behar duela». Hala balitz, gauzak nola diren jakiteko «era ahula» izango litzateke fedea, eta ezin izango luke zientziarekin lehiatu, ezin izango bailuke dioena zientifikoki» frogatu.

Baina sinestedunak, bere barre-muinean, Jainkoari «nik sinesten dut Zuregan» esaten dionean, honako hau esan nahi dio: «Ez nago bakarrik. Zu zara nire izatearen oinarria. Zu nire sorburu eta azken helburua. Zuk ezagutzen nauzu eta maitatzen. Zuk ez nauzu inoiz ere eskutik utziko. Zuregan babesten dut neure izatea. Ez nau ezerk ez inork urrutiratuko zure maitasun eta zure graziatik». Fede hau ez da zientziaren maila berekoa. Bere izatea oinarritzen duen Misterioarekin elkar-aurkitze pertsonala nahi du izan fededunak. Eta zientziak ezin du elkar-aurkitze horretara eraman. Gauzen funtzionamendua nola den hobeki jakiten laguntzen dit zientziak, baina neure misterioan itxia uzten nau, izatea ematen didan azken Errealitate horrengandik bereizia.

Horregatik, zientziak eman ezin dion zentzu-betetasuna ematen dio fede erlijiosoak sinestedunari. Errealitatearen sakon-sakonean han da Jainkoa, guztiei zentzua emanez. Sinesten duenaren begietan munduak beste tankera bat, adiskide-tankera, hartzen du. Hor da Jainkoa, denen izatea babestuz eta itxurazko zentzurik eza kenduz. Sinestedunak badaki Jainkoak onartzen duela: «Jaunagan dago salbamera» (Sal 3,9).

- ***Jainko biziarekin topo egin***

41. Jainkoarengan sinestea, hala ere, ez da pertsona bakoitzaren sentimendu eta azalpen hutsetan gelditzen. Erlijio bakoitzaren tradizioan –baita kristautasunean ere– formula eta esakune zehatzetan gauzatzen da Jainkoarenganako fedea. Baina argi izan behar dugu beti, fedea ez dela Jainkoari buruzko formula horiek sinestea, baizik eta Jainkoarengan berarengan sinestea. Gure izatea Jainkoarenganako norabidean jartzen laguntzen diguten «bideak» besterik ez dira sinesmen-formulak. Sinesteduna ez da formula horietan itxia gelditzen, baizik eta formula horiek erakusten dioten Jainkoarengana irekitzen da.

Hortantxe egon daiteke, hain zuzen, askoren arriskua: egiazat hartu behar den doktrina-multzo itxi bat onartzea aski dela uste izatean, alegia, eta Jainkoarekin harreman pertsonala izatera ireki gabe gelditzean. Ahaztu egiten zaigu gure kontzeptu, eskema eta irudi guztiak baino handiago dela Jainkoa, eta formularik gorenena eta bikainenak ere ez direla aski Haren Misterioa atzemateko. Jainkoari buruz ditugun burutapen faltsuak gainditu ahal izateko orientabidea baizik ez digute formula horiek ematen, horrela geure uste on osoa Misterioaren eskuetan, Jainkoaren eskuetan, utzi ahal dezagun.

Bihotz-bihotzez

Sinesmena beti norberaren esperientzia da. Ez da aski txikitandik bizi den erlijio-tradizioari ohikeriaz jarraitzea. Berria den zerbait ekarri behar du bakoitzaren historiara. Norberaren erabaki hau ezin du inork ez ezerk ordezkatu. Ezagutu dezakegu halako erlijio-tradizioa eta beste sinestedun batzuei entzun. Baina, azkenean, honako galdera hauek egin behar dizkio nork bere buruari: «Nik norengan sinesten dut? Jainkoarengan ala Berari buruz hitz egiten didate-nengan sinesten dut nik?».

- ***Pertsona osoa atxiki Jainkoari***

42. Pertsona bakoitzaren barne-muinean gertatzen da fedea. Gunerik sakonean, izatea eta ez izatea jokoan jartzen diren gunean. Izatearen sorburu eta oinarriari buruz sustrai-sustraiko erabakia hartzen den gunean. Horregatik, fedeak pertsona bere osoan hartzen du eta konprometitzen. Ekintza pertsonalik handiena da. Jainkoaren misteriorantz zuzentzen du pertsonaren izate osoa fedeak. Ez da sentimenduaz, borondateaz, arrazoiak edota sen hutsez sinesten. Pertsona osoak bere burua Jainkoaren eskuetan baldintzarik gabe eta uste on osoz uztea da sinestea.

Horregatik dio Bibliak «bihotzarekin» duela zerikusia fedeak: «Jaunaren, zeure Jainkoaren, hila ibiliko zara, eta aurkitu ere aurkituko duzu, bihotz-bihotzez Harengana jotzen baduzu» (Dt 4,29). Bihotza da pertsonaren erdigunea, izate osoa bateratua, korapilatua, gelditzen zaion gunea. Bihotzean erabaki ohi du pertsonak nolako norabidea eman bere bizitzari. Bihotzean egiten du aukera on eta txar, egiazko eta gezurrezko denaren artean, bizitzaren eta heriotzaren artean. Gizakiaren bihotzak du Jainkoarengan sinesten edota Jainkoa arbuaiatzen, zapuzten¹⁰.

- ***Sinestedunaren ibilbidea***

43. Jainkoaren bila «bihotz-bihotzez» dabilena, bere ahalmen eta gaitasun guztiakin dabil: borondate, adimen, maitatzeko ahalmen eta sentiberatasun guztiarekin. Ezin dugu sinestedunak egin dezakeen ibilbidea hemen azaldu. Alderdi batzuk baizik ez ditugu gogoratuko.

Sinesteko ekintzaren sakonean honako esperientzia hauek izan ohi dira: bere baitan duen alderdirik onenaz arduratuz, gauzek nola funtzionatzen duten jakitea aski ez eta galdera sakonagoak egiten dizkio pertsonak bere buruari: «Nor naiz ni? Nondik nator? Zein da nire etorkizuna?». Eta bere burua ahul eta mugatua ikusirik, harantzago begira jartzen da.

Sinesmenerako ibilbidean, bestalde, arreta eta ardura handiagoa behar da beste erabaki batzuetarako baino; izan ere, gainerako esperientzietan baino ukituago gelditzen da pertsona sinestearen ekintzan. Ez da gainerakoak bezalako beste erabaki bat hartzea, baizik eta pertsona bere azken errealitatera zuzenduko duen erabakia hartzea.

Sinesmenerako ibilbidean era askotako esperientziak bizi daitezke: pozkariozkoa eta samintsua; esperientzia gartsua eta barea; ziurtasun osoa izatearena eta zalantza aztoratsuarena; betetasun-sentimenduarena eta duintasun ezarena; esker oneko izatearena eta dei egitearena; ikara izatearena eta liluratzearena. Eta horren guztiaren erdian Jainkoaren presentzia nabaria dago, eta erantzuna eskatzen duen deia, onartzea merezi duen deia.

¹⁰ Ikus Vatikanoko II. Kontzilioa, *Dei Verbum* Jainko-agerpenari buruzko Konstituzioa, 5. zenb.

- ***Sinesteko era desberdinak***

44. Pertsona bakoitzaren egiturak eta izaerak zerikusi handia dute sinesteko eran. Horregatik, sinestedun bakoitzak bere bidea egin beharra du.

Pertsona batzuek ez dute asko hausnartu beharrik, ezta azterketa luzeak egin beharrik ere fedearen muina atzemateko; berehala sumatzen dute garrantzitsuena Jainkoarengan sinestea dela. Beste batzuk, aldiz, dena arrazoitu eta aztertu beharra dute, eta sinestearen razionaltasuna egiaztatu beharra. Orduan irekitzen dira Jainkoaren Misteriora.

Pertsona batzuek berehala erantzuten dute mezu itxaropentsuaren aurrean; Jesukristoren Ebanjelioa entzun eta berehala sumatzen dute uste onezko erantzuna eman beharra. Beste batzuek, berriz, denbora gehiago behar dute beren erabaki hori heldutasunera eramateko; entzuten dute kristau-mezua, baina sakondu beharra dute beraren edukia eta nolako eskakizunak dituen ikusi behar dute, beren bizitzarako indar eragileztat onartu baino lehen.

Pertsona batzuek «barne-bizitzarako» trebetasun handia dute; erraz egiten dute isiltasuna, beren izatearen sakonean Jainkoari entzuteko eta Espirituaren eraginera irekitzeko. Pertsona askok, berriz, izaera ekintzazalea du, eta halakoak errazago entzuten du Jainkoaren deia konpromezu praktikorako, senidea zehazki maitatzeko, mundu gizatiarra goa egiten saiatzeko.

Ziurtasuna eta iluntasuna sinesmenean

Sakonean ziurtasuna galdu gabe ere, iluntasunak eta zalantzak astin dezakete fedea. Krisialdiak dira. Halakoetan badirudi, hain hurbil eta presente dagoen Jainkoa urrutiratu eta gorde egiten dela. Sinestedunaren bihotzean zalantza sortzen da: «hola bihurtu zara niretzat itxura huts den ur engainagarri?» (Jr 15,18).

- ***Zalantzaren esperientzia***

45. Sinesmena ez da giza adimenaren emaitza; ezta, ordea, hutsera salto egitea ere. Jarrera onargarria da, eta ez da arrazoien aurka hartzen; baizik eta arrazoiz eta era koherentean erantzuten die sinesmenak gizakiak bere baitan dituen arazo, galdera eta irrikeri. Horregatik, fedea, gehienetan, segurtasun- eta ziurtasun-esperientzia ekarri ohi du berekin.

Sinesmenaren barruan hartzen du bere sendotasuna sinestedunaren ziurtasun horrek. Ez da kanpotik egindako «eraikitze razionala»; eta ezin zaio kristau-esperientzia hori ez duen bati sinesmen-frogatzat aurkeztu. Fedearen argitan izandako eta ulertutako esperientzi multzoaren ondorioz datorkio ziurtasuna sinestedunari. Bere baitan egiazta ditzake sinestedunak sinestearen ondorioak: bakardadean norbaitek onartzen duela sumatzen du; erruaren zama kentzen dion barkamenaren esperientzia nabaritzen du; bere ahultasunean sendotua eta maitasunean eta zerbitzuan bizitzera bultzatua ikusten du bere burua; gauza guztiei egiazko beren ikuspegitik begira diezaieke; sufrimenduari eta heriotzari itxaropenez aurre egiteko gauza dela ikusten du.

Sinesmenean, ordea, dena ez da ziurtasun. Sinesteduna egiaz eta benetan atxikitzen zaio Jainkoari; bere esperientzia erlijiosoak argi egiten dio. Baina baiditu ilunaldiak ere bere fedean, gainditu egiten baitu beti Jainkoak, Misterio transzendente horrek, gure ahalmen mugatua. Horregatik, fedez atxikia egonagatik ere, ager daiteke zalantzaren esperientzia garratza. «Eta egia ez balitz...» «Sinesmenaren beste aldea» bezala da zalantza, sinesmena ez baita beti gauza nabaria.

Berekin ditu, beraz, fedeak ziurtasuna eta ilunaldia. Sinestedunak konfiantza behar du bere bihotzean, uste sendoa eta maitasuna. Dei egiten eta eskerrak ematen jarraitu behar du. Eta leial iraun. Leialtasun hori, ordea, iluntasuna eta zalantza behin eta berriz gainditzean dago, hain zuzen: «Nire bihotzak irrikatzen zaitu gauean» (Is 26,9).

- ***Hurbil den Jainkoaren urruntasuna***

46. Jainkoaren hurbiltasuna, aldi berean, urruntasun gertatzen da. Alde bate-tik, norbere burua erabat ematea eskatzen du fedeak; baina emate hori ez da inoiz ere bete-betean gertatzen bizitza zatitu eta sakabanatu honetan. Tentsioz eta kontraesanez egina ikusten du gizakiak bere burua. Gure irrika handiagoa da gure izatea baino. Eta, batez ere, Jainkoa da gure irrika guztia baino handiago. Mugatua den gizakiari gainez egiten dio Jainkoaren Misterio ulertezin eta neurrigabeak. Misterioa suma daiteke, baina ezin da hartaz jabetu.

Horregatik, Jainko hurbila bere barnean duenaren esperientzia bizi du fededunak; baina behin eta berriz ezkututzen zaiola ere nabaritzen du. Jainkoak bere burua ematen digu, baina «Jainko ezkutua» ere bada (Is 45,15). Ezin dugu geure komenientziara erabili. Horregatik, dei eginez bizi du fededunak bere sinesmena: «Noiz arte eduki behar didazu zeure aurpegia gorderik?» (Sal 13. [12.], 2).

- ***Beti sinets daiteke***

47. Oztopoak eta iluntasuna handiak izanagatik ere, sinestedunak beti esango du: «Sinesten dut». Baina guztiek ez dute horrela erantzuten. Pertsona batzuek, halako batean, gatazka sumatzen dute beren baitan eta benetako galdera egiten diote beren buruari: «Sinesten al dut nik egiaz?» Fedeak azken zentzua ematen die gauza guztiei, baina batzuetan zentzugabea eta itxuragabea agertzen da bizitza. Jainkoarengana jo, eta Jainkoa isilik. Beraren beharrik handiena dugunean ez dago inon. Ez ote da dena amets hutsa? Horra krisialdia, tentaldia: dena utzi ala isilik dagoen Jainkoaren eskuetan utzi norbere burua. Zer egin?

Ezin zaigu ahaztu fedea prozesua dela, Jainkoarenganako bidea, eta pertsonaren bizitzan barra bere historia duela. Gerta daiteke, sinestedunak, halako batean, sinesmenaren esanahi osoa bereganatu ezina izatea. Ilunegi eta isilegi du dena. Halakoetan, ez du larritu behar fededunak zalantzan dagoelako; ziurtasunik gabe ere, bere espirituaren azken kemenez Jainkoaren Misteriora zabalik egoten jarraitu beharko du.

Halako krisialdia beti da garratza, baina berea du fede-bizitzak, eta bizitza hori garbitzeko eta haxiarazteko balio dezake. Agerian jartzen digu krisialdiak

ezin garelara Jainkoaren azken egiaren «jabe» egin. Honetan ez dute bizitzako beste mailetan izan ohi ditugun ziurtasun horiek balio. Izatearen azken misterioaren aurrean apal eta egiaz ibili behar da: «Jauna, zergatik zaude urrutian?, zergatik ezkutu, larrialdian?» (Sal 10. [9. B], 1).

Bestalde, gure askatasuna ere probatzen du krisialdiak. Jainkoaren aurrean ezin nau inork ere ordezkatu. Neronek erabaki behar dut, askatasun osoz, «baietza» ala «ezetza» eman. Nik neuk zuzendu behar dut neure bizitza Jainkoarengana, eta Haren egiara. Gauza bat nahi dizuegu oroitarazi fede-krisia zeuen haragian bizi duzuenoi: ilun eta zalantzen erdian ere, sinetsi nahi duena sinestedun da Jainkoaren aurrean. Ongi ezagutzen du Jainkoak gizakiaren bihotza: Jainkoaren aurrean egiaz bizitzeko era apal baina benetakoa da sinetsi nahia bera. Alderantziz, harrokeriak galarazten dio gizakiari Jainkoarengana uste on osoz irekitzea.

Sinesmena eta bihotz-berritzea

Ez dago federik bihotz-berritze edo konbertsiorik gabe. Ez gara kristau jaiotzen. Egin egiten da kristaua. Fedea, hain zuzen, «gogo-bihotzak berritzea» da (Ez 18,31).

• Oinarrizko bihotz-berritzea

48. «Bihotzberritzea», batez ere, «bihotza aldatzea» da. Norbere buruaz harro egotetik Jainkoaren eskuetan jartzera igarotzea. Norbere buruari eta munduari begira bizitzeko orde, Jainkoaren Misterioari begira bizitzea eta hala ulertzea norberaren izatea. Horregatik, bada erlijioa bizitzeko modu berez faltsua: pertsona bere buruaren erdigune izanez bizitzea, eta bere intereserako bakarrik jotzea Jainkoarengana.

Sinesmenak eskatzen duen bihurtze eta aldaketa hori «berriro jaiotzea» da (Jn 3,3-5). Munduaren aurrean beste era bateko jarrera hartzea, sinesten ez duenarena ez bezalakoa. Errealitatea ikusi, aztertu eta epaitzeko beste era bat: Jainkoa ez da munduan gertatzen diren fenomenoek azalpen zehatza; bai, ordea, azken zentzua, egiazko zentzu transzendentea, ematen diena. Izateko eta bizitzeko era berria da hori; sorkariaren helburu eta neurria Jainkoa da. Jainkoari esker, egia eta ongiaren aurrez aurre jarriak gara; Jainkoak maitasunera dei egiten digu.

Bihotz-berritze honetan ez dugu «eskakizun etikoa» bakarrik ikusi behar. Jainkoarengana bihurtzea, aurren-aurrenik, norbera aski dela uste izatea eta itxurakeria alde batera uztea da. Jainkoaren aurrean jartzeak bere burua ezagutzen laguntzen dio gizakiari; txikia dela ikusten, baina baita nolako handitasuna duen ere; bizitza egian sustraitzen eta azken helburua uste onez itxaroten.

• Fedea eskakizunak

49. Jainkoarengana bihurtze hau pertsona bakoitzaren bizitza barruan gertatzen da eta, horregatik, gertatzen denean, aldatu egiten du bizitza, egiazkoagoa bihurtuz. Pertsona Jainkoarengana irekitzen denean gizatiarrago egiten da. Bi-

hurtze etikorik gabe fedea irudipen hutsa izan daiteke. Ezin da Jainkoaren aitzi-
nean bizi senidearen aurrean arduradun sentitu gabe. Jainkoa Egile eta Aita-
rengan egiaz sinesten dugula erabakitzeke irizpidea senidea maite dugun ala ez
ikustea da, eta beraren beharrak axola digun ala ez: «Maite ez duenak ez du eza-
gutzen Jainkoa, Jainkoa maitasuna baita» (1 Jn 4,8).

Sinesmenak, bestalde, pertsonaren jarrera etikoa ere aldatu egiten du.
Printzipio etiko batzuk betetze hutsa ez baizik eta Jainkoaren deiari erantzutea
nahi du fededunak. Konbertsioa ez da barneko harra sentitze hutsala, Aitarengana
itzultzea eta Haren barkamen bizkortzailea onartzea baizik. Ez da kon-
prometitzen bakarka eginahalak egitera, Jainkoari obeditzera baizik, Haren gra-
ziak lagundurik eta eutsirik.

Jainkoarengan sinesteak, motz gelditu nahi ez bada, beharrezkoak ditu
forma erlijioso zehatzak ere, Jainkoa presente dela antzemateko, Beraren izena
deitzeko, handitasuna goresteko eta misterioa gurtzeko. Ez dugu han «praktika
erlijiosoen» azalpena egiteko egokiera. Baina esan nahi dugu, gizakiak etekina
ateratzeko, ondasunak handitzeko, edota bere onurarako izaten dituen ekintzak
ez bezala, «beste maila batekoak» direla, eta haiekiko etena eskatzen dutela.
Erljioan Jainkoak eta guk elkar aurkitzea bilatzen dugu. Horregatik, «erlijio-
soen bihotza» otoitza da. Eta, otoitzarekin batera, ospaketa.

Azkenik, ezin ahaztu fedeak badituela eduki batzuk ere. Ezin da Jainkoa-
rengan sinetsi Jainkoak agertzen diguna sinetsi gabe. Horregatik, Jainkoarekiko
duen atxikimendua, gizakiari, historiari eta munduari buruzko ikuspegia Jain-
koak Jesukristorengan agertu digunaren argitan ulertzen saiatzen da fededuna.

V.- NOLA BIZIBERRITU JAINKOAGANAKO FEDEA?

50. Gaur ere Jainkoa gizakiaren bihotzean bizi da. Isilik baina egiaz, gutako bakoitzean dago. Hala ere, asko dira aurre-iritzi eta eragozpen kultural, erlijioso eta pertsonalak, eta askori zail egiten zaio Jainkoagan sinestea. Itxura batean hain desegokia den gaurko giroan, ba ote dago fedea biziberritzerik, eta Jainkoari buruzko kristau-esperientzia birmoldatzerik?

Gizartegiroak eta oso zabaldua dagoen bizierak izugarri baldintzatzen gaituzte; eta asko badira ere beren barru sakonean hustasuna, zentzugabekeria eta ondoeza nabari dituztenak, esperientzia hori ez da Jainkoa bilatzeko ibilbidean jartzeko dei bihurtzen. Gehiago oraindik; batzuei Jainkoaren gogorapenak erresumina eta oroipen ilunak ekartzen dizkie; eta beren bizitzan «asmo berri bat» hartzen dutenean, beren barruko nahigabeak Jainkoagandik ihes egitera eramaten ditu, eta ez Hura bilatzera; nahiago dute erlijioaz ahaztu eta ongizatea beste nonbait bilatzeari ekitea.

Hau da geure buruei egiten diegun galdera: zein dira gaur egun Jainkoagana eraman gaitzaketen bideak? Jainkoa ezkutatu egiten duela dirudien gaurko krisi erlijiosoa, ez al daiteke Haren aurpegia bilatzera eramango gaituen dei bihurtu? Non eta nola aurkitu gure egunotan, Jainkoa gure artean dagoenaren ezaugarri eta aztarnak? Nola sinetsi Harengan?

Jainkoaren lehen susmoa

51. Jainkoa aurkitzeko lehenengo bidea gu geu gara, eta bizitzako geure esperientzia. Gizakia ez da zientziak argitu beharreko arazo huts. Erantzun bat eman nahi diogun *misterioa* da. Beti ziurtasun bila dabilena, eta beti babesik gabe. Bizitzeko jaioa, eta heriotzara derrigortua. Ekintzarik handienetarako gai dena, baina baita txarkeria eta kaxkarkeriarik handienetarako ere. Egia bilatzen duena, eta etengabe okerbidera doana. Askatasunaren bila, eta askatasuna erabiltzeko beldurrez. Mundua menperatzeko gai, baina bere buruaren jabe izaten asmatu ezin duena. Maitatzeko egina, eta berekoikeriak murrizten duena. Ohartu gabe bada ere, ez al gabiltza gizakiok Jainkoaren eta Haren salbameneren hila? Ez al da Bera gure galdera eta ametsik sakonenei erantzun diezaikeen bakarra? Gure azken egia argi dezakeen bakarra?

Gizakia, bestalde, *eginkizun* da. Askatasun bila dabilen izakia baita; baina ezin du lortu bere historia bera gizatiarrago egin dezakeen puntura zuzentzea. Gaurko gizakia liluraturik dago pentsatuz, bera dela historia egiten eta bere salbamena eskuratzen duena. Baina, ez ote da hori bere ahalmenen gainetik dagoen eta, azken batean, alienazio handiagora eramaten duen indar handitxoa bere buruari aitortzea? Alderantziz, ez ote luke dohain gisa hartu behar lukeen Askatasun osoagora zabaldu behar?

Gizakia *etorkizun absolutu* baten eske dago. Barru-barrutik, bere bizitza konkretuan hondaturik geratzen den osotasun betea du amets. Giza historia osoa ez al dago Osotasun mugagabera iritsi nahian? Gizatiar eta normaltzat hartu behar al dugu, ezerezetik ezerezera doan bizitza? Alderantziz, gure bizitzak ez ote du izan behar Jainkoagandik Jainkoagana doan giza bizitza?

Beste behin ere esana dugu: «Jainkoa ukatzen dugunean, ez al da gizakia erantzunik gabeko galdera bihurtzen, ezinezko proiektu, egintzara eraman gabe ezerezean urtzen den asmo bat? Ibilbide guztien azkenean, gure amets guztien oinarrian, gure galdera sakonenen azpian, ez al dago Jainkoa, gizakia salba dezakeen Salbatzaile bakarra?»¹¹.

52. Geure inguruan dugun errealitatearen esperientzia ere Jainkoaganako bide dugu.

Gaur egun gizakiok gehienbat geuk egindako munduaren barruan bizi gara. Horregatik, hain zuzen, zail egiten zaigu geure sustraiak Jainkoagan ditugula sumatzea. Baina izadi handira hurbiltzen bagara, mundu osoko bizira, alegia, eta kreazioaren, ordenaren, edertasunaren sorburura eta bizi-arnasa ematen digun mugagabeko bizi eta zoriontasunera hurbiltzen bagara, sumatzen dugu guztiaren jatorrian misterio bat dagoena: gauza guztien sorrera den Izaeraren, Biziaren, Edertasunaren eta Maitasunaren, misterioa; eta misterio hori dela den guztiaren eusgarria eta geure aurrean daukagun bizi-iturri bakarra.

Jainkoaren lehenengo aurkikuntza hau denon eskura dago eta, iluntasun artean bada ere, geurekin daramagu guztiok geure gogo- eta moral bizitzaren jatorrian.

- ***Jesukristo, Aitarenganako bide***

Kristauontzat, Jainkoagana garamatzen bide erabakigarria Jesukristo da. Jesukristogan ematen zaigu agertzera, lehenengoz geure giza kontzientzian sumatzen dugun Jainkoa. Sinetsirik gaude, gaur egun fedea era ahulean eta zalan-tza artean bizi dutenetako askorentzat, edota erlijio-praktikak utzi dituztenentzat, Jesus hobeto ezagutzea izan daitekeela Jainkoarekin topo egiteko biderik ziurrena; Jesusen mezua aurre-iritzirik gabe entzutea, Haren espiritu bera izatea, Haren bizierarekin bat egitea. «Ez doa inor Aitarengana, Haren bitartez ez bada» (Jn 14,6).

- ***Jesukristo, «bidea, egia eta bizia»***

53. Jesukristorengan lehenengo eta behin aurkitzen duguna, geure bizitza sus-traitik interpelatzeko gai den gertaera da: Jainkoaren Seme maitea, gure bizibaldintza berak bizi izan dituen. «Jainkoak digun maitasuna honetan agertuzen: Jainkoak bere Seme bakarra bidali zuela lurrera, gu Haren bidez bizi gaituzen» (1 Jn 4,9).

Horregatik, Jesukristogan aurkitzen dugu guk Jainkoaren Misteriora hurbiltzeko bidea. «Jainkoa ez du inork inoiz ikusi; Aitaren altzoan dagoen Seme bakarrak eman digu Haren berri» (Jn 1,18). Jesusen pertsonak, Haren keinu, jokabide, mezu, bizitze, hiltze eta pizteak jartzen gaituzte Jainko biziaren presentzia misteriotsuaren aurrean; Harengan agertu baita gizon egina. Jesus ikusten duenak, Aita ikusten du (Jn 14,9).

¹¹ *Gizonaren egiazko aurpegi bila* Pastoral Idazkia (1987, Garizuma-Pazkoa), 32. zenb.

Jesusek erakusten diguna zera da: gure bizitza ahul eta galkor hau sakontasunez Jainkoagandik eta Jainkoarentzat nola bizi, gure zoriona eta salbamena besterik nahi ez dituen Aita baten seme eta alaba bezala. Jesusengan eskaintzen zaigu Jainkoari buruzko *egia*, Jesusengan ematen Jainkoaren *bizia*, eta agertzen Jainkoagana daraman *bidea*. Jainkoa bete-betean onartzeko beharrezko da Jesusi jarraitzea, Haren esperientzia bera bizitzea, Haren bizitza eramatea, Haren Espirituak arnasberriturik bizitzea. Jesusen antzera bizi denak bakarrik onartzen du biziaren Jainkoa. Jesusek bezala maitatzen duena bakarrik zabaltzen da maitasunaren Jainkoarengana. Senidetasunean bizi eta baztertuengana hurbiltzen denak bakarrik egiten du «behartsuen Jainkoaren» esana.

Eliz barruan deseroso aurkitzen direlako, edota beronen jokabide nahiz argibide jakin batzuekin bat ez datozelako, gaur egun Elizatik aldentzen direnek, eta inolako interesik ikusten ez dietelako erlijiozko praktikak utzi dituztenek; ez lukete, hala ere, Jesukristo baztertu behar. Beste erreferentzi guneak galtzen direnean, erabakigarria izan daiteke Jesusekiko lotura ez galtzea. «Zorionekoa Harengandik erorbide hartzen duena!» (Mt 11,6).

• *Jainkoaren egiazko aurpegia*

54. Gutako bakoitzarengana iristen den Jainko-irudia, tradizio, heziera eta giro erlijioso jakin batez moldatua iritsi ohi da; batzuetan distiratsu eta argitsu; besteetan, berriz, bada-ezpadako ikuspegi arriskutsuekin. Nola garbitu Jainko-irudi hori eranskin okerretatik? Nola eman txikitandik entzun dugun «Jainko» hitz horri eduki egiazkoagoa? Nola bete biziaz, axaleko geure fedez eta txepelkeriaz hustu dugun hori?

Lehenengo gauza Jainkoari Jainko izaten uztea da. Hura txiki ez bihurtzea gure burutazio eta kalkuluekin. Gudan handi eta onbera den gutzia baino handiago eta onberago izaten utzi Hari. Haren irudia gure kaxkarkeria eta erresumina oinarri hartuta ez egitea. Baizik eta *Jesusi jarraituz* bilatzea Haren egiazko aurpegia. Gizon-emakume askoren erlijio-ikuspegia susmo txarrez eta fidagaiztasunez bete dago; askorentzat Jainkoa izaki mehatxatzaile eta iluna da; erlijioa, berriz, mundu korapilatsu eta tristea; horrelakoek Jesukristorengan eta Haren Ebanjelioan aurkituko lukete, gizakiaren Aita, Adiskide eta Salbatzaile den Jainkoaren Berri Ona.

Orain dela urte batzuk, *Jesukristogan Jainkoagan sinestea gaur egun* izenburupean egin genizuen Pastoral Idazki hartan, Jesukristogan agertzera eman zaigun Jainkoaz hitz egiten genizuen, esanez: gizakiaren salbamena besterik bilatzen ez duen Jainkoa dela; biziaren aldekoa den Jainkoa; gizakiaren beharrik funtsezkoenetatik hurbil dagoena; pobre eta baztertuen Jainkoa; gure historian zuzentasun, senidetasun eta bakezko erreinua ezarri nahi duen Jainkoa; gure salbamenerako gurutziltzatua; piztuerara eramaten duen Jainkoa; eta Hirutasunezko misterio ulergaitzaren maitasuna den Jainko honengan jar dezakegula, esaten genizuen, gure azken itzaropena¹².

¹² Ikus *Jesukristoren Jainkoagan sinestea gaur egun* gure Pastoral Idazkia, (1986, Gari-zuma-Pazkoa), 29-50. zenb.

- ***Sinestera deituak***

55. Jesukristo bihotz-berritzera egiten zaigun deia da. Jesusen mezu guztia hitz hauetan laburbil daiteke: «Ordua bete da. Hurbil da Jainkoaren erreinua. Bihotz-berri zaitezte eta sinets Berri Ona» (Mk 1,15). Zerbait berria hasi da. Jainkoa hurbil dago. Zuzentasun, askatasun, maitasun eta senidetasunezko Haren erregealdia hastear dago. Guri eskatzen zaiguna *Berri On honetan sinestea* da. Geure aldetik erantzutea. Jainkoa onartzea. Barru-barrutik sinestea, guztiok Aita beraren seme-alaba garela, eta gure zoriontasuna eta azken jomuga senide bezala bizitzea dela.

Beraz, holako edo bestelako bekatuaz damu izatea eta hori zuzentzea baino askoz gehiago da. Sinesgabe izatetik fededun izatera egiten zaigu dei; axola ez izatetik erabakia hartzera; bakardadetik Jainkoaren lagun izatera; geurekoi bakarti izatetik senide-maitasunera; itxaropen ezatik Jainko gure Salbatzailearengan uste ona jartzera.

Bihotz-berritze hau ez da behartutako zerbait. Gure bizitza gizatiarragoa eta zoriontsuagoa egin nahi duen Jainkoa onartzen goazen heinean, geure barruan gertatzen den aldaketa da. Bihotz-berritze honetan, lehenengo gauza ez da, inondik ere, «hobea izaten» saiatzea; guztiok onberagoak eta gizatiarragoak izatea nahi duen Jainko horrengana zabaltzea da garrantzitsuena. Horregatik, Jainkoarengana itzultzea ez da gure bizitza mugatu eta estutzen duen gauza tristetia. Ez da «bizitzeari uko egitea», baizik eta gizatiarrago bizitzeak zer esan nahi duen ulertzen hastea. Nola eta zer eratan bizi ulertzea. Badugu Aita, eta Berarengan izan dezakegu uste ona. Dei hau bazter dezakegu, egia da. Baina horrela geure bizitzaren azken helburua huts egin izango dugu.

Bilaketa-jarrera

56. Jainkoa beti dabil gure bila. Bai urruti dagoena bai Haren ondoan dagoena, biak bilatzen ditu. Baina Hura aurkitu, graziaren laguntzaz bihotz osoz bilatzen duenak bakarrik aurkitzen du. Sarrera ematen zaion bizilekuan bakarrik «bizi» ohi da. Horregatik agintzen zuen Jesusek: «Bila ezazue, eta aurkituko duzue; jo atea, eta zabalduko zaizue... Bilatzen duenak, aurkitzen du; eta atea jotzen duenari, zabaltzen zaio» (Mt 7,7-8).

Askorentzat, gaur egun Jainkoa estalia bezala dago. Mila eratako aurreiritzi eta zalantza artean ezkutatua. Berarekin topo egiteko ez dira aski betiko hitz-jario aspergarriak; askori ezer gutxi esaten dio eliztarron hizkuntzak. Bestalde, geure bizitza txepel eta arina izan daiteke eragozpenik handiena. Garrantzitsuena bilaketa-jarrera hartzea da. Jainkoak zuzentzen du, eta indar ematen, bilaketa honetan. Bera «Argi da zure oinentzako, argitasun zure bideentzako» (Sal 119. [118.], 105). Gehiago oraindik. Dei guztiei ezentzuna egiten badiezu eta zure fedeak itzaltzen jarraitzen badu ere, Jainkoak ez zaigu utziko.

- ***Bilaketa pertsonala***

57. Jainkoarengana joateko beharrezkoa da esperientzia pertsonala. Bestela, pertsonak «entzundakoaz» bakarrik hitz egiten du; entzuten du, baina ulertu ez;

eta dena zalantzan jarriz bukatzen du. Eztabaida teorikoek eta besteen argudioek ez dute baliorik. Norberak egin behar du bere bidea; norberak bizi behar du bere esperientzia.

Erljioa bizitzara eramateko era konkretuan aurkitzen ditugun faltsukeria eta koherentziarik eza kritikatzeko ez da nahikoa. Jainkoari buruzko irudi oker eta haur-girokoak desegitea ez da aski. Beharrezkoa da norberak Jainkoaren egiazko aurpegia bilatzea; uste osoz Harengana zabaltzea. Orduan bakarrik hasten da ikusten bidea: egoera nahasi eta ilunean aurkitzen ginen, eta Jainkoaren Misterioa garbia eta xumea da; urrutiko mundu arrotz batean bizi zela uste genuen, eta Jainkoa hurbil dugu; argudio bidez frogatu nahi genuen Jainkoa badela, eta ez genekien Haren adiskidetasuna gozaten.

Fedea, urteetan zehar, betebeharrak bat bezala edota atseginerako eragozpen gisa bizi izan denean, esperientzia pertsonal honek bakarrik zabal dezake gure barrua: norberak egiaztatu ahal izateak, alegia, nahiz eta lehen pauso apala besterik ez izan, fedea on egiten duela, gauza ona dela sinestea, Jainkoa izan daitekeela niretzat eragin-indarrak bizkorgarriena era egokian eta itxaropentsu bizitzeko. Gizakiak, azken batean, berari bete-betean bizitzen laguntzen dion hartan sinesten du.

• *Jainkoenganako gogo*

58. Jainkoa benetan bilatzen duena, iluntasun, zalantza eta ziurtasun ezaz inguratua aurkitzen da, behin baino gehiagotan. Baina bilaketan jarraitzen badu, barruan Jainkoaganako gogo eta sinetsi nahia sentitzen duelako da; zalantzak, nekeak edota bekatuak berak ere desegin ezin dezaketentzen sentipena. Horregatik, Jainkoa bilatzeko eragozpenik handiena axolarik eza da; geure bizitzaren azken egia bilatzera egiten zaizkigun dei guztiei belarriak ixtea; benetan eta zintzoki bilaketari ekiteko beldurra.

Gogo dagoenean dago Jainkoaren bilaketa. Jainkoaganako gogo horrek eraldatu egiten ditu zalantzak, iluntasunak eta galderak, eta abiapuntu bihurtzen da bilaketa sakonagora jotzeko; eragin-indarra ematen du, fede gehiagoz Misteriora zabaltzeko. Gizakiak Jainkoaren aurrean egin dezakeen gauzarik bidezkoena bilatzea da; inolako aterik ez ixtea; inolako deirik ez baztertzea. Bilaketan jarraitzea, agian bere indarren eta fedearen azken hondarrekin; behar bada, bere kaxkarkeria eta etsipenetik. Askotan, gizakiak Jainkoari eskain diezaiokeen gauza bakarra bere gogo da.

Gure fedea ez da hazten Jainkoari buruz hitz eginez edota «erlijioari buruz» eztabaidak eginez; Berarengana zabalik egoteko gure gogo hazten denean baizik. Jainkoaganako gogo hau otoitz bihurtzen da beti: «Jauna, ikus dezadala» (Mk 10,51). Horrela bilatzen duenari, Jainkoa ez zaio ezkututzen. Bilaketa horren barruan dago Jainkoa.

• *Argaltasunez eta zalantzaz*

59. Egia esan nahi badugu, denok aitortu beharra daukagu, alde handia egon ohi dela la beti, gu garela uste dugun eta egiaz garen fededunaren artean. Gure fedea, askotan, kutsatua egon ohi da ohikeriaz eta axolagabekeriak, edota ahul-

dua zalantzaz eta ezbaiaz. Ez dugu etsi behar. Jainkoa bilatzen jarrai dezakegu, «itsumustuka bederen» (Ap Eg 17,27).

Jainkoa gure ahultasuna eta zalantzak baino handiagoa da. Ez dugu geure zalantzak argitu zain, edota geure ahulezia indartu zain, egon behar, Jainkoaren aurrean egiaz bizitzeko. Onartu egin behar dugu apalki, iluntasuna gure «bide-lagun» izatea; baita gure bihotz-ahultasuna ere. Sinesteko gogoia berehala egiazko fede bihurtzerik ez badago ere, Jainkoak ezagutzen du «bihotz-zintzotasuna», eta bere lanean jarraitzen du. Gogora ditzagun Jesusen hitzak: «Egia-rena denak entzuten du nire hitza» (Jn 18,37).

Barnekoaren arreta

Jainkoarekin topo egiteko beharrezko da norberaren barneraino sartzea eta geure barruan gordetzen den misterioaren aurrean jartzea. Jainkoa bere barruan aurkitzen ez duenak, ez du inon aurkituko. Baina, han sumatzen badu, aurkituko du bizitzaren erdian ere. Beti kanpo aldera bultzatzen gaituen kulturaz moldatuak gaudenok, «barnegaitasuna» garatu behar dugu, hau da, nork bere bizia bere barrutik ulertu eta bizitzeko gaitasuna.

• *Norberarekin topo egitea*

60. «Nor bere barrutik» bizitzeak ez du esan nahi bere baitan bildurik eta bizitzara itxirik bizitzea; pertsonak Jainkoarekin topo egin dezakeen «lekua» aurkitzea esan nahi du, handik hasita bere bizitza osoari zentzu emanaz, eta oinarria eta azken helburua jarrita, bizitzeko. Horretarako, beharrezko da geldialdia eta isilunea egitea, eta geure barrua berreraikitzeke ezinbesteko den nor bere baita-ratze-giroa sortzea.

Garrantzitsuena geure buruarekin aurkitzea da. Bere buruarekin eta bere misterioarekin aurkitzen ez denak nekez aurkituko du Jainkoa. Nor bere buruarekin aurkitze hau, pertsona bere barruko nahaspila txukuntzera ausartzen denean bakarrik gerta daiteke, horretarako gizaki orok bere buruari egin behar dizkion funtsezko galderak eginez: «Zeren hila nabil ni bizitzan?, zertaz ardura-tzen naiz?, zer itxaropen dut? non jartzen dut nik neure azken zoriona?».

Galdera hauek jasan ezinak gerta dakizkiguke. Erraz senti dezakegu hustasuna, nahi eta ezina, etsipena edota itxaropen eza. Agian, gure bizitza hondatzen ari diren jokabideak azalduko dira gure aurrean. Ez da hori guk nahi izango genukeena. Azken batean, zerbait hobea, sendoagoa, pozgarriagoa nahi dugu. Zer egin? Beldur ematen digu azkeneraino joateak eta geure bizitza benetan hartzeak.

Ez dugu ahaztu behar, Jainkoa orain ere gure inguruan dugula isiltasun horretan. Horregatik, pertsonak, bere baitara sartzean, bakardade sakona eta hustasuna bakarrik aurkitzen dituenen ere, «zerbait gertatzen da» berarengan. Geure argaltasuna nabaritzeak, geure etorkizuna ezagutu eta menperatzeko gai ez izateak, edota gure bizitza alde guztietatik betetzen duen misterioa nabaritzeak, transzendentziara gehiago zabaltzera eraman dezake pertsona, nahiz eta oraingoz berorri izen konkretu bat ematen jakin ez.

- ***Jainkoaren misterio pertsonala onartzea***

61. Gaur egungo gizakia misterioaz ahazten ari da. Mendebalak izugarri garatu du arrazoimen tekniko, baina misterioari antzemateko jakinduria galtzen ari da. Hala ere, misterioa geure bidelagun dugu. Bizitzan guztia ez da «enigma» eta «arazo». Bizitzak azken misterio batera zuzentzen gaitu. Gizakia gai da errealitatea zientifikoki ezagutu eta menperatzeko. Baina ez da gai bere sorrera eta azken jomuga ezagutu eta menperatzeko. Guztia ez da arrazoian bukatzen. Bidezkoena azken misterio honen ikuspegian apalki ibiltzea izango litzateke.

Izaeraren azken misterioaren aurrean hainbat jarrera har daiteke. Misterioak *ateismora* eramán gaitzake. Jainkoa ez da gauza nabaria. Jainkoa gure munduko beste gauzak eta gertaerak bezala frogatzerik ez dagoela eta, pertsonak Jainkorik ez dela atera dezake ondorio. Bakarrik gaudela. Guk ulertu eta frogatu ez dezakeguna ez dela errealitate. Ez dagoela besterik ezer.

Misterioak, alderantziz, *amore ematea* esango genukeen jarrera erlijiosora eramán gaitzake, baina Jainko pertsonalarengana zabaldu gabe. Hori da ekialdeko erlijioetako esperientzia. Gizakia misterioan murgiltzen da bere izaeraren sakontasuna bilatu nahian, baina ez dio deirik egiten Jainko pertsonal bati. Misterioan barneratzen da, besterik gabe. Salbatzen duena ez da Jainkoa. Gizakia bera da bere burua askatzen duena, bere izatearen hondo ikergaitzera sartuz.

Baina misterioak esanaraz dezake giza bihotzean *Jainko pertsonalari dei egiteko* joera ere. Hori da kristauaren jarrera. Hainbat erlijioek honela dio: «Munduaren misterioari Jainkoa deritza.» Jesusek zehatzago dio: «Jainkoaren misterioa Maitasuna da.» Errealitatearen sakona ez da «zerbait», Jainko Aitarengan maitasuna da. Horregatik, kristauak ez du soil-soilik bere burua misterioaren baitan uzten. Aitarengan jartzen du bere uste ona. Badaki Jainkoak onartu eta maitatua dela bera, eta Jainko honentzat ez daukagula «*Aita*» baino izen egokiagorik. Errealitatearen misterio barruan, kristauak Aita baten maitasuna sumatzen du: «Ene Jainko, Zugan dut uste on; ez nadila lotsa» (Sal 25. [24.], 2).

Egibidean ibili

Funtsean, denok konturatzen gara, Jainkoaren misterioaren aurrean egoiena egibidean bizitzea dela. Horregatik, gaur egun ere, erlijio-krisiaren erdian, erabakigarriena «egiarena izatea» da (Jn 18,37), eta «egia betetzea» (Jn 3,21).

- ***Zintzo Jainkoarekin***

62. Jainkoaren egia ez dago adierazpen edota dogma batean gordea. Ez da liburu edota fede-aitormenetan aurkitzen. Egia esan, arazoa ez da Jainkoaren egiaz «jabetzea», baizik eta Haren egiari gure jabe izan dadin eta eralda gaitzan uztea. Jainkoarengana bihotz garbiz hurbiltzen garenean bakarrik egin daiteke hori.

Horretarako, beharrezko dugu, osasungarria den susmo bat izatea geure buruei egiten dizkiegun iruzur eta zuriketen aurrean. Ez da on okerreko esaldi

batzuen aginduetara bizitzea: «Denak berdin dio», «ondo aurkitzea da kontua», «ez dago ezer jakiterik». Aitortu beharrak dauzkagu geure koherentziarik eza eta kontraesanak, eta, batez ere, Jainkoaren aurrean jarri behar dugu. Bera eta ni bakarka, beste inork sarrerarik ez duen puntu hartan. Mozorro-jantzi guztiak alde batera utzirik. Nolatan joan mozorrotuta Jainkoaren aurrera? Honela dio san Agustinek: «Jainkoari gezurra esan diezaiokezu, baina ez daukazu Hari iruzur egiterik. Beraz, Harekin gezurretan ari zarenean, zeure buruari egiten diozu iruzur».

Egiazko fedearen muinean «egia apala» dago beti. Ez dago Jainkoaren hurbiltasuna sentitzerik apaltasunean izan ezik. Bada liturgi otoitz eder bat, jarri haur hau ondo adierazten duena: «Erruki zakizkigu, Jauna, guk ez baitakigu, ez Zu gabe, ez Zurekin bizitzen». Hori da egia. Ezin gara bizi Jainkoa gabe, eta ez dugu asmatzen Harekin bizitzen.

- ***Bekatua aitortu***

63. Gezurpetik ateratzea ez da erraza, urteak daramatzagunean harreman ari-nean geure buruarekin eta Jainkoarekin. Baina Jainkoak gure bila jarraitzen du, agian «atsegin ezaren» bidez. Bada zerbait atseginez eta pozik egotea galarazten diguna. Gehiago oraindik. Beti izaten dira grazi uneak, barruko argi batek saihestezina den distiraz argitzen gaituenekoak; gure bizitzan ontasun-, edertasun- eta maitasun-falta adierazten digun argia baita. Bekatu-kontzientzia hau osasungarria dugu. Duintasunera eramaten gaitu. Bestalde, gu ez gara dena markurkeria. Beti daude guran ontasun, edertasun eta onberatasunera zabalik dauden zirrikituak. Zirrikitu horietatik hurbiltzen zaigu Jainkoa.

Jainkoaganako bidean bat baino gehiago geldiarazten duena bekatu-kontzientzia da. Nola inguratu Jainkoagana norberaren kaxkarkeria eta huskeria ezaguturik? Batzuetan, Jainkoa gu bezain txikia dela iruditzen zaigu. Hark Bera maite dutenak bakarrik maite dituela, alegia; ez duela axolarik hartzen axolagabe direnentzat; bazterrera uzten dituela Bera baztertzen dutenak. Hori ez da horrela. Jainkoa maitasun hondogabe eta neurrigabea da beti. Maitasun hutsa. Gure bekatuan bertan, Jainkoa gure bila dabil, guri deika, gu maitatzen. Hori agertzen da Jesusengan: «Ni ez naiz zintzoei dei egitera etorri, bekatariei baizik» (Mk 2,17).

Honek ez du esan nahi bekatua huskeria denik, edota ondorioak ez dituenik gure bizitzan. Jainkoa ez da urruntzen. Haren maitasun barkatzailea hor dago beti. Baina gure bekatuak itxi egiten gaitu geuregan, eta Haren graziara zabaltzea galarazten digu. Zintzo eta apalki Jainkoaren aurrean damaturik agertzen garenean egiten dugu topo Harekin: «Ene Jainko, erruki zakizkio bekatari honi» (Lk 18,13).

- ***Barkamenaren esperientzia***

64. Fedea barkamenaren esperientziarekin bakarrik hazten da. Jainkoagandik urrutiratu diren pertsona asko, esperientzia honek eraman ditzake berriro sinestedun izatera. Alde batetik, erabaki zintzoak: «Banoa nire Aitarengana» (Lk 15,18). Bestetik, barkamena pozik entzuteak: «Seme-alaba, barkatzen zaizkizu zeure bekatuak» (Mk 2,5). Esperientzia honek Adiskidetzearen

zeure bekatuak» (Mk 2,5). Esperientzia honek Adiskidetzearen sakramentuaren erarik egiazkoenean aurki dezake bere adierazpenik sakonena.

Sinesteduna, gizaki oro bezala, graziari esker bizi da, ez bere merezimen-
duei esker. Bere fedea Jainkoaren barkamenean janaritzen da, eta eraberritzen.
Horregatik, sinesmenaren ezaugarria ez da norbera aski izatea, eskari-deia egi-
tea baizik: «Erruki zakizkit, Jainko, duzun maitasun handiaz. Garbi nazazu ze-
haro neure hobenetik, ikuz nazazu neure gaiztakeriatik. Bihotz garbia, Jainko,
sor ezazu niregan. Arnasa bizkorra berri ezazu nire barnean. Zeure salbamen-
aren poza bihuriezadazu» (Sal 51. [50.]).

Beldurretik konfiantzara

Fedeak, behin eta berriz esaten ari garenez, Jainkoari uste onez emandako
«baietzean» du oinarria. Sinestea bizian uste on osoa izatea da; biziaren oinarri
eta euskarri den Harengan uste on izatea. Nola berreskuratu uste on hori, ahul-
durik edota erdi itzalirik dagoenean?

- ***Jainkoagan uste on izatea***

65. Bizitzaren aurrean har daitezkeen jarreraren artean, bat hau da: *etsipena*.
Bizi dugunarekin konformatzea, alegia, mugatu izatea onartuz. Horretarako,
jakina, edozein transzendentzia-hots isilarazi beharra dago; Misterioagandik
datorkeen dei orori ezentzuna egin beharra. Beste jarrera bat *desesperazioa* da.
Nire bizia neure ahaleginez «salbatu» nahi izatea; eta, behin eta berriz, ikustea,
neure buruari nire izaerak nahi lukeen guztia ematerik ez daukadala. Bada beste
jarrera bat: *uste on osoa*. Etsipenean ez erortzea. Misterioaren barrurik sakone-
nera zabaltzea. Jainkoa Salbatzaile gisa onartzea.

Jarrera hau ez da berez sortzen. Jainkoarengan gure uste ona jartzea, erro-
tik eta baldintzarik gabe hartutako erabakia da; ez da nolnahi sortzen guran
froga eta argudio bidez, Pertsonak bere uste ona Jainkoarengan jartzen due-
nean, arrazoi eta froga horiek eman diezaioketeen guztia gainditzen ari da. Gau-
zak garbiak direnean, erraza da ziurtasuna: bi eta bi beti lau dira. Zenbat eta
sakonagoa izan misterioa, orduan eta gehiago dugu beharrezkoa zabalik egotea,
barrutik prestatzea, geure lokarrietatik aske izatea, bihotz osoz onartzea, edo-
zein dei entzutea, denik eta apalena izanik ere.

Behar-beharrezkoa da entzute-jarrera hau. Askotan hitz egin ohi dugu
Jainkoarekin «topo egiteaz»; baina irudi honek gainditu egiten du erabat gehie-
nen fede-esperientzia; badira sinestedunak etsipendurik geratzen direnak, be-
raiek bizi dutenari izen hori ematerik ez daukatelako. Liburu Santuak batez ere
Jainkoari «*entzuteaz*» hitz egiten du. Entzuteak hobeto adierazten du gonbitea,
bilaketa arretatsua, bihotza uste onez zabaltzea. «Entzuten» dakigunean, or-
duan esnatzen da Jainkoaganako gure uste ona.

- ***Beldurretik maitasunera***

66. Baina askori konfiantza hori galarazten diena beldurra da. Lehen ere esan
dugu. Jainkoa, batez ere, mehatxugile, beldurgarri eta arriskutsua den norbait

gisa azaltzen zaie. Beldur hau ez da Bibliak esaten duen Jainko santuarenganako begirunea. Oinarririk gabeko beldurra da, Jainkoaren maitasuna desitxuratzen duena; hortik sortzen den erlijioak, Jainkoaren aurrean garbi azaldu beharri ematen dio garrantzia, aginduak ez hausteari, hobenak ordaindu beharri, horrela Jainkoaren haserretik babesteko. Zoritxarrez, hau da, neurri batean, askok ezagutu duen erlijioa.

Ondotxo bestelakoa da Jesukristogan Jainko Aitaren egiazko aurpegia aurkitu dutenen esperientzia; maitasun-misterio liluragarri gisa ezagutu baitute, gizakiaren ongizate eta zorion osoa nahi duen eta bilatzen duen bakar gisa. Jainkoaganako dohainikako maitasun honetan sinesteak sortzen duen erlijio-motan Jainkoa goratzea da garrantzitsuena, Berari eskerrak ematea, Haren ontasuna abestea. Jainkoa ez da mehatxua. Aringarri eta pozbide da Bera hor dagoela jakitea, beti gure alde, beti gure ona bilatzen, gure bizitzan beti kemena eta bizi-poza jartzen.

Sinestedun askok gaur egun egin behar duten bihotz-berritzea, Jainkoaganako okerreko beldur horretatik dohainikako Haren maitasunean uste on izatera pausoa ematea da. Sinesmen gehiagoz entzun behar dugu misterioz eta agintzariak bete den Jesusen agindu hau: «Aitak Ni maitatu nauen bezala, hala maite izan zaituztet Nik. Zaudete nire maitasunean» (Jn 15,9). Adiskide den Jainko hori aurkituz bakarrik esnatu ahal izango da askoren fedea. Hala dio san Agustinek: «Jainkoagandik hurbil edota urrun bizitzea ez da leku kontua, maitasunarena baizik. Maite al duzu Jainkoa? Hurbil zaude Harengandik. Ahaztu egin al duzu? Urrun zaude Harengandik».

Horrelako fedea ez gaitu lasaikeriara eta dena ontzat ematera eramaten. Alderantziz, Jainkoak horrela maite duela dakienak bakarrik har ditzake bere gain, fedea dituen funtsezko eskakizunak. Jainkoarekiko adiskidetasuna gozatu duena bakarrik bihotzberri daiteke. Gordetako altxorra «aurkitzen» duenak bakarrik «saltzen ditu dauzkan gauza guztiak», hura eskuratzeko (Mt 13,44).

• ***Eskerrak eman bizitzea***

67. Esker ona gizakiarengan sakonki zainak botata dauzkan sentipena da. Bi-ziaren erregaliaren aurrean izan daitekeen jarrerarik nobleena, eta Jainkoaganako egiazko fedearen ezaugarri berezkoenetakoa. Gudan Jainkoari eskerrak emateko gaitasuna hazten den neurrian hazten da gudan fedea. Jesusek sendatutako hamar lepradunetan, «Jainkoa goretsiz» itzuli zenak bakarrik entzun zituen hitz hauek: «Jaiki zaitez, eta zoaz. Zure sinesmenak sendatu zaitu» (Lk 17,19). Jainkoa goretsi eta Berari eskerrak emateko gai ez denak sinesmen motela bizi du oraindik.

Eskerrak eman ahal izateko, gai izan behar da, lehenengo, bizitzan –neurean eta besteenean– dagoen ona, baikorra eta ederra jasotzeko, nahiz eta gizakiarengan sufrimen, zuzengabekeria eta kontraesanak egon. Beharrezko da, gainera, on guztien iturri eta sorburu den Jainkoagandik datozen dohain gisa hartzea. Esker onak Jainkoari gure poza eta goralpena azaltzea eskatzen du, Haren handitasun eta maitasunagatik. Fededun edota axolagabe, sinesmen sendoko nahiz zalantzakoa izan, guztioi san Pauloren hitzak esaten dizkizuegu: «Eman

eskerrak beti Jainkoari; hau da zuentzako Jainkoaren nahia Kristo Jesusengan» (1 Ts 5,18).

Non aurkitu Jainkoa?

Hau da hainbatek egiten duen galdera. Egia esan, bide asko dago Jainkoagana zabalik egoteko. Pertsona adinbat bide. Bakoitzaren bizitza bide bat izan daiteke, gizaki ororen sakonean adiskide pisa dagoen Jainko horrengana. Orain dela urte batzuk, zenbait iradokizun egiten genizkizuen, Jainkoa giza bihotzean, izadian, bizitzako gertaeretan, sufrimenean edota pozaldietan bi latzeko. Orain gehiago sakondu nahi dugu zenbait esperientziatan¹³.

• ***Biziaren iturrian***

68. Jainkoa biziaren iturrian bilatu behar da beti. Hori da norabide egokia. Hainbat gertaera, esperientzia edota pertsonetikiko topaketaren bidez, iturrirantz joan behar dugu. Han dago Jainkoa. Gizakia lanean edota borrokan ari denean, maitatzen, gozatzen edo sufritzen duenean, bizi eta hiltzen denean, ez da horretan bakarrik ari; lagun du Jainkoa; Berak eusten dio. Gu arretatsu egongo gara edota inolako arretarik ez diogu jarriko, harrera ona egongo diogu edota arbuia; baina Jainkoaren Espiritua hor dago, beti «biziemaile».

Funtsezkoa denaren aurrean arinki ez igarotzea, hori da garrantzitsua. Entzutea. Bizitza gizatiarrago eta askeagoaren sorburu, hazkuntza eta garapen den guztiaren aurrean erre egotea. Hor dago Jainkoa: zintzo eta bihotz zabalago bizitzeko gogoan; bizikidetzaz zuzen eta baketsuagoa lortzeko ahaleginean; besteekin errespetuzko harreman hurbilak izatean; barre-garbitasun handiagoaren bilaketan; gizaki ororen duintasuna kementsu defendatzean; eman eta hartu, maitatu eta besteen maitasuna hartzeko gaitasunean; sufritzen dagoen behar-tsuaren zerbitzu eta solidaritate-jarreraz hurbiltzean; eraberritu eta itxaropenean bizitzeko gaitasunean, nahiz eta nekea, bekatua eta bizitzako kontraesanak hor egon.

• ***Eguneroko bizitzaren esperientzian***

69. Ez dago aparteko esperientzien ametsetan ibili beharrik. Begi garbi eta xumeekin, eguneroko bizitzako esperientzia arruntetan suma dezakegu Jainkoa: ulertu ezin ditugun geure nahigabeetan; aseezina den gure zorion-gogoan; gure maitasun hauskor eta aldakorrean; gure irrika eta ametsetan; galdera sakonenean; ezkutuko bekatuak uzten digun urduritasunean; gure erabaki arduratsuenetan; bilaketa zintzoan.

Dotrina zaharreko egia hura berreskuratu behar dugu: «Jainkoa alde guztietan dago». Bizitzako mila esperientzia onetan dago, zalantzarik gabe: jaiotzen den seme nahiz alaban; elkarrekin egindako festan; ongi egindako lanean; bikotearen harreman goxoan; lasaitu egiten duen ibilaldian; lagun arteko harreman eraberritzailean; musikaz gozatzean. Zergatik ez bihotza Jainkoarengana jaso eta Berari eskerrak eman?

¹³ Ibid., 57-66. zenb.

Baina han dago Jainkoa esperientzia mingarri eta gogorrenetan ere. Batzuetan geure *bakardadean* suma dezakegu Haren hurbiltasuna. Azken batean, bakarrik gaude guztiok bizitzaren aurrean. Azken bakardade hau Jainkoak bakarrik argi dezake. Bakardade horren sakoneraino sartzen bagara, entzungo dugu, agian, beti bidelagun dugun Adiskide leialaren laguntasuna nabaritzera egiten zaigun gonbitea. Zergatik ez Berarengana zabaldu?

Beste batzuetan, geure *kaxkarkerian* aurki dezakegu Jainkoa. Urteak badoaz, eta betiko pobretasuna. Gauzak aldatzen dira, baina gu ez gara aldatzen. Eta nekea etortzen da, barrutik zahartzea, ezina. Sinesteko zailtasuna beti, eta maitatzeko eragozpenak. Beti bekatu bera. Hor ere badago Jainkoa. Errespetuz, maitasunez eta gurekin bat eginez. Zergatik ez Berari dei egin?

Gauzak argitu ezinik zalantzan gabiltzanean ere suma dezakegu Jainkoa. Dena koloka jartzen dela dirudienean eta ezertan eta inorengan sinetsi ezin dugunean, Jainkoa geratzen da. Inork lagundu ezin dugunean, irtenbiderik ez dagoela eta dena alferrik dela dirudienean, hor dago Jainkoa. Ez hasi fededun zaren ala ez pentsatzen. Jainkoak ulertu eta maitatu egiten du, eta dena onerako bidean jartzen. Zergatik ez Berarengan uste ona jarri?

Gezurra badirudi ere, giza bihotza sufrimenean ere zuzen daiteke Jainkoarengana. Gaitzak, fisikoak nahiz moralak, urratu egiten gaitu. Ez gara sufritzeko jaiok. Etxeko norbaiten heriotza, sendaezina den gaixotasunaren albistea, hutsean geratzen den maitasuna, galdu egiten den asmo ederra... etsipena sortaraz diezaguketek gertaerak dira; baina gure mugapena errukirik gabe erakusten diguten esperientzia ere badira, eta erantzun sakonagoa ematera egiten digute dei. Malko artean ere suma daiteke Jainkoaren hurbiltasuna: Ez izan beldurrik. Ni zurekin izango naiz. Ni nauzu zeure Jainko eta Salbatzailea. Ederra zara nire begietarako, eta maite zaitut (Is 43). Zergatik ez esan Berari gure nahigabeak? Zergatik ez bila Beraren salbamena?

- ***Esperientzia «trinkoagoak»***

70. Eguneroko bizitzan zehar, izan daitezke une bereziak, Jainkoaren hurbiltasun hori nabariagoa dela konturatzera dei egiten digutenak. Bizitzak berak, sakontasunez bizitzen denean, eskaintzen dizkigu esperientzia trinkoagoak, geure mugetatik urrutirago begiratzera eragiten digutenak.

Horrelako zerbait gerta daiteke, geure lan eta neke-minen artean, nondikakoa den ez dakigun indar bat sumatzen dugunean bizitza duintasunez eramateko; barkamena eskaini dugunean, inork hori aintzakotzat hartu ez badu ere; geure laguntza eskaini dugunean, nahiz eta gure jokabide hori gorai patua ez izan, eta, agian, geure barruan atseginik ere ez izan; erabaki zintzo bat hartzeagatik arriskuan jarri garenean, kontzientziak hori eskatzen zigulako, besterik gabe, eta inori horren azalpena egiterik izan gabe; zerbait «maitasun hutsez» egin dugunean, nahiz eta gure jokabidea zentzurik gabea eta inozoa iruditu; gaitza etsipenean erori gabe eramaten dugunean, geure esku ez dagoen «zerbaitek» indar ematen digula; ilunpean otoitz egiten dugunean, «jakinik» badela Norbait entzuten diguna, nahiz eta hori frogatzerik ez izan.

- ***Maitasunaren esperientzia***

71. Ez dugu ahaztu behar, Jainkoa Maitasuna dela. Horregatik, maitasuna edota egiazko adiskidetasuna izan daiteke Jainkoa sumatzeko esperientziarik ederrena. Maitasuna den Jainko horren irudira sortuak izan garenez, maitasun-esperientzia izan daiteke abiapuntua –ez guztiz borobila, baina bai ona– gure bihotza egiazko Jainkoarengana jasotzeko.

Bi pertsonak, berekoikeria eta menpekerian erori gabe, elkar benetan maitatzen duten neurrian, Jainkoaren beraren maitasuna nabaritu ahal izango dute, ez agian indartsu, baina bai egiaz, beren maitasun-harreman horretan. Esperientzia horretan sakontzen badute, sumatu ahal izango dute, agian, beraiek elkarri eman diezaioketeena baino «zerbait» gehiago dagoela maitasun horretan; beharbada, sumatu ahal izango dute, Maitasuna dela gure jatorriaren eta jomugaren iturri ezkutu eta misteriotsua.

Elkarrenganako samurtasunaren sakonean, lagunarteko elkarketa orotan, solidaritate zabalean, giza sexualitatean sustraitutako azken nahian, senar-emazteen maitasunean, guraso eta seme-alaben arteko maitasunean, edozein eratako maitasunaren barruan, ez al da, nolabait, Jainkoaren maitasun sortzaila sumatzen? Honela dio san Joanek: «Jainkoa ez du inork inoiz ikusi. Elkar maite badugu, Jainkoa gurekin dago eta Haren maitasuna bere betera iritsi da gure artean; honetan ikusten dugu Berarekin gaudela eta Bera gurekin: bere Espiritua eman baitigu» (1 Jn 4,12-13).

- ***Beharreak dagoenarenganako maitasuna***

72. Baina Jainkoa ez da nolana hiko maitasuna. *Dohainikako* maitasuna da. Horregatik, Jainkoagana hurbiltzeko biderik onena, beharreak dagoen senidearengana dohainik zabaltzea da. Oker egotea izango litzateke, ordain bila dabilen maitasunean bakarrik geratzea. Bihotz-zabaltasunez bestearen ona bakarrik bilatuz maitatzen ikasi beharra daukagu, mundu zuzen eta solidario baten alde lan eginez eta behartsuari zerbitzu eginez. Esan dezakegu, Jainkoa aurkitzeko biderik apartekoena pobrea dela, behartsua, interesagatik denek maitasuna ukatzen diotena. Ordainik eman ezin digun lagunurkoarenganako egiazko maitasun dohainikakoa, beste bide eta esperientzia guztien irizpide erabakitzaile eta garbitzaile gertatzen da. Jainkoa ez dugu geuk nahiko genukeen lekuan bilatu behar, ondoen aurki daitekeen lekuan baizik.

Azken judizioari buruzko Jesusen parabola ezaguna gogoratu nahi dizuegu. Kontakizunaren arabera, «Aitarene bedeinkatuak» esaten zaie behartsuei on egin dietenei, goserik, arrotz, biluzik, kartzelan edota gaixorik daudenei on egin dietenei, alegia; horrela jokatu badute ez da arrazoi erlijiosoengatik izan, sufritzen duenarenganako errukiz eta maitasunez baizik. Besteek, berriz, «madarikatuak» esaten zaie, ez sinesgabe edota erlijiorik gabeak direlako, besteen sufritzen aurrean bihotzik izan ez dutelako baizik (Mt 25,31-46).

Jesusengan gizon egin den, eta dohainikako maitasuna den Jainkoa, hain zuzen horregatik, behartsuarekin bat egina dago. Txiki horietako bati egina, Berari egiten zaio. Horregatik, sufritzen duena maitatzea da Jainkoarengana daraman bidea. Erlijioak ez du inoiz ordezkatu ahal izango maitasun honen eza.

Askok zalantza arteko fedea bizi, eta Jainkoaganako bideak garbi ikusten ez dituzten une hauetan, Jesusen oinarrizko mezu hau gogoratu nahi dizuegu guztioi: bada bide bat beti Jainkoagana daramana: behartsuarenganako maitasuna. Guztientzat balio duen eta zabalik dagoen bidea da hau. Bide horretatik goaz sinestedun eta sinesgabe guztiok egiazko Jainkoarengana.

Otoitza berreskuratzea

Ahuldu, era askotara ahultzen eta itzaltzen da fedea; baina berpiztu, Jainkoarengana benetan itzuliz bakarrik berpizten da. Ez dago Jainkoarekin bizi-kiago topo egiterik, otoitza berreskuratu gabe. Zer egin dezakegu?

• Zailtasunak

73. «Otoitz egin, zertarako?». Hori da pertsona askoren lehen hitza. Otoitzak konponduko al dizkit arazoak? Zertarako egin inolako etekinik ateratzeko balio ez duen zerbait? Horrela pentsatu ohi dugu, berehalako pragmatismoaren eraginpean gaudenean. Baina, «gizakia ez da ogiz bakarrik bizi» (Mt 4,4). Gizakiak ez ote du barne-bakearen, barkamenaren, biziberritzeko indarraren, edota itxaropenaren beharrik?

«Otoitz egin? Ez daukat horretarako astirik». Hori da askoren jarrera. Ez dago astirik otoitz egiteko; erabat lanpetuak bizi gara. Hala ote da, gero? «Otoitzarako astirik ez daukat» esateak ez ote du, la beti, beste hau esan nahi: «Jainkoa ez da interesgarria niretzat»? Baina, pertsonak ez badu inoiz astirik «Jainkoaren aurrean egoteko», nola bizi ahal izango da sakonki bere buruaren aurrean? Non janarituko du bere fedea?

«Otoitz egin? Nik ez dakit otoitz egiten. Zer esan diezaioket nik Jainkoari?». Horrela mintzatzen dira asko. Ez dakite nola hitz egin Jainkoarekin. Ezinezkoa egiten zaie. Arrazoiak era askotakoak izan daitezke. Baina, la beti, gauza bat ezkututzen da sakonean: ni neu Jainkoaren aurrean bakarrik aurkitzeko beldurra. Baina, on al da Jainkoaren eta neure kaxkarkeriaren iheska ibiltzea?

Hauen eta antzeko beste zailtasunen atzean, krisi erlijiosoa nabari da funtsean: Jainkoaren okerreko ezagupidea, lokartua edota zalantzan dagoen fedea, gutxiengora murriztua dagoen erlijioa. Horregatik diogu, garrantzi handia duela, Jainkoari uste osoz otoitz egiteak.

• Nondik hasi?

74. Zer egin daiteke, norbaitek urteak daramatzanean egiaz otoitzik egin gabe? Agian, lehenengo eskatzen zaiguna, Jainkoari geure baitan «baietz» esatea da. «Nik itzuli egin nahi dut Jainkoarengana?». «Baietz» txiki eta apal honek ez du oraindik gure bizitza aldatzen, baina Jainkoaren hila jartzen du gure bihotza.

Beharbada, badugu lehen ere behin baino gehiagotan horretan saiatu eta gero betikora itzuli izandako esperientzia. Ez dugu geure ahalmenean oinarritu behar. Oraingoan Jainkoarengan jarri behar dugu geure uste ona. «Erakuts ie-

zadazu Zeuk Zu bilatzen». Metodo, liburu eta formula guztien gaintik, «Jainkoa bilatzea» da garrantzia duena: «Ene Jainko, erakutsiezadazu Zu ezagutzen».

Bilaketa-otoitz honek Jainkoaganako uste on osoz inguratua egon behar du. Berak ezagutzen nau, eta maitasunez begiratzen dit. Jainkoagandik defendatu nahiak edota Hari iruzur egin nahiak ez du inolako zentzurik. Naizen bezala onartzen nau. Ziur egon naiteke Haren maitasun neurrigabeaz: «Zeurea nauzu, onik atera nazazu» (Sal 119. [118.], 94).

Jainkoaren aurrean egiaz *naizen bezalako*a aurkeztu behar dut. Une hone-tan bizi eta sentitzen dudanarekin. Neure gogo eta beharrekin. Neure beldur eta zalantzekin. Neure poz eta atsekabeekin. Geure bizitzaren alderdi den guztia izan daiteke otoitzerako gai: une zoriontsua, ezbeharra, arazoa, premia. Horrela, otoitza, batzuetan, dei-eskaria izango da; besteetan, eskerrak ematea; besteetan, goralpena edota barkamen-eskaria.

Otoitz egiteko ez da beharrezko Jainkoari gauza asko esatea. Garrantzitsuena *entzutea* da. Isiltasun egitea. Beraren aurrean egotea. Jainkoa hurbil daukagula nabaritzeko prestatzea. Gainerakoan, aski dira *hitz gutxi batzuk*, behin eta berriz astiro eta fedez errepikatuak: «Ene Jainko, behar zaitut». «Zuk ezagutzen duzu nire ahulezia». «Erakutsiezadazu bizitzen». «Zu bakarrik zara santu eta handi». «Erruki zakizkit, ni ez naiz aldatzeko gauza». «Eskerrak ematen dizkizut maite nauzulako». «Zure indarra dut beti eusgarri». «Eraman nazazu bide zuzenetik». «Zure salbamenaren poza bihuriezadazu».

• **Gehienen otoitza**

75. Jesusek *beti etsigabe* otoitz egitera dei egiten digunean, emakume apal bat jartzen digu eredu; larrialdian aurkitzen da eta bere eskariarekin jarraitzen du, behar duena lortu arte (Lk 18,1-8). Horrelakoa da askoren otoitza. Otoitz apal eta umila, arreta gutxikoa, sakontasun eta kontenplazio-uste handirik gabea: beren baitan sakontzen ez dakitenean otoitza. Era xumean esaldi batzuk errepikatuz egindako errezoa.

Larrialdietako otoitza izan ohi da, arazoez gainezka dagoenean edota beldurra, etsipena eta bakardadea sentitzen denean edozeinek egiten duena. Ezkonduak krisipean edota seme-alabekin konponezin mingarrian aurkitzen direnean egiten duten otoitza. Ebakuntzako gela aurrean, edota hiltzorian dagoen etxeko norbaiten ondoan egiten den otoitza. Garrantzi gutxi eman ohi zaion otoitz hau da gehienena erlijio guztietan. Hori da askorentzat, norberaren mugapena eta Jainkoa Salbatzaile bakar aitortzeko era konkretua. Otoitz hau Jainkoaren bihotzeraino iristen da; Berak «ezagutzen du» gizakia, eta «entzuten» gizaki orok duen salbazio-beharra.

• **«Gure Aita»**

76. Ikasleek Jesusi otoitz egiten erakusteko eskatzen diotenean, *Gure Aita* irakasten die, ikasleek egunero bihotzez esan behar duten otoitza. Erabiliaren erabiliaz gastatua dagoen, eta otoitz egiten ez dutenek ahaztua ere daukaten otoitz hau da biderik egokiena otoitz egiten ikasteko.

Gure Aita: hau da fededunaren barrutik sortzen den lehen oihua, beronen bihotzean beldurra ez baizik eta seme-alaben konfiantza dagoenean. Pluralean egindako oihua. Jainkoa *gure* Aita da, guztiona. Dei-eskari honek mundu guztiko senidetasunean txertatzen gaitu, eta arduratsuago egiten senide guztien aurrean.

Santu izan bedi zure Izena: ez da eskari bat gehiago, besterik gabe. Lehenengo eskaria da. Jesusen. otoitzaren arima; Haren ametsik gorena. Jainkoaren *Izena*, hau da, Jainkoaren hondorik gabeko maitasun-misterioa eta Haren indar salbatzailea, aintza eta ahalmen osoz ager daitezela. Ez dago hori axolagabeke-riatik esaterik. Jainkoarengana zabaldu beharra dago.

Etor bedi zure Erreinua: munduan ez-dadila gogorkeria edota gorroto suntsitzailea errege izan. Jainkoa baizik, eta Haren zuzentasuna. Lehenengo Munduak ez ditzala zapaldu herrialde baztertuak. Indartsuak ez dezala bortxa ahula. Aberatsak ez dezala zapaldu pobrea, ezta gizonezkoak emakumea ere. Zabal daitezela bake, barkamen eta solidaritaterako bideak. Hori ez da bihotzez esaten, egunero ahaleginak egiten ez badira «Jainkoaren Erreinua eta Haren zuzentasuna» bilatzen (Mt 6,33).

Egin bedi zure nahia: ez dezala hainbeste eragozpen eta nahi eza aurkitu gudan. Gizon-emakumeok; biziaren sakonetik egiazko gure salbamenera dei egiten digun Jainkoaren esanera bizi gaitzezela. Gaurtik bertatik nire bizitza Jainkoaren nahi horren bilaketa zintzoa izan dadila.

Emaguzu gaur egun honetako ogia: ogia eta duintasunez bizitzeko behar dugun guztia. Eta ez Lehenengo Mundukoei bakarrik, baizik eta Lurbira osoko herrialde guztiei. Hori guztia esaten dugu, ez geurekoikeria itsutik, geure ondatsunak behartsuekin banatzeko gogoz baizik.

Barkatu gure zorrak: Jainkoaren barkamenaren beharrean dago mundua. Gizakiok barkamen eskatzen eta barkatzen bakarrik bizi gintezke. Mendekuari uko egiten diona bakarrik zabaltzen da Jainkoaren barkamenera.

Ez gu tentaldira eraman: eguneroko tentaldi txikiak ez baizik eta Jainkoa bazterrera uzteko etengabeko tentaldia da aipatzen dena; Jesukristoren Ebanjelioa ahaztu eta okerreko bidea hartzeko tentaldia.

Eta atera gaitzazu gaitzetik: geurekin dugu Jainkoa gaitz guztiei aurre egiteko. Bera da gure Salbatzailea. Gure bizitza guztien entzuten da, Jainkoari egiten diogun laguntza-oihu honen oihartzuna.

Fedea janaritu

Ezinezkoa da sinesmenak zainak botatzea eta sendotzea, janaritzen ez bada. Fede bizi batean hazi eta irauteko, zaindu egin behar da.

- **Eliz elkarte**

77. Fedea erabaki guztiz pertsonala da; baina elkartean gara fededun. Fedea-
ren bidean ez dugu bakarka aurrera egiten salbaziorantz. Jainkoa bilatzeak si-
nestedunen elkarte bilatzera eramaten du. Jainkoari atxikitzeak Elizari atxiki-
tzera egiten du dei. Baina kontua ez da «taldearen laguntza» bilatzea, horrela
fedean elkar bizkortzeko eta kristau-bizitzan elkarri eusteko. Gauza sakonagoa
da: salbamen-gunea aurkitzea esan nahi du; Jesukristorengan agertu zaigun
Jainkoak hor ematen dizkigulako ezagutzera, era garbi eta eragingarrian eman
ere, gizadia salbatzeko bere asmoak. «Bat bakarra da gorputza, bat bakarra Es-
piritua... Bat bakarra Jauna, bat sinesmena, bat Bataioa; bat bakarra Jainkoa,
guztion Aita» (Ef 4,4-6).

Ulertzen diegu esaten dutenei: «Kristo, bai; Eliza, ez». Esaldi honek, segur-
aski, hori esaten duenaren aurre-iritzi eta errezeloak adierazten ditu, eta bero-
nek ezagutzen duen Elizaren bekatu eta kontrako testigantza. Gure aldetik, ai-
tortu beharra daukagu, Elizak eliztarron bekatua eta geure bizitza kaskar eta
desleialaren zikinkeria daramatzala berekin. Bekatu hau eliz erakunde, pentsa-
era eta ohituretan ere mamitzen da. Eta ez diogu garrantzia kendu nahi, giza
ahuleziaren aitzaki erraza erabiliz.

Hala ere, beti bihotz-berritzearen beharrean dagoen Eliza honetan, Jain-
koa bere lanean ari da. Han da Elizan aurkituko duzuen gauzarik garrantzitsu-
ena: hogeit hamar igaro ondoren, Jesusek aldarrikatutako «Jainkoaren Berri
Ona» entzuten jarraitzen duen elkarte; bere sorburutik hasita, kristau-fedea
biltzen duen fede-aitormena; fede horren eduki nagusia leialki transmititzen
duen tradizioa; Jainkoarekin topo egitea eta Haren grazia onartzea ohartukiago
eta eraginkorkiago bizitzeko egokiera emango dizueten sakramentuak.

Jesukristoren Elizak ez du tradizio erlijioso hutsa transmititzen. Bere Jau-
naren Espirituaren eraginez, gizon-emakumeak federa erakartzen dituen leku-
koa da, Bataiorako prestatzen eta Kristoren gorputzeko atal egiten dituen elkar-
tea, maitasunaren bidez beren betera iritsi arte haz daitezten.

Bakoitzak erabaki behar du bere bidea, eta ikusi, bakarka ibili nahi duen
ala eliz elkartean sartu, hura hobeto ezagutu, garbitzen ahalegindu eta Jesukris-
toren elkartearen ezaugarri egiazkoago egin. Duda-mudan dabilen fedea bizibe-
rritu ote daiteke, sinesmen hori bizitzen lagunduko duen elkarte bat aurkitzen
ez bada?¹⁴.

- **Igandeko Eukaristia**

78. Sinetsirik gaude, igandeko Eukaristia izan daitekeela, gaur egun askoren-
tzat, beren fedea janaritzeko esperientziarik onena. Horregatik, hainbeste eta
hainbeste igandeko Eukaristia uztera eramaten dituztenen arrazoiak entzun
nahi ditugu. Lehenengo eta behin, hainbat kexatan dagoen egia jaso nahi dugu:
elizak deserosoak omen direla, ospakizunak gaizki prestatuak, batzar-buruaren
iharduera ardura gutxikoa, homilia astunak, giro erlijioso gutxi... Gusturik eza

¹⁴ Ikus *Jesukristori Eliza honetan jarraitzea* gure Pastoral Idazkia (1989, Garizuma-
Pazkoa).

nabari da, eta hori entzuten jakin behar dugu, gure parroki eta elizkizun-lekuetako ospakizunak hobetzea geure esku daukagunok. Baina bada zehaztu beharra daukagun beste zerbait.

«*Meza aspergarri egiten zait. Ez al litzateke zerbait biziago eta naturalagoa egin behar?»*. Ohikerian erortzeko arriskua dago, egia da. Eta denok ahalegindu behar dugu, zeinuak eta hitzak espirituz eta biziz betetzen. Baina ohikeria hutsa al da meza, bere bekatu konkretuen barkamena eskatzera, aste barruan bizi izandakoagatik eskerrak ematera, bizitzari aurpegi emateko argi eta indar eskatzera datorrenarentzat?

«*Meza itxurakeria iruditzen zait. Mezatara doazenak ez dira besteak baino hobeak*». Egia. Bizitzan erakutsi behar du bakoitzak, egintza bidez, bere bihotzean daraman fedea. Baina itxurakeria al da astero Ebanjelioa entzutea, berorren eskakizunak gogoratzea, Jainkoaren aurrean jarri eta Berari indarra eskatzea leialago eta zintzoago izateko?

«*Meza gauza magikoa iruditzen zait niri. Nik ez dakit zer zentzu izan dezaketen ohikune arraro horiek eta zaharkitutako hizkuntza horrek*». Egia da. Hobeto ezagutu behar dugu zeinuen esanahia; bizitasuna eman behar diegu otoitz eta kantuei; ondo erabili behar ditugu liturgi ekintzak eskura jartzen dizkigun baliabide eta egokierak. Baina gauza magikoa al da, Kristorekin topo egin ez eta kristau-elkartearekin harremanetan, fedea bizitzea?

«*Zergatik meza entzun behar hori, hain zuzen, atsedean har dezakegun egunean?»*. Sinestedunak ez du Eukaristian «agindua» dagoelako parte hartzen; baizik eta beharrezkoa duelako Kristorekin bat egitea; Jainkoari eskerrak ematea; beste fededunekin batera fedea aitortzea eta Berpiztuarengan duen itxaropena biziberritzea. Ulertzen da IV. mendeko kristau-talde batek esaten zuen hura: «Ezinezkoa da guretzat, Jaunaren eguna ospatu gabe bizitzea»¹⁵.

• **Jainkoaren Hitza entzutea**

79. Jainkoari, nolabait, izadi osoaren bidez «entzun» diezaiokegu; bada norbait handia eta ona izadiaren atzean ezkutuan dagoena. Hobeto sumatzen dugu Gizadiaren historia erakargarrian; gizakia ez doa bakarka bizitzako bidean, Jainkoa du bidelagun Salbaziorantz. Jainkoaren Hitza argiago entzuten dugu Lurbirako herri konkretu baten –Israelen– historian; beronen bizitza, lege, otoitz eta profetetan hobeto jaso dezakegu Jainkoaren mezua. Herri honetan jaiotzen da Jesus, gizon egin zen Jainkoaren Semea. Beronen bidez hitz egiten digu Jainkoak.

Horregatik, Biblia, Israelen esperientzia erlijiosoa (Itun Zaharra) eta Jesu-kristoren iharduera, mezua, heriotza eta piztuera (Itun Berria) jasotzen dituen Liburu Santua, aparteko bidea da Jainkoari entzuteko. Sinesteduna Liburu Santura hurbiltzen denean, ez da liburu bat irakurtzeko, bere bihotza Jainkoari zabaltzeko baizik; beraz, ez da doktrina jakin bat ikasteko, Jainkoaren Hitzak bera eralda dezan baizik.

¹⁵ Ikus *Igandearen kristau-ospakizuna* gure Pastoral Idazkia (1993, Garizuma-Pazkoa).

Zer egin dezake, inolako prestaerarik gabe, Biblia irakurri nahi duen pertsonak? Zalantzarik gabe, kristau-talde bat aurkitzea izango litzateke onena, berarekin esperientzia hori egin ahal izateko. Baina norbera pertsonalki Liburu Santura hurbildu eta ebanjeliotatik irakurtzeak hasia ere egin daitekeen gauza da. Zergatik ez norberak zuzenean ezagutu, Jesusek esan eta egin zituenak?

Biblia zuzen ulertzeko beharrezko da erabiltzen duen hizkuntza eta literatura mota kontuan izatea; baita liburua idatzia izan deneko bizitzako testuinguru eta jatorrizko esanahia hobeto ulertzen lagun diezagukeen guztia ere, hitzez hitzeko ulerkerak okerrean ez erortzeko eta testuari guri iruditzen zaiguna ez esanarazteko. Horregatik da garrantzitsua kontuan izatea tradizioa, Elizaren irakaspena eta exegesiaren emaitzak.

Biblia eskuetan hartzean beharrezkoa da hau gogoratzea: «Ez dut nolana-hiko liburu bat irakurriko. Jainkoari entzungo diot». Honek aldatu egiten du dena. Oso astiro irakurri behar da, testuak dioena jasotzen saiatuz. Esaldi zailak edo ulergaitzak hobe utzi eta aurrera jarraitzea. Egunen batean ulertuko dugu, gaur ezin duguna.

Garrantzitsuena, pasarte bat irakurri ondoren gelditu eta galderak egitea da. Jainkoaren Hitza, batzuetan, egia gisa aurkezten zaigu; orduan egin beharreko galdera hau da: «Jauna, zer erakutsi nahi didazu? Nire bizitzako zein alderdi argitu nahi didazu?». Beste batzuetan, Hitz hori bizirako *bide* gisa eskaintzen zait; orduan egin behar dudana galdera hau da: «Zertara dei egiten didazu? Zer itxaroten duzu niregandik? Zertan aldatu behar dut?». Jainkoaren Hitza agintzari edo promesa ere izan daiteke; galderak hauek izan daitezke: «Nire bizitzako Jainko, zer-nolako konfiantza esnarazi nahi duzu niregan? Zer itxaropen eman nahi didazu?». Baina Jainkoa bilatu nahi duenaren jarrera berdina da beti: «Sinesten dut; baina sendotu Zuk nire sinesmena» (Mk 9,24).

VI.- SINESMENA SENDOTZEA

80. Gurasoek beren seme-alabak Bataiorako aurkezten dituztenean batzarburuak galdetzen die: «Zer eskatzen diozue Elizari?», eta haiek erantzuten dute: «Fedea». Hori da, hain zuzen, Elizaren lehen eginkizuna: fedea sorraraztea. «Hots egin Berri Ona gizaki guztiei. Sinesten duena eta bataiatzen dena salbatuko da; sinesten ez duena, berriz, galdu egingo da» (Mk 16,15-16). Nola dei egin eta lagundu gaur egun sinesten?

Fedearen zerbitzua

Ezertan hasi baino lehen, hau da argitu behar duguna: nolakoa izan behar duen, krisi erlijiosoa bizi dugun uneotan, fedea sendotzearen aldeko Elizaren zerbitzuak. Hona hemen hari nagusi batzuk.

• *Fedea oinarritzea*

81. Kristauon akatsetako bat, sinesmena gauza ziurtzat hartuz ihardutea da. Egia esan, asko dira egoera ilun eta nahasia bizi dutenak. Ez dute inoiz fedearen sarbiderik izan. Inoiz ez dute, ohartuki eta erantzukizunez, Jainkoaren aurrean beren jarrera aztertzeko egokierarik izan. Horregatik, lehenengo kezka bat dago sartu beharra gure Eliza eta elkarteetan: non eta nola ari gasa gu fedea esnarazteko laguntzen?

Gauza jakina denez, fedea berez ez dago «ematerik». Sinesmenaren edukia azal diezaiokegu norbaiti. Baina «sinestea» norberak egin beharreko gauza da; gizon edota emakume bakoitzak Jainkoaren aurrean askatasunez hartu beharreko erabakia. Ez dago sinestera «behartzerik». Fedearen zerbitzua zera da: bakoitza Jainkoarekin harreman pertsonalean jartzeko prestatzea. Ez fedearen «berri ematea» bakarrik, baizik eta Kristorengan agertu zaigun Jainko biziaren aurrean erabaki arduratsua hartzen laguntzea. Jainkoa bere biziaren erdian jartzea, ez mehatxu gisa, agintzari bezala baizik. Erantzukizunez Jainkoaren aurrean erabakia has daitekeen «puntu» horretaraino pertsonari lagun egitea. Pastoral ekintza ez da: «Sinetsi egin behar duzu», baizik eta «Nahi baduzu...».

82. Honek zera esan nahi du: pertsona horren aurrean jarri behar dugula kristau-fedearen «oinarrizko edukia», hau da, Jesukristogan gorpuztu den Jainkoaren betiko maitasuna. Honetaz konturatzen laguntzea: dogma eta erlijio-ekintzetan gauzatua dagoen erlijio horren azpian dagoen gauzarik jatorrizkoena eta erabakigarriena Jesukristori atxikitzea dela; Jesusekin harremanetan jarri eta «Jainkoaren hurbiltasun salbatzailea» nabaritu izan zuten lehenengo ikasleen jatorrizko esperientzia bizitzea.

«Sinesmenaren iturburu eta helburu den Jesusengan begiak jarritz» (Heb 12,2) bakarrik sendotzen da fedea. Ez doa inor Aitarengana Jesusen bidez ez bada (Jn 14,6). Bera da egiazko Jainkoaren misteriora garamatzen «atea» (Jn 10,9). Oraingo krisi erlijiosoa, garrantzi handikoa iruditzen zaigu, ikuspegi hirukoitz honetatik laguntzea pertsonai Kristorekin topo egiten. Adiskide den Kristorekin, lehenengo: Berak agertzen digu Aitaren baldintzarik gabeko maita-

suna; Berak ateratzen gizakia «morrontza erlijiosotik» Jainkoaren adiskidetasunera: «Orain ez dizuet gehiago morroi esaten... Adiskide esaten dizuet, Aitarengandik ikasi dudan guztia adierazi baitizuet zuei» (Jn 15,15). Maisu den Kristorekin topo egiten lagundu: Bera dugu Maisu bakarra (Mt 23,8), Jainkoari «Abba» deitzen erakusten diguna. Beronen Espirituaren gidaritzapean, guk ere oihera egiten dugu: «Abba! Aita!» (Ga 4,7). Eta Salbatzaile den Kristorekin topo egiten lagundu: Bera ez dator «bekatua kentzera» (Jn 1,29) bakarrik; geure nortasuna gal ez dezagun eta gu bizitzaren absurdutik askatzera ere badator, guri «Jainkoaren seme eta alaba» (1 Jn 3,1) garela agertzera emanaz.

- ***Irakaspeneredua gainditzea***

83. Gaur egungo gizakiak, eskuarki, ez du Jainkoa bekatuaren esperientziatik bilatzen. Bilatzen duenean, batez ere bere barruko hustasunagatik eta nortasun-galeragatik izan ohi da. Gaurko gizakiak «lur-zoru sendoa» bilatzen du, oinarri hartu ahal izateko. Oinarria, babesa, ziurtasuna da bilatzen duena, eta ez daki non aurkitu. Bere bizitza «oinarritzea» du amets. Kezkatzen duena ez da; Jainkoa badenaren arrazoizkotasuna froga bidez nola erakutsi. Fidatu ote gintezkeen jakitea da bilatzen duena. Fedearen zerbitzuak, hasiera batean, honetara zuzendua egon behar du: Misterioaren aurrean «jatorrizko konfiantza» esnaraztera.

Honek ahalegin bat egitea eskatzen du fedearen oinarriak jartzekoan: irakaspenerari begira dagoen eredua gainditu, eta «sinestearen» jatorrian dagoen esperientzia gehiago zaintzea. Frogak eta jakintzak baino garrantzi handiagokoa da Misteriora konfiantzaz zabaltzea eta, iluntasun artean ere, Jainkoaren deia entzutea: «Zergatik galdetzen didazu nire izena?» (Gn 32,30).

Fedea ez da transmititzen beste jakintza-moten antzera, doktrinazko irakaspenera erabiliz. Kontua ez da fedea ezagutzea, baizik eta sinestera bultzatua sentitzea. Federa esnatze hau ez da ikasketa-prozesua, jantziagoa den maisu batek fedeko egiak irakatsi, eta ikasleak, maisuaren jakintzari men eginez, egia horiek ikasi behar balitu bezala. Fedea, Jainkoagan konfiantza osoa izatera eramaten duen esperientziarako bide emanaz «transmititzen da».

Honek ez du, inola ere, esan nahi, arrazoizko argudioak baztertu eta aintzakotzat hartzen ez direnik. Beti izan den bezala, gaur ere garrantzitsua da, Jainkoa aitortzera eta sinesmena oinarritzera zentzu onez eramaten duten bideak erakustea. Fede-aitormena arrazoibidez argitzea eta Jainkoari uste osoz atxikitzea ez daude elkarren aurka; elkarren osagarri dira. Horrela, pertsona bere osotasunean dago deitua, bide ezberdinetatik Espirituaren ahotsa entzun eta Jainkoari konfiantza osoz atxikitzen.

- ***Esperientziaren bideetatik***

84. Fedearen esnaeran esperientziak duen garrantziaz hitz egiten dugunean, era askotara uler daiteke hori. Lehenengo eta behin, garrantzizkoak dira pertsonak eguneroko bere bizitzan dituen esperientziak: asmoak eta lanak, arazoak eta nahigabeak, pozaldiak eta istiluak; hortik zabaltzen da pertsona federa. Garrantzizkoak dira bere galdera eta ametsak ere jatorriari eta jomugari buruz, bizitza eta heriotzari buruz, gaizkia eta zorionari buruz; horiei erantzutera dator fedea.

Esperientziarenganako arreta honek lagundu egiten du sentiberatasun erlijiosoa esnarazten; eta Jainkoak pertsonaren bizitzan izan dezakeen esanahi zehatza hobeto ulertzen.

Baina arreta jarri behar zaio, pertsona «Jainkoaren esperientzia» izatera prestatzeari ere. Zer esan nahi du honek? Egia da Jainkoa ez dagoela behin ere zuzeneko giza esperientziagai bihurtzerik. Baina gizakia oharturik egon daiteke, bidelagun duela etengabe Jainkoa bere baitan. Hori nabari dezake, esate baterako, ahuleziaren erdian, berak nondikakoa den ez dakien indarrak eusten diola sumatzen duenean; edota, iluntasunaren erdian, beste maila batekoa den eta konfiantzara dei egiten dion zerbait sentitzen duenean. Jainkoaren esperientzia nabaritzen da, pertsona, era zehatz desberdinetan, bere bizitzako misterioaz ohartzin denean, eta misterio hori bere izaeraren erdigune eta salbazio bezala onartzen duenean. Dena fedearen alorrean mugitzen da, baina pertsonak «arimaren baitan geratzen den ziurtasuna» bizi du (santa Teresa).

Jainkoaganako fede bizia esnarazteko behar-beharrezkoa den esperientzia hau ez da zirrara afektibo hutsa; pertsonaren ahalmen guztiek parte hartzen duteneko bizikizuna da. Ez da esperientzia subjektibo bakana ere; zabalik dago sinestedenen elkarte osoaren esperientziara, elkarte horretatik hartzen baitu egiaztapena; zabalik dago esperientzia hori bizi eta zehaztu behar duen mundura ere.

Jainkoaren esperientziak «transzendentzia» bizitzen ikastea eskatzen du. Gaur egun era askotara erabili ohi den hitz honek «ibiltzearen» (*trans*) mugimendua, eta «igotzearena» (*scando*) adierazten ditu. Beraz, maila-aldaketa eskatzen du. Egia «transzendentea» geure buruak gaindituz lortzen dugun zerbait da, edota, hobeto oraindik, geure bizitzan sartzen denean, geure baitatik harago eramaten gaituena. Horrelakoa da Jainkoa; horrelakoa Jainkoarengana garamatzan fedearen ere.

Jainko transzendentearen bizikizun hau, fedearen esnarazteko landu beharrezkoak diren bi esperientziatan oinarritzen da, batez ere. Lehenengo, *otoitzean*. Ez dago sinesmenik Jainkoarekiko harreman pertsonalirik gabe. Eta ez dago fedeenatzerik harreman horretarako sarbideririk gabe. Otoitza erakutsi egin behar da, eta landu. Otoitzaren bidez ikasten du pertsonak bere bihotza Jainkoarengana «*jasotzen*». Horrekin batera, *maitasuna* da beste esperientzia. Jainkoa maitatu eta Hark maite gaituela jakin. Horrelako maitasunak «aterarazi» egiten du pertsona bere baitatik Jainkoaganantz, eta senideengana bideratzen du, horiek dirrelako maitasuna egiaztatze berezko lekua. Horrelako maitasunak «ikusarazi» egiten du, gai egiten, alegia, fedeari dagokion ezagupiderako. Maite duena, Jainkoaganako bidean dago, nahiz eta duda eta zalantzak izan.

• **Hizkuntza**

85. Hau ez da saihas daitekeen bigarren mailako arazoa; izan ere, kristau-fedearen predikatuaren bidez esnarazten da: «Nola sinetsiko dute, Haren entzuterik ez badute? Eta nola entzun, nor hots egini ez bada?» (Erm 10,14). Beharrezkoa da Jainkoaren Berri Ona aldarrikatzea. Horretarako, ordea, ez da aski hitz egitea. Mezu hori gaurko gizakiarengana iristeko moduan dago hitz egin beha-

rra. Hizkuntza ohikeriazkoa, hila, desegokia denean, Jainkoaren benetako esperientziarik eza adieraz dezake, gaurko egoera ondo ez ezagutzea edota alferkeria.

Jainkoaren aldarrikapenak ez du ortodoxoa eta akatsik gabea izatea bakarrik eskatzen. Jendearengana iritsi behar du, haientzat argi eta bizi izan dadin. Ez da, ordea, iritsiko, leial ez bada Jainkoaren Hitzarekiko, eta leial zuzendua dagoen haiekiko ere. Ez da jendea bere burua aldatu behar duena, «adituentzat» bakarrik egina dagoen gure hizkuntza ulertzeko. Gu geu gara ebanjelizatzaile orori dagokion ahalegina egin behar dugunak: Jainkoaren berri gaurko gizakia- ren buru-baldintza eta esperientzian eman behar dugula, alegia. Hona galdera bat hizlari, katekista, hezitzaile eta Jainkoaz hitz egiten dugunontzat: gure hizkuntza, jendearengana iristeko gogoak eragina ote da, edota betiko bideari jarraitzen ote dio ohikeriaz?

Oinarrizko jokabideak

Gure Eliza eta elkarteak Jesukristoren «ahotsa» eta «argia» izan daitezen, beharrezko dugu oinarrizko jokabide batzuk zaintzea.

- **Zerbitzua**

86. Elizaren iharduera guztiek bere Jaunarenganako leialtasunetik eta gizakiari zerbitzu egin nahi izatetik sortu behar du. Baita fedea esnarazi eta sendotzeko ahaleginak ere. Beraz, kontua ez da Elizari atxiki kopurua handitzea. Gutxiago oraindik, gizartearen menperatze espiritual bat lortzea. Eragin behar diguna, beti bezala Jainkoaren beharrea dagoen gaurko gizakiari zerbitzu egitea da.

Gaur bizi dugun egoeran zail gertatzen da, batzuetan, norbait Elizaren barruan ote dagoen jakitea. Dezente dira beren erara sinesten jarraitzen dutenak; eta ez da erraza esaten zenbateko alde dagoen, Elizaren fedearen eta horiek beren bihotzean dutenaren artean. Muga justuak jarritz gauzak argitu nahi izateko arriskua egon daiteke. Baina, horrekin ez genuke egin izango Ebanjelioak eskatzen diguna.

Pertsona ez dugu Jainkoarengana hurbilduko, ortodoxia jakin bat onartzerara edota Elizatik kanpora joatera derrigortuz. Garrantzia duena ez da mugak markatzea, zehatz-mehatz jakiteko nor dagoen benetan Elizaren barruan. Erabakigarria zera da: zentzu eta itxaropenik gabe dagoen gizarte honen erdian, Jainkoaren Misteriorantz zubiak egiteko gai izango diren fededunen elkarteak egotea. Izango dira pertsonak, ohiko eran Elizaren kide oso behin ere izango ez direnak ere, baina beronengandik zenbait zeinu eta Ebanjelioko hitz esperoko dituztenak. Jainkoak bakarrik daki «horien fedearen berri».

- **Elkarrizketa**

87. Sinestedunok ez gara Jainkoari buruzko egiaren «jabe» bakar. Gu ere egia horren atzetik gabiltza aspergabe, Jainkoaren aurpegiaren bila. Horregatik, egiaren eta bizitzako zentzuaren bila dabilzanekin batera joan gintezke gu ere. Elkarrekin bidea egiteko era honi «elkarrizketa» esaten diogu.

Elkarrizketa honek eskatzen duen lehenengo gauza bestearen askatasun eta jarrerarenganako errespetua da. Bestea, izan ere, ez da «gureganatu» egin behar dugun norbait; bere uste sendoetan eta «barre-historian» errespetatu behar dugun pertsona da. Ez dugu beheratu behar geure nagusitasun erlijioso edo moralaren ustea erabiliz. Elkarrizketa egingo bada, beharrezko da benetan gizaki gizatiarragoaren bilaketa-jarrera hartzea denok, sinestedun eta ez hain sinestedun, agnostiko eta axolagabe.

Gehiago esan behar dugu. Sinestedunok asko ikas dezakegu elkarrizketan. Fedegabearen edota zalantza artean dagoenaren «arrazoiak», fededunok geure barruan daramatzagun «galderak» izan daitezke. Sinesgaiztasuna ulertzea, behin baino gehiagotan, geuri gertatzen zaigun zerbait ulertzea izan daiteke. Fedea zalantza artean bizi duen pertsonak erakusten digu, Jainkoa ez dela begien bistan dagoen Norbait, geure gustura erabili ezin dezakegun Misterioa baizik. Ate-oak Jainkoaren gezurrezko irudiak kritikatzera behartu gaitzake. Fedegabeak zein Jainkori zerbitzu egiten diogun pentsaraz diezaguke, zein Jainkoaz hitz egiten dugun kristauok.

- ***Testigantza***

88. Sinestera egindako deiak zera eskatzen du: dei egiten duena bere fedea «gorpuzteko» gai izatea, testigantza konbentzitu eta konbentzigarrian. Uste osoan gaude, hau dela gaur egun fedea sendotzen laguntzeko erarik onena: norberak egindako esperientzia egitera besteei gonbite egitea, eta fede-esperientzia horrek gure bizitza nola eraldatu duenaren testigantza eskaintzea. Sinesmena ez da gaur egun, eskuarki, liburuen edota eztabaida erlijiosoen bidez esnaraziko, baizik eta «testigu zintzo» (Apk 1,5) bakarra den Jesukristo beren bizitzan eta hitzean mamitu dezaketen «testiguen hodei» (Heb 12,1) horren bidez.

Egiazko fededunen esperientzia eta testigantza ezinbesteko bitartekaritza gertatzen dira, egin beharrekoa irakastea ez baizik eta federa erakartzea denean. Hori da Jesusek bere ikasle eta apostoluei eman zien eginkizuna: «Zuek zarete gauza hauen testigu» (Lk 24,48). Lekukoak dira fedearen argia zabaltzen dutenak. Hortik dator santuen garrantzia. Antzinako eta gaurko santuena, santu aitortuena eta aitortu gabeena. Horien oroipen bizia eta bizitza iturri estimagarria dira Jainkoa ezagutzeko. Izaera-klase askotakoak izanik, eta leku eta histori une desberdinetan sustraituak egonik, aberastu egin dute eta aberasten jarraituko Jainko biziaren bilaketa.

- ***Lagun egitea***

89. Badira gure artean Jainkoaren bila dabiltzan, eta Harengan sinetsi nahi duten pertsonak. Elizkizunetatik urrutiratuta edota zalantza arteko fedean bizi diren sinestedunak dira, harrera ora eta pertsonalki edota taldean lagun egingo dien norbaiten beharra daukatenak- Hauen fedea ezingo da hazi, beste fededunek lagun egin, sendotu eta indartzen ez badute. Horregatik, antolatutako katekesira datozenez arduratzen jarraitu behar badugu ere, gaur egun hainbat bide-tatik Jainkoaren bita dabiltzanei lagun egiten ere ikasi beharra daukagu.

Ez dago Elizaren esku, sinesmenera dei egiten duten zergati eta gertaerak aurrez programatzea. Ez dezagun ahaztu, fedea dohaina dela. Jainkoak bakarrik

egiten du sinesmenerako deia; eta gure egitarau pastoraletan aurretik ikusiak ez dauden bideetatik egiten du askotan dei hori. Elizak erre egon behar du Espirituaren egintza honetara.

Pertsona hauei lagun egiteak errespetuz beroriei entzutea esan nahi du; norbait izan dezatela beren «barne-historiaz» hitz egin ahal izateko. Esperientziak trukatzeari ere esan nahi du: denok gaude Jainkoaganako bidean; denok «ikas» dezakegu batzuk besteengandik; elkarren artekoa da ikasketa, eta bihotz-berritzea bi aldeetan gertatzen da. Horrela argi geratzen da, sinesmena ez dela norberak bere aldetik hartutako ekimenaren ondorio, Jainkoaren egintza baizik gugan; eta egintza horren berezko lekua, Jainkoarenganako bidean erromes doan Eliza da.

Hau da gure Elizek daukaten erronketako bat: Non aurkitu federako bidean lagun egiteko gai izango diren sinestedunak? Non daude Jainkoaren hila dabiltzanekin elkarrizketa eta trukaketa egiteko 'gunea eskain dezaketen taldeak? Ez al dago gure artean zerbitzu hau egiteko prestatzera deitua dagoen katekistak?

Parroki elkarteak

Gehienentzat parrokia da beren fedea janaritu eta hazten deneko lekua. Elizbarrutira eta mundu guztiko Elizarekiko elkartasunera zabalik dagoen elkarte horren barruan bizi dute sinesmen katoliko bakarra, «apostoluen harkaitzean oinarritua». Nola izan daiteke gaur egun parrokia fedea biziberritzeko leku? Hona hemen argibide eta iradokizun batzuk.

• Fedearen sarbidea. Katekumenotza-erako pastoralgintza

90. Inor ez da kristau jaiotzen, egin egiten da. Bataioak, lehentxeago edo geroxeago, erantzun aske eta arduratsua eskatzen du. Baina pertsona ez da kristau egiten, zenbait urtetan zehar parrokiako katekesira joan izan delako. Gaur egun fedea era motelean, gaizki ezagutua eta okerrago mamitua bizi duen hainbat bataiatu badago, ez ote da behin ere fedearen sarbiderik egin ez dutelako izango?

Parrokia askok daukan erronka handia fedearen sarbidea da. Gaur egun, eskuarki, familiek ez dute fede-hezierarik ematen. Bestalde, gizarteak erraz erakartzen ditu gazteak, Ebanjeliotik urrun dagoen bizitzaren ulerkera eta bizierara. Egoera honetan, ez dago kristandadeko gizarterako balio zuen katekesi-ereduarekin bakarrik lan egiten jarraitzerik.

Bada hainbat urte, gaizki oinarritutako fedea daukaten gazte eta heldu hauei batez ere kristau-fedearen sarbidea ematera zuzendua dagoen katekesia egiteko ahaleginak nabari direla, izenak desberdinak badira ere (katekesi misiolaria, katekesi kerigmatikoa edota aldarrikapenaren katekesia). Guk geuk, duela hiru urte, ohizko katekesi-iharduera ez bezalako prozesu desberdinak bilatzeaz hitz egiten genizuen; prozesu hauetan «aparteko lekua izango dute: pertsona bakoitzaren egoera ulertzeak, zalantza eta aurre-iritziak benetan entzuteak, ebanjelizatzailearen beraren fede-testigantzak, bilaketa-otoitzak, ebanjelioetako

Jesusen hitzak zuzenean entzuteak, “esperantzarik eta Jainkorik gabeko mundu honetan” norberaren bizitzaren azterketak eta, batez ere, dohainezkoa eta askatzailea den Jainkoaren aldarrikapenak»¹⁶.

Gure Elizen etorkizuna, neurri handi batean, fedearen sarbide honetan jokutzen da. «Sarbidea» bizi berri baten hasiera eta zabalketarako ekintza da. Fede motel eta zalantzazko sinestedunei beren bizitzari kristau-hasiera berri bat ematen laguntzea esan nahi du. Eta, beraz, gure elkarteei sorrera eta bizi berria ematea. Horregatik, adore eman nahi dizuegu elizbarrutietako Katekesi Idazkaritzoi, fedearen sarbidera zuzendua dagoen katekesi hori indartzen jarrai dezazuen. Ez da zuei bakarrik dagokizuen lana. Konturatzen gara, eginkizun honen azpian denon artean landu beharreko arazoak daudela: katekisten heziera, elkarre sentibera eta abegitsuak, pedagogia egokia eta sarbiderako sakramentuen planteamendu egokia. Honetarako inoiz baino beharrezkoago ikusten dugu parrokia eta ikastetxeen arteko elkarlana.

• *Pastoralgintza misiolaria*

91. Ez da aski parroki elkarreetan fedearen sarbidea hobeto ziurtatzea. Gure barrutietako Elizek katekumenotza-erako pastoralgintza aztertu eta garatzeko planteamendua egin beharra daukate, bataiatu gabeko edota erabat urrundu-tako -baina uneotan Jainkoaren galdera egiten duten- pertsonen erantzun egoki bat eskaintzera zuzendua. Ez dira asko izango, nahiz eta seguraski guk uste dugun baino gehiago izango diren. Ez da jende-sail handiekin egin beharreko lana; «aldaketa koalitatiboa» bilatzea da kontua: Eliza osoaren misiolari-bokazioa esnaraztea.

Lehenengo urratsak apalak izango dira: harreman pertsonala, arretaz entzutea, elkarrizketa irekia, norberaren fede-testigantza. Aurreko beste Idazki batean adorea ematen genizuen «parrokiara hurbiltzen diren pertsona urrundu-ekin dituzuen topaketa ebanjelizatzaileak zaindu eta hobetzen jarraitzea (seme-alaben Bataioa nahiz Lehenengo Jaunartzea dela eta, gurasoekin izango dituzuen topaketak, ezkontza eskatzen duten ezkongai hotzekin izango dituzue-nak, urrundurik dauden pertsonen hiletak...). Topagune egokiak izan daitezke beste hauek ere: familiekin etxeko bilerak, ebanjelizatze-ikustaldiak, Ebanjelioaren berri era bildu eta biziagoan egiteko ihardunaldietarako deiak, edota familia gazteekin egindako topaketak»¹⁷.

Baina, agian, iritsia da, gure elizbarrutietako puntu jakin batzuetan egiazko katekumenotza, edota, gutxienean, Jainkoaren bilaketari «Elizaz kanpo-tik» ekiten dioten pertsonetikiko topaketak bideratzeko garaia. Iruditzen zaigu garrantzitsuak direla prozesu hauetan: gizakiaren galdera nagusiei erantzutea; kristau-sinesmenaren funtsezko edukia aurkeztea; Jainkoari buruzko ezagupide-a garbitzea; giza hazkundeari buruzko fedearen emaitza nagusiak zehaztea; Jainkoaganako otoitzean lehen urratsak ematea.

¹⁶ Ikus *Ebanjelizatzea federik ezak jotako egunotan* gure Pastoral Idazkia (1994, Pazkoa), 74. zenb.

¹⁷ *Ibid.*, 92. zenb.

- ***Igandearen ospakizuna***

92. Igandeko Eukaristia da kristau askorentzat beren fedea janaritu eta bizirik eusteko esperientzia bakarra. Horregatik da garrantzitsua arretaz zaintzea. Igandea sinesmenez ospatzea, kristau bakoitzaren betebeharrak pribatu baino gehiago, eliz elkarte osoaren betebeharrak eta eginkizuna da; eliz elkarteak izan baita Berpiztuak zabaldu digun itxaropenaren testigantza ematera deitua. Asteroko ospakizun hau gabe, Elizaren fedea itzali egingo litzateke. Une hauetan egin al dezakegu ezer garrantzitsuagorik, sinestudunen fedea bizkortzeko, igandeko Eukaristia era bizian ospatzea baino?

«Igandearen kristau-ospakizuna» izenburu duen gure Pastoral Idazkian «zenbait proposamen» egiten genizuen «Igandearen kristau-ospakizuna biziberritzeko»¹⁸. Dei egiten dizuegu berriro ere proposamen horietaz gogoeta egitera. Oraingo Idazki honen ikuspegitik, igandeko Eukaristiari bizitasuna eman diezaioketeen iradokizun xume batzuk egin nahi dizkizuegu. Har itzazue aintzako-tzat zeuen parroketan liturgigintzan sarturik zaudeten apaiz eta beste laguntzaileok:

Denbora eta arreta gehiago jarri igandeko eukaristi ospakizuna denentzako prestatzen; ospatzekoan, zeinu eta hitz bakoitzari bere esanahia eta garrantzia eman; igandero Eukaristiaren zati edo alderdiren baten azalpena egin, hain zuzen ere, ezagutzen duguna bakarrik bizi dezakegulako; Jainkoaren Hitza astiro, eraspenez eta mezuaren alderdi funtsezkoenak azpimarratuz irakurtzea lortu; ondo prestatutako homilia laburra eta topikoetara jo gabe egin, gaur egungo krisi erlijiosoa kontuan hartuz eta fedea esnatzera zuzenduz; kantu eta otoitzak Jainkoari zuzendutako benetako otoitz izan daitezen lagundu; prefaziotik hasita, meza esker-otoitz gisa bizitzeko prestatu; barneratzen lagunduko duten isiluneak zaindu; igandero «Gure Aitaren» eskariren baten azalpena egin; Ebanjelioa entzutearen eta sakramentuzko jaunartzearen bidez Kristorekin «topo egiten» erakutsi; astean zehar fedea bizi ahal izateko aholku zehatz eta xumeak eman.

- ***Otoitz egiten erakustea***

93. Poz ematen digu ikusteak, gero eta handiagoa dela otoitz pertsonala edota taldekoa eragiteko parrokien ardura. Baina, orokorrean, gutxi da oraindik eta eskasa otoitz egiten erakusteko egiten duguna. Jainkoarekin topo egin nahian dabilzan pertsona kezkatuek monastegietako elkarrekin jotzen dute; benetan eskertzekoa den zerbitzu estimagarria eskaintzen ari dira hauek une honetan. Baina horrelako pausorik behin ere emango ez duen jende xumea laguntzarik gabe aurkitzen da otoitz egiten ikasteko. Zer egin dezakegu parroketan?

Lehenen-lehenengo, parrokiako eliza «otoitz-etxe» gisa berreskuratu. Hori ez da beti erraza izaten. Baina asko da honetan egin daitekeena: kapera edo otoitz-leku bat eratu otoitz pertsonala edota talde txikian egin ahal izateko; irudiak, sinboloak eta girotzeko musika zaindu; otoitz egiten lagunduko dieten

¹⁸ Ikus *Igandearen kristau-ospakizuna* gure Pastoral Idazkia (1993, Garizuma-Pazkoa), 62-74. zenb.

otoitzak, liburu xumeak, testu eta salmoak jarri fededunen eskura; eliza zabalik eduki, ordu batzuetan bederen arratsean. Hori guztia egin daiteke parrokan, alderdi hau zaintzeko prest dagoen talde bat aurkitzen denean. Parrokiek isiltasun- eta bake-guneak eskaini behar dizkiete pertsoneri, Jainkoarekin topo egin eta beren barne-bizitza berreraiki ahal izateko.

Baina hori ez da nahikoa. Sinestedunei, igandeko Eukaristia ospatzera ezezik, elkarrekin otoitz egitera eta presarik gabe Jainkoaren Hitza entzutera eta barre-bizitza jarraitzera ere dei egiten jakin behar dugu. Era askotakoak izan daitezke topaketa hauek: gateentzat, hirugarren adinekoentzat, gurasoentzat, pastorgileentzat. Osagai desberdinak erabiliz eratuak izan daitezke: Jainkoaren Hitza entzun, isiltasuna, salmo-otoitza, bat-bateko otoitza, sagrario aurrean egindakoa. Otoitzaldi hauen sustatzaile ez daukate apaizek izan beharrik. Orena, otoitzaldi hauek bultzatu eta berorietarako gonbidapenak egingo dituen talde iraunkor bat izatea izango litzateke.

Familia sinesteduna

Familian dago jokoan, neurri handi batean, etorkizuneko fedea edota fedetik eza. Horregatik, uste dugu, familian dagoela era erabakigarrian lan egin beharra, fedea berreskuratu eta biziberritzeko. Baina, *nola zehazki? Zer egin dezakegu egiten ez dugunik?*¹⁹

• Zailtasunak

94. Zalantzarik gabe, zailtasunik asko sumatzen dute gaur egun kristau-familia eraiki nahi duten gurasoek. Lehenengoa, askotan, *komunikaziorik eza* da. Gure garaiotako bizitzak, oraingo ikasketa- eta lan-antolamenduarekin, eta abiadura zalapartatsu eta sakabanatuarekin, zail egiten du familia barruko komunikazioa. Eta, azkenean, denak elkaturik daudenean, han dago telebista, denak isilarazteko. Nola bizi elkarrekin fedea, bizitza elkarrekin egiten ez denean?

Bestalde, zenbait familian *akordiorik ez* handia dago guraso eta seme-alaben artean. Ez dute berdin pentsatzen, ez berdin sentitzen. Ezta erlijio-gaia ere. Ia beti eztabaidan bukatzen dute. Nola fedean hezi hain handia denean pentsaera, balore eta sentiberatasunean dagoen aldea?

Zailtasun han handiagoa gertatzen da oraindik, ikustean, seme-alabek ez dutela gurasoengandik «bizitzen ikasten», baizik eta lagunengandik, *gizarteko ingurugirotik*, edota moda eta telebistatik. Egoera honetan, nola bizi eta transmititu fedea? Eta, batez ere, nola egin hori gurasoek ere beren fedea era lausotuan eta sinesmen handirik gabe bizi dutenean?

Gogoan ditugu *arazo larrien* zamapean itotzeko zorian bizi diren familiak: senar-emazteak apartatzera daramatzen krisia dela eta, seme-alabekiko istilu gogorak, lanik ezaren itolarria... Nola arduratu fedez?

¹⁹ Ikus *Familia aurkitzea gaur egun* Pastoral Idazkia (1995, Pazkoa).

- **Familiaren ahalbideak**

95. Zailtasun hauek eta beste hainbatek etsipenaren eta ezinaren sentipena eragin dute guraso askorengan. Errazegi pentsatzen da, ez dagoela ezer sendo egiterik- Batek baino gehiagok etsi egiten du ezertan hasi ere baino lehen. Ez da jakiten zer egin edota nola jokatu. Baina bada guraso dezente erantzukizunez jokatu nahi duena ere.

Lehenengo eta behin, azkenaldiko ikerketek diotena gogoratu behar dugu: ez dago familiak baino baliabide hobekak dituen gizarte-talde edo -gunerik seme-alabei esperientzia ona emango dionik, lur horretan balore eta bizikizun erlijiosoak sustraitzeko. Ez dago berorien bizitzan arrasto sakonagoa utziko duen esperientziarik.

Arrazoa garbia da. Familiak haurrari goxotasun-, konfiantza- eta maitasun-giro batean eskaini ahal izango dio «esperientzia erlijiosoak»; beste edozein talderentzat, ordea, hori ez da hain erraza izango. Etxean haurrak jokabide, balore, sinbolo eta esperientzia erlijiosoak bizi ahal izango ditu, baina ez nolanahi, «maitasunez» baizik. Ikerlan guztiek norabide berdinean jartzen gaituzte: fede erlijiosoak, neurri handi batean, honen baitan dago: pertsonak fede-esperientzia ona izan izanaren baitan. Hautzaroko lehen urteetan atseginez, ziurtasunez eta zentzu onez bizi izandakora itzultzen da, la beti, gizakia. Alderantziz, etxean horrelako esperientzia onik ez bada izan, oso zail izango da gero esnaraztea parroikia edota ikastetxea bezalako beste guneeetan.

- **Oinarrizko baldintzak**

96. Lehenengo, oinarrizkoena *gurasoek elkar maitatzea* da, eta seme-alabek hori nabaritzea. Gurasoen arteko maitasun hori da, elkarrekiko bizitzarako eta fede-hazkunderako ere beharrezko den konfiantza- eta ziurtasun-giroaren oinarria.

Garrantzizkoa da, aldi berean, *seme-alabenganako maitasuna*. Bakoitzari arreta jartzea, errespetua, hurbiltasuna, zainketa arduratsua, eta bakarka beraien entzutera emandako denbora. Seme-alabek gurasoen maitasuna nabari badute bakarrik izan daitezke gurasoak haien erredugarri.

Garrantzitsua da *komunikazio-giroa*. Hori elkarrenganako mesfidantza eta urruntasuna saihesten denean bakarrik lor daitezke. Beharrezko da, gainera, elkarrekin egoteko uneak izatea. Kontua ez da elkarrekin denbora asko egitea, baizik eta familia elkartzeko denean, denak atseginez egotea eta konfiantzazko trukaketa egin ahal izatea.

Gogoan izan behar da, baita ere, seme-alabei eskatzen zaienaren eta norberaren jokabidearen arteko *koherentzia*. Gurasoek izan ditzakete akatsak eta erruak; baina seme-alabek haiengan funtsezko jokabide ona nabaritzea da garrantzizkoa; sinesmen erlijiosoenganako leialtasuna ikustea.

- ***Famili giroa***

97. Sinesmenak giroa eskatzen du. Aurpegi eman behar diogu etxe askotan nabari den «hustasun erlijiosoari». Lehenengo egin daitekeena etxean sartzen denaz gehiago arduratzea da (zenbait aldizkari, bideo-zinta, telebista-saio). Ez da zaila kristau-aldizkari baten harpidedun egitea, edota seme-alabentzat hezi-garri izango diren liburuak, eta haur eta gazteentzako Biblia nahiz Ebanjelioak, musika erlijiosoa, edota bideo pedagogikoak eskuratzea.

Itxura oneko ezaugarri edo irudi erlijiosoren bat jar daiteke egongelan nahiz logelan. Igandearen eta kristau-jai handien festa-kutsua zaindu. Aldi berezitan, esate baterako, Eguberri edo Pazkotan, etxea girotu. Sinestedun sentitzen den familiak erakutsi egiten du hori bere inguruan.

Bestalde, hazkunde egiazkoagoa izaten du kristau-sinesmenak, familian Ebanjelioko baloreak bizi direnean. Familia pobreenganako beharretara zabalik dagoenean, zuzenbidearen eta dohanikako maitasunaren zentzua lantzen denean, elkarri benetako barkamena eskaini eta besteengandik barkamena jasotzearen esperientzia bizi denean, hori gertatzen da Jesukristoren jarraipenaren eskolarik onena.

- ***Otoitza familian***

98. Lehen urratsa gurasoek eman behar dute, elkarrekin otoitz egiten ikasiz. Zail gertatzen da hori senar-emazteentzat, horrelako ohiturarik ez dagoelako eta hasieran lotsa ematen duelako. Hala ere, apalki otoitz egiteak on egiten dio bikoteari, eta hori da oinarria etxean otoitza sustatzeko. Otoitz hau, askotan, Jainkoari eskerrak emateko izango da, elkarri ere eskerrak emanaz. Beste batzuetan, Jainkoari barkamen eskatzeko, batak besteari eskainitako barkamenaz prestaturik. Sarritan seme-alabengatik Jainkoari egindako eskaria izango da; baita seme-alaben izenean egina ere: otoitz egiten ez dakiten haur txikien izenean, edota otoitz egin nahi ez duten seme-alaba hazien izenean.

Gauza ona da seme-alabentzat beren gurasoak otoitz egiten ikustea. Haurrak ikusten baditu gurasoak otoitz egiten, isiltasunean egoten, begiak ixten, errosarioko aleak eskutan erabiltzen edota astiro Ebanjelioa irakurtzen, une horien garrantziaz jabetzen da haurra, Jainkoaren itzala etxean gauza ona dela nabaritzen du, bere kontzientzian sarturik geratzen diren hizkuntza erlijiosoa, hitzak eta zeinuak ikasten ditu, jarrera batzuk barneratzen ditu eta sentiberatasun erlijiosoa esnatzen joaten da bere baitan. Ez dago ezer esperientzia hau ordezkatzeko duenik.

Familia bakoitzak bere era jakina aurkitu behar du otoitz egiteko eta otoitz hori etxeko bizitzan egokitzeko. Hori ez da hain zaila seme-alaba txikienekin: otoitzean lagun egitea, alegia, eta egunaren bukaeran Jainkoari eskerrak ematen erakustea, barkamen eskatzea edota konfiantzaz eskariak egitea. Gaztetxo eta gazteekin garrantzitsuagoa izango da egun seinalatuetan otoitz xume bat prestatzea: familiako norbaiten urtebetetzean, gurasoen ezkontzako urtemugan, oportetara irten aurretik, ikastaro-hasieran, norbaiten gaixoaldi larrian, Gabonetan, urte-bukaeran. Bestalde, hain zaila ote da, otordurako mahaian jartzen gare-

nean gure bihotzak Jainkoarengana jasotzea, atsedean hartu aurretik egongelan elkartu eta denok batera «Gure Aita» esatea, edota Jainkoari eskerrak ematea?

Etxeetako sinesmen-giroa gurasoen erantzukizunaren, eta hauek parroki elkartetik hartzen duten laguntzaren baitan dago. Famili pastoraltzan ari zaretenok adoretzen zaituztegu, gurasoei argibide, iradokizun eta lagungarri pastoralak eskuratzen jarrai dezazuen. Ez dirudi hain zaila izan behar duenik, parrokiatan guraso fededunen talderen bat izatea, beren fedea indartzeko eta guraso kristauen eginkizuna betetzen laguntzeko elkartuko dena.

- ***Norbaitek sinesten ez duenean***

99. Gero eta sarriago gertatzen da, familian norbait izatea ez duela sinesten dioena, edota axolagabekeria osoan bizi dena. Horrelako egoera benetan zailtasun handia gertatzen da; baina bizkorgarri ere izan daiteke fedea hobeto bizitzeko.

Ekintzarako jarraibide batzuk eskaintzen dizkizuegu: elkarrenganako *errespetu* sakon eta benetakoa izan; arreta berezia jarri, norbere fedearen eta bizitzako koherentziaren arteko *testigantzan*; gai erlijiosoei buruzko eztabaidek elkarrengandik urrutiratzea eta elkar erasotzea sortzen badute, *alde batera utzi* horrelako *eztabaidak*; *nork bere fedea aitortu*, berari zer ematen dion adieraziz; ez ahaztu, funtsezkoena beti ere *maitasuna* dela, eta familia bat bereko izatea; eta Jainkoak familia horrelako kide guztiok maite gaituela, sinestedun eta sinesgabe.

Bihotz-berritzearen bideetatik

Jarrai genezake horrelako ekintza-argibide gehiago ematen, fedea esnarazi eta biziberritzen laguntzeko. Baina guztia alferrikakoa izango litzateke, baldin eta geure buruak sinesteduntzat hartzen ditugunok bihotz-berritzerako deia entzuten ez badugu. Sinestedunon testigantza erabakigarria da gure gizartean fedea indartzeko. Gure artean ere Joan Paulo II.aren hitzak entzutea nahi dugu: «Elizak ez dauka hurrengo milurtekoaren atea zeharkatzerik, bere seme-alabei garbitasunera, eta bere hutsegite, leialtasunik eza, koherentziarik eza eta motel-tasunetik damutzerara dei egin gabe»²⁰. Jesukristorenganako gure atxikimendu leiala izan daiteke besteei egin diezaiekegun gonbidapenik onena beren bihotzak Jainkoagana itzul ditzaten.

- ***Apaizen eginkizuna***

100. Era askotako lan eta eginkizunetan sarturik bizi zarete gaur egun apaiz asko, kristau-elkarteen behar desberdinei erantzun nahirik. Gure Elizen izenean balioztatu eta eskertu egin nahi dugu, hainbat aldiz baldintza zailtan egindako zuen ahalegin eder hori. Baina, gure gotzain-zerbitzuari dagokionez, zilegi begigu gauza bat zuei gogoraraztea. Gure ministeritza ez dugu mugatu behar eginkizun jakin batzuk betetzera. Lehenengo gure zeregina, fedearen lekuko eta elkarteetako kristau-bizitzaren sustatzaile izatea da.

²⁰ Joan Paulo II.a, *Tertio millennio adveniente* Gutun Apostolikoa, 33. zenb.

Horregatik, san Pauloren hitzak hartuz eman nahi dizuegu geure aholkua: «Bizkor ezazue esku-ertzaz zeuengan duzuen Jainkoaren grazia. Jainkoak ez digu beldur-espirtua eman, indar- eta maitasun-espirtua baizik. Ez izan gure Jauna aitortzeko lotsarik. Eraman itzazue nekeak Berri Onaren alde, Jainkoaren indarraren laguntzaz» (2 Tm 1,6-9).

Izan gogoan «Jainkoaren Ebanjeliorako bereziak» (Rm 1,1) izan zaretela. Zuen lanean ez zaudete bakarrik. Lagun duzue Jainkoaren Espiritua, Haren «lankide» baitzarete zuek ebanjelizatze-lanean. Ez ahaztu Paulo VI.aren hitz hauek: «Hau da gure apaiz-zerbitzuaren berezitasuna, egunero eta bizitza osoan zehar eskatu ohi dizkiguten mila eratako eginkizunak batasun sakonean lotzen dituen, gure ekintza guztiei esanahi berezia ematen diena: gure iharduera guztian begien aurrean daukagun asmo nagusia, alegia, Jainkoaren Ebanjelioa aldarrikatzea»²¹.

• ***Erljioso-erlijiosen testigantza***

101. Urte hauetan zehar, behin baino gehiagotan egin dizuegu erlijioso eta erlijiosoei dei, fedearen testigu izan zaitezten, Jesukristori erro-errotik jarraitzeko zeuen era bereziaren arabera. Hori gogora ekarri nahi dizuegu gaur berriro ere. Absolutu bakarra den Jainkoari egina diozuen zeuen buruen uste osozko eskaintza kontuan izanik bakarrik uler daitekeen zeuen bizitza horretatik, deituak zaudete Jainko-zentzua esnaraztera, Espirituari barnetik entzutera, Jainkoarenganako maitasuna erakustera behartsuari zerbitzu eginez. Gure kristau-elkarteetako zuen presentzia laguntza izan daiteke askorentzat, Jainko-esperientzia berreraiki dezaten. Jarrai zeuen elkartean eta parrokien arteko elkarlanean.

Era berezian, elkarte kontenplalariei zuzendu nahi diegu geure hitza. Jainkoari egindako zeuen buruen eskaintza kontenplazioan pozez bizitzea testigantza izan behar du guztientzat. Zuen mezuak garbi iritsi behar du gugana: Jainkoa dela, alegia, beharrezko den gauza bakarra. Mundu honek liluraturik edota eginkizun eta lanetan buru-belarri sarturik bizitza honetan ibiltari gabiltzan bitartean, zuek, zeuen begirada Jainkoagan jarririk, funtsezko eta erabateko dena ekarri behar diguzue gogora. Esaguzue zeuen bizitzaz, Jainkoa bakarrik nahikoa dela, eta ez dagoela ezer, ez inor, Hura ordezkaria dezakeenik.

Zuen elkarteak erretiro- eta isiltasun-leku izan daitezke gaur egun; zue-nean aurki dezake batek baino gehiagok Jainkoarekin berriro topo egiteko beharrezko den giroa. Zuen harrera ona eta Jainkoa goretsi eta gurtzearen testigantza dei indartsua izan daitezke zenbaitentzat bere fedea biziberritzeko.

• ***Sinestedunen bizitza***

102. Sinestedun oro dago, bizitzaz eta hitzez fedearen testigu izatera deitua. Sinesmena leialtasunez, arduratsu eta pozik bizi ohi denean, kristau-testigantza berez-berez sortzen da fede-esperientziaz. Ez dago egiaz fededun izaterik, sinemen hori aldarrikatu eta besteak kutsatu beharra sumatu gabe. Bakoitzak berari «bidean gertatua» (Lk 24,35) adierazi behar du.

²¹ Paulo VI.a, *Evangelii nuntiandi* Aholku-idazki Apostolikoa, 33. zenb.

Lehen ere esana dizuegu. «Guztiok ditugu geure inguruan sinesmenetik urruntzen joan diren senitarteko eta lagunak, eta beroriekin batera bizi gara. Zergatik isilean gorde behar diegu geure fede-esperientzia, geure sinesmena eta gure fedeari bizitasuna ematen dioten arrazoibideak?... Fededunok zergatik isildu behar dugu bizitzari buruzko geure kristau-ikuspegia, besteek beren ez-sinestea agerian adierazten dutelarik?»²². Garrantzi handikoa da harreman pertsonalen bidez egindako testigantza hau; izan ere, azken batean, «ba al da norberaren fede-esperientzia ematea ez den, Ebanjelioa hots egiteko beste modurik?»²³.

Paulo VI.ari, *Evangelii nuntiandi* Aholku-idazki Apostolikotik hartutako pasarterik bikainenetako batekin bukatu nahi dugu gure Idazki hau: «Eman dezagun kristau bat edota kristau-talde bat, bizi den giza elkartean ulermen eta onarpenerako duen gaitasuna erakusten duena, bizi- eta helburu-elkartasuna, eta noble eta onetik den guztian denen ahaleginetan solidaritatea ere erakusten duena. Eman dezagun, gainera, bere fedea aitortzen duela era apal eta berezkoan, balore arruntak baino harantzago dauden baloreetan, eta bere itzaropena ere aitortzen duela, ikusten ez den, eta amestera ere ausartuko ez litzatekeen zerbaitetan. Hitzik gabeko aitormen honen bidez, horrelako kristauek galdera jasangaitzak planteatzen dizkiete beren bizitza ikusten dutenei: Zergatik dira hauek horrelakoak? Zergatik bizi dira horrela? Zerk edo nork ematen die horretarako bizi-indarra? Zergatik daude gurekin? Horrelako testigantza, besterik gabe, berri Onaren iragarpen isila, baina oso garbia eta eraginkorra, gertatzen da»²⁴.

Andre Mariak, Jainkoari sinetsi ziolako (Lk 1,45) zorionekoa aitortua izan zenak, gida gaitzala guztiok «gizaki oro argitzen duen egiazko argia» (Jn 1,9) den Harengana.

Iruñe eta Tuteran, Bilbo, Donostia eta Gasteiz
1997ko otsailaren 12a
Hausterre-eguna

- ✘ **Fernando**, Iruñeko Gotzainburua eta Tuterako Gotzaina
- ✘ **Rikardo**, Bilboko Gotzaina
- ✘ **Jose Maria**, Donostiako Gotzaina
- ✘ **Mikel**, Gasteizko Gotzaina
- ✘ **Karmelo**, Bilboko Gotzain Laguntzailea

²² Fededun izan federik ezak jotako egunotan Pastoral Idazkia (1988, Garizuma-Pazkoa), 65. zenb.

²³ Paulo VI.a, *Evangelii nuntiandi* Aholku-idazki Apostolikoa, 46. zenb.

²⁴ Ibid., 21. zenb.